



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 19a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 11-23/LEY-00010. Foru-lege proiektua, Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzkoa. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- 11-23/LEY-00011. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsitako irizpena (29. or.).
- 11-23/LEY-00013. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri mailegu bat emateko Sunsundegui SAri (57. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/ITP-00025. Interpelazioa, lan-istripuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (58. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

11-23/LEY-00010. Foru-lege proiektua, Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzkoa

LANDA GARAPENENKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 157.3. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzko foru-lege proiektuaren irizpena, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia. Foru-lege proiektua 2023ko azaroaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2023ko abenduaren 13an eta 14an egin-dako bileran onetsia.

Foru-lege proiektua, Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzkoa

ATARIKOA

1

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 50.1.b) artikuluan jasotakoaren arabera, Nafarroak eskumen osoa du ehizaren, ibai eta aintziretako arrantzaren eta akuikulturaren gainean.

Eskumen horiek erabiliz, bai eta aipatutako Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 57.c) artikulua emandakoak ere, Nafarroako Parlamentuak 2/1993 Foru Legea onetsi zuen, martxoaren 5ekoa, Basafauna eta Haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzkoa.

Foru lege honek helburu bikoitza bilatzen zuen: "Alde batetik, behar bezala babestea basa-

faunaren biodibertsitatea eta haren habitatak Nafarroan, eta, bestetik, ehizaren eta arrantzaren aprobetxamendua antolatzea, gizakiek arrazoizko eran balia dezaketen faunari dagokionez. Foru lege honen bidez, esparru batean, ingurumenaren eta ekologiaren arloan legeak garatzeko dituen ahalak baliatzen ditu Nafarroako Foru Komunitateak, behar diren babes-neurriak ezarririk estatuko legediaren osagarri; eta bestean, foru araubidea dela bide dituen eskumen eksklusiboak baliatzen ditu ehizaren, ibai- eta aintzira-arrantzaren eta akuikulturaren gainean". (Basafauna eta Haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen zioen azalpena).

Basafauna eta Haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak basafaunaren aprobetxamendua arautzen ditu Nafarroan, bereziki ehizari eta arrantzari dagokionez. Eta eremu zabalean egiten du hori, arautzen baititu basafauna oro har, haren habitatak eta faunaren zati baten aprobetxamendua. Hori guztia, errespetatuz eta mantenduz estatuko araudiaren oinarritzko printzipioak nahiz printzipio orokorrak, bereziki Naturaguneen eta Basaflora eta Basafaunaren Kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legea, indargabetua.

Geroago, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea onetsi zen, helburu harturik arau-esparru propio bat ezartzea, basafaunaren zati baten aprobetxamendua arautzeko, bai eta, bestetik, Basafauna eta Haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aplikatu den hamar urteetako esperientzia jasotzea ere.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen xedea zen Nafarroako Foru Komunitateko ehiza eta

arrantza-baliabideen aprobetxamendua jasangarritasun-irizpideen arabera babestu, kontserbatu, sustatu eta antolatzea eta indargabetu zituen Basafauna eta Haren Habitata Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legean ehizari eta arrantzari dagozkion xedapenak.

2

Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak indarrrik gabe utzi zuen Naturaguneen eta Basaflora eta Basafaunaren Kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legea, eta ezarri zuen, aprobetxamendu-teknikei dagokienez, horiek oinarri izan dezatela baliabidearen alde aurreko antolamendua, ehizarako edo arrantzarako aprobetxatzen ez den gainerako basafaunaren babesa bermaturik.

Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen oinarriko printzipioen artean dago baliabideen erabilera antolatua sustatzea, natur ondarearen aprobetxamendu jasangarria bermatzeko. Lege horren oinarriko printzipioak dira, halaber, zuhurtasun-printzipioa sartzea naturaguneak eta espezie basatiak uki ditzaketen esku-hartzeetan, eta politika sektorialetan behar diren eskakizunak txertatzea, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, jasangarritasunez erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko.

Aurrekoarekin bat, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen III. tituluko laugarren kapituluak, espezieen babesa arautzen da ehizaren eta arrantzaren aurrean. Horiek, baliabide naturalen aprobetxamendu gisa, bermatu egin behar dira, baina haien aplikazioa mugaturik autonomia erkidegoek ezarritako eremuetara, garaietara, harripaketa-metodoetara eta espezieetara. Horien artean ez dira inola ere egonen Interes Bereziko Espezieen Zerrendako espezieak edo Europar Batasunak debekaturiko metodoak edo espezieak.

Lege horrek Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 93/43/EEE Zuzentarauaren transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora (Natura Habitaten eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko Zuzentaruak).

Natura Habitaten eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 93/43/EEE Zuzentaruaren ondorioz, kontserbazio bereziko eremuak (KBE) sortu dira, eta horiek osatzen dute, hegaztientzako babes bereziko eremuekin batera (HBBE), Natura 2000 Sarea. Eremu horietan bizi diren espezieen erabilera eta aprobetxamenduek

koherenteak izan beharko dute naturagune horiek kudeatzeko planekin.

Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea garatzeko onetsi ziren, batetik, otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretua, Babes Araubide Bereziko Espezie Basatien Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzekoa, eta, bestetik, indarrean den abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretua, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duena.

Espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen duen abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretua indarrean jartzearekin, administrazio publiko eskudunei eskatzen zaie neurriak har ditzatela populazioak kontrolatzeko eta, behar denean, espezie horiek desagerrarazteko. Bestalde, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak honako hau ezartzen du 64. artikuluan: "Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek, ehizaren eta arrantzaren arloan, plangintzarako eta kudeaketarako tresnak erabiltzen ahalko dituzte zehazteko zein espezieri eragiten dion, beren lurralde-eremuan, aurreko paragrafoaren edukiak. Hori horrela, ehizan eta arrantzan aritu ahal izateko, espezie horiek lege hau indarrean jarri baino lehen okupatzen zuten eremuaren zehaztapen kartografikoa onetsi beharko du autonomia-erkidegoko administrazio eskudunak, eta autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratuko du. Horren ondotik, ehiza eta arrantza planifikatu eta kudeatzeko lehen tresnak onetsiko dira".

Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea eta hura garatzeko araudia onetsirik, beharrezkoa da Nafarroako araudia onestea eta indarrean den estatuko eta Europako legedira egokitzea. Gogorarazi behar da, gainera, Nafarroako Foru Komunitatea heretsiagoo izan daitekeela, baina inola ere ez laxoagoo, ingurumenaren babesaren arloan.

3

Horregatik guztiagatik, foru legeak lortu nahi du, batetik, arau-esparru bat ezartzea Nafarroako arrain-faunaren aprobetxamendua arautzeko, ingurumenaren babesaren arloan indarrean den araudiari jarraikiz, eta, bestetik, bildu den esperientzia gehitzea, Basafauna eta Haren Habitata Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Legea eta Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aplikatzearen ondoriozkoa, agertu diren behar guztiei erantzuteko.

Nafarroako Arrantzaren Kudeaketari buruzko Foru Lege honen xedea da arrain-baliabideen aprobetxamendu antolatua bermatzea, egungo inguruabar berriei egokiturik, hala ekosistemen egoerari dagokionez nola arrantzari buruz gizarteak duen ikuspegi berriari dagokionez.

Hamabost urte baino gehiago iragan dira Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea onetsi zenetik, eta orduz gerotik eboluzionatu egin dute Nafarroako ekosistema urtarrek eta arrantzaren kudeaketak, bai eta arrantzan aritzen den kolektiboaren profila ere.

Aurreko foru legeak ehiza eta arrantza barne hartzen zituen, baina gaur egun komenigarritzat hartzen da bi jarduera horiek bereiztea foru lege banatan, biak bereiz ere kudeatzen baitira. Kudeaketaren ezaugarriak, ehiztarien eta arrantzarien kolektiboen berezko profila, arau-aldaketen hobekuntza, eta araudiaren sinplifikazioa, horra hor ehiza eta arrantza bi foru legetan bereizteko proposamena bermatzen duten arrazoiak.

Klima-aldaketak eragina du atmosferaren tenperaturaren igoeran eta prezipitazioen aldaketan eta banaketan, eta hori inpaktu handia izaten ari da ekosistema urtarretan, eta ondoriozko aldaketek baldintza okerragoak sortzen dituzte espezie autoktonoentzat.

Aldaketek, ingurunean dauden presioek eta espezie exotikoak sartu izanak murrizketa handiak ekarri dituzte espezie autoktonoen artean, eta, zehazki, arrantzarako interesgarriak diren zenbaitetan.

Nafarroako Arrantzaren Kudeaketari buruzko Foru Legeak inguruabar berrietara moldatu nahi du, kudeaketa ereduak egokituz eta arrantza modalitate jasangarriago batzuetara bideratuz, horien bidez bateragarriak izan daitezen aisialdiko arrantzan aritzea eta espezieen egoera ona kontserbatu eta mantentzea.

Halaber, kontuan hartu behar da arrantza-espezieen populazioak daudela garatzen diren habitataren egoeraren mende: uren kalitate ona, gainerako arrain-faunaren egoera, elikatzeko, babesteko eta gordetzeko erabiltzen dituzten flora-espezieak, eta hondoen egoera. Izan ere, halakoak aldatzen edo ukitzen badira, horrek ondorio larriak ekar ditzake espezieen ugalketa eta garapenerako. Nafarroako Arrantza Kudeaketari buruzko Foru Legeak aintzat hartu behar ditu arrantza-espezieak garatzen diren ekosistemak, eta horregatik, hain zuzen, berriazko titulu bat gehitu da, ibai-habitata hobetzeko.

Foru lege honek errespetatu egiten du Nafarroan arrantza-baliabideen aprobetxamenduak tradizioz izan duen izaera sozial nabarmena.

Foru legea bost titulutan artikulaturik dago, eta barne hartzen ditu xedapen gehigarriak, iragankorrrak, indargabetzaileak eta azken xedapenak; baita bi eranskin ere.

Lehen titulua xedapen orokorreari buruzkoa da. Hartan, foru legearen xedea eta aplikazio-eremua jasotzen dira, eta espresuki aipatzen da baliabidearen jasangarritasuna, legearen helburu nagusi gisa. Horretarako, arrantzaren aprobetxamendua, lehenetsunez animalia-populazio naturaletan oinarritua, jasangarritasun-irizpideekin egin beharko da, eta, ondorioz, bateragarria izan beharko du biodibertsitatea mantentzearekin, dibertsitate genetikoa eusteko, populazio aloktonoak sartzea saihesteko, eta arrantza lurralde-garapenean txertatzea sustatzeko moduan. Arrantza egiteko eskubidea arautzen da, definizioak jasotzen dira, legearen ondorioetarako, eta artikulatu batzuk, bereziki, gizartearen parte-hartzeari, arrantza-baliabideen kudeaketari eta Arrantzako Aholku Batzordeari buruzkoak dira.

II. titulua arrantza-baliabideen aprobetxamenduari buruzkoa da. Hala, lehendabizi, arrantzarako lizentzia eta baimenez aritzen da (I. kapitulua), eta bigarrenik, espezieez (II. kapitulua), bereizirik arrantzatzen ahal diren espezie autoktonoak, babes araubide bereziko espezie basatiak, eta espezie exotiko inbaditzaileak. Lehen bi kapituluetan ezarri ondoren zer baldintza dauden arrantza-lizentzia eta dagozkion baimenak eskuratzeko, eta zer espezie arrantzatzen ahal diren, III. kapituluak arrantzarako tresna eta bitartekoei eta distantziei heltzen die. Titulu honen azken bi kapituluek hizpide dute, batetik, arrantza-piezen merkaturatzea eta garraioa, eta bestetik, arrantzako kirol-lehiaketak.

Lehen aipatu denez, foru lege honek aintzat hartzen ditu arrantza-espezieak garatzen diren ekosistemak, eta, horregatik, III. titulua eskaintzen dio arrain-aberastasuna eta haren habitatak kontserbatu eta hobetzeari. Titulu honek hiru kapitulu ditu. I. kapitulua, nola ez, arrain-aberastasuren kontserbazioari eta sustapenari buruzkoa da. Han jasotzen dira administrazio-baimena behar duten jarduerak, arrain-faunaren gaineko ukipenak, birpopulatuak eta askatzeak, ikerketa eta analisia, espezie exotiko inbaditzaileen kontrola, genetikoki eraldatutako arrainak, arrantza-baliabideen jarraipena eta kontrola, eta arrantza baliabideen egoera sanitarioa.

Nabarmentzekoa da espezie exotiko inbaditzaileen kontrolari emandako araubidea. Hain zuzen, aurreko tituluan zehazturik utzi ondoren zer espezie diren espezie exotiko inbaditzaileak, eta haien hil beharra, harrapatzen badira, 31. artikuluan ezartzen da jarduketak baimentzen ahalko direla espezie horiek kontrolatzeko, zaintza-akordioen, lankidetzak-akordioen edo ezartzen diren beste mekanismo batzuen barnean, espezie horiek kontrolatzeko eta are desagerrarazteko ere..

Artikulu horiek foru legean jaso dira: espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko neurriak ezartzeko aukerarekin; "espezie exotikoen kontrolerako uren" kalifikazioarekin (52. artikulua); eta kasuan kasuko espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoaren onespenerarekin (57. eta 60. artikulua). Arlo honetako ekintzak osatzeko, berriazko arau-haustek xedatu dira espezie exotikoen inguruan, hala nola espezie exotiko inbaditzaileak bizirik edukitzea arrantza-tartetik kanpo (arau-hauste oso astuna), ez hiltzea espezie exotiko inbaditzaileak, horiek hiltzea nahitaezkoa denean foru legearen beraren arabera, eta beitatarako erabiltzea espezie exotiko inbaditzaileak edo horien zatiak (arau-hauste astuna).

III. tituluko II. kapituluaren xedea da arrain-espezieen habitata kontserbatzeko programa ezartzea, eta neurriak bideratzen dira arrain-espezieen habitatak, ur-bazterreko landaredia eta konektagarritasuna hobetzeko eta kontserbatzeko.

Azkenik, III. tituluko III. kapituluak aintzat hartzen ditu arrantza-jardueraren sustapena eta ibai-habitataren hobekuntza.

IV. titulua arrantzaren plangintzaz eta antolamenduaz aritzen da, eta hiru kapitulu ditu: I. kapitulu. Uren zonifikazioa eta sailkapena; II. kapitulu. Arrantzaren antolamendua; eta III. kapitulu. Arrantza-barrutiak.

I. kapitulu bi ataletan banaturik dago. Hala, lehen atalean ezartzen dira uren zonifikazioa, arrantzaren ondorioetarako, eta uren sailkapena, arrantza-ahabekuntzaren ondorioetarako, bai eta uren seinalezapena ere, arrantzaren ondorioetarako. Bigarren atala arrantzarako urei buruzkoa da, eta hirugarren atala, berriz, arrantzarako ez diren urei buruzkoa.

II. kapitulu, arrantzaren antolamenduari buruzkoa, plangintzan oinarritzen da jasagarritasuna segurtatzeko funtsezko tresna gisa, bat etorrita hala foru legean nola natura-ondarearen eta biodibertsitatearen kontserbazioari buruzko eta espezie exotiko inbaditzaileen kontrolari buruzko araudian jasotzen diren printzipioekin. Plangintza

horrek oinarri hartu behar du, era berean, populazioen ezagutza zientifikoa, bai eta haiekin elkarre-ragina izaten dituzten gainerako faktoreena ere, hidrobiologikoak, ekologikoak, sozialak edo beste edozein motatakoak izanik ere. Helburu horiek erdiesteko, ezinbestekoa da arrantza antolatu eta kudeatzeko tresnak onestea, alegia: arrantza antolatzeko plan zuzentzaileak, arrain-espezieak kudeatzeko planak, arrantza kudeatzeko plan teknikoak eta espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoak, eta, azkenik, arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak.

Bada garrantzizko aldaketa bat Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen aldean, xedatzen baita arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak ez direla urtero onetsi beharko, eta 5 urte bitarteko indarraldia izaten ahalko dutela.

III. kapituluak arrantza-barruti publiko eta pribatuak ditu hizpide, bai eta arrantza-barruti horien aprobezamenen titularrek dituzten betebeharrak ere. Halaber, kapitulu hori ixten duen artikuluan, 65.ean, aukera ematen da arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak debekualdia ezar dezan barrutiaren eremu-zati batean edo espezie jakin baten aprobezamenetan, edo arrantza-denboraldia murriztu dezan, komenigarri denean basafauna babesteko inguruabar bereziak direla eta; orobat, debekatzen ahalko du arrantza egitea toki jakinetan, deklaritzen bada haietan epizootiak daudela, edo pertsona, etxeko animalia edo basafaunarentzat kutsakorrek diren eritasunak daudela.

Foru legearen azken titulua zehapen araubideari dagokio, eta lau kapitulu ditu: I. kapitulu. Arau-haustek: II. kapitulu. Zehapenak; III. kapitulu. Eskumena eta zehapen-prozedura; eta IV. kapitulu. Kaltea konpontzea.

Arau-haustek eta zehapenak egokitu dira foru legeak emandako arau-esparru berrira, eta, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean ez bezala, aukera ezarri da zehapenak beti berekin ekar ez ditzan arrantza-lizentziaren galera eta arrantzan aritzeko desgaitzeta. Hala ere, xedatzen da ezen, baldin arau-haustek desgaitzeta ezarria badu arrantza-lizentzia eskuratzeko, lehenagoko administrazio-ebazpen edo ebazpen judizial irmo baten bidez, eta beste zehapen bat ezartzen bazaio, lizentziaren galera eta desgaitzeta dakartzana, zehapen-ebazpen berriaren ondorioz ezarritako epea hasiko dela kontatzen legearen arabera pertsona hori berriz lizentzia eskuratzeko moduan dagoen egunetik aurrera. Berria da, orobat, behin zehapen-prozedura hasita, ustezko erantzulea

den pertsonak aukera izanen duela, isun gisako zehapenaren orde, ingurumen arloko leheneratze, kontserbazio edo hobekuntza prestazio bat eskatzeko, ingurumenari onura ekarriko diona, isuna jartzeko eskumena duen organo eskudunak ezartzen dituen baldintzak eta nondik norakoak betez. Hau da, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean ez bezala, ez da beharrezkoa zehapena irmoa izatea, ordeko ingurumen prestazioa eskatzeko. Nabarmendu behar da, halaber, arau-haustekak loturik badaude ur-ibilguetara eginiko isurketekin eta horiek fauna urtarra ukitzen badute, zehapenak ezarriko direla ur-masan ukitutako tartearan arabera, ukitutako arrain-aleengatik ezarritako zehapenez gain.

Azkenik, xedapen gehigarri bat dago, Bidasoa ibaian urtero arrantzatzen den izokin atlantikoaren lehen harrapaketa merkaturatzeari buruzkoa; lau xedapen iragankor, lehena araubide iragankorrari buruzkoa da; bigarrena, arrantza-aparailuetan beruna erabiltzeari buruzkoa; hirugarrena, askatzeen jatorri genetikoari buruzkoa eta laugarrena, arrantza-lizentzien indarraldiari buruzkoa.

Xedapen indargabetzailearen eta azken xedapenen xedea da foru lege honetan xedaturikora egokitu daitezen 17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzkoa, eta 2/1993 Foru Legea, martxoaren 5koa, Basafauna eta Haren Habitata Babestu eta Kudeatzeari buruzkoa.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko helburu bakarra da arrantzaren erreferentzia guztiak kentzea, Nafarroako Arrantza Kudeaketari buruzko Foru Legeak arautuko baitu arrantza, haren aurreproiektua onesten denetik aurrera.

Gainera, egokitzeko Natur-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean eta abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan ezarritakora, eta, beraz, foru lege honetan xedatutakora, proposatzen da alda dadila 2/1993 Foru Legea, martxoaren 5koa, Basafauna eta Haren Habitata Babestu eta Kudeatzeari buruzkoa.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru lege honen xedea da arrain-baliabideen aprobetxamendua babestea, kontserbatzea, sustatzea eta antolatzea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko baliabide horiei lotutako ekosiste-

mak kontserbatzea eta leheneratzea ere, jasangarritasun-irizpideen arabera.

2 Foru lege hau ez zaio aplikatuko arrantza-ekoizpen komertzialari.

2. artikulua. Baliabidearen jasangarritasuna.

1. Arrantzaren aprobetxamendua lehentasunez animalia-populazio naturaletan oinarrituko da; hori jasangarritasun-irizpideekin egin beharko da, eta, ondorioz, bateragarria izan beharko du biodibertsitate mantentzearekin, dibertsitate genetikoari eusteko, populazio aloktonoak sartzeari galarazteko, eta arrantza lurralde-garapenean txertatzea sustatzeko moduan.

2. Nafarroako Foru Komunitatean arrantzaren kudeaketak espezie autoktonoen garapena sustatuko du.

3. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak neurriak hartzen ahalko ditu espezie edo populazio aloktonoak desagerrarazteko, baliabide naturalen jasangarritasuna bermatzeko helburuz.

4. Baliabidearen jasangarritasuna bermatzeko eta populazio autoktonoen egoera mantendu eta hobetzeko, Nafarroan arrantza eginen da harrapatutako aleak ingurune naturalera bizirik itzultzeko aukera ematen duten modalitateetan, salbu eta aleak harrapatu eta eramateko arrantza baimendurik dagoen tarte eta ur-masetan.

5. Jarduera orok zaindu beharko du habitaten, espezieen, eta biodibertsitatearen kalitatea, eta, era berean, baliabide naturalen erabilera eta aprobetxamendu antolatua segurtatu beharko du, eta garapen ekonomiko jasangarria ahalbidetu, bai eta gizarte-, kultura- eta kirol-helburuak bete daitezen ere.

3. artikulua. Arrantza egiteko eskubidea.

Badu arrantza egiteko eskubidea foru lege honetan eta garatzeko araudian horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituen orok, ez baldin bazaio desgaikuntzarik ezarri arrantza egiteko.

4. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira hurrengoak:

a) Arrantza egitea: arrantza egitea da, arrantza-tresnak edo beste bitarteko batzuk erabiliz, arrain- edo karramarro-espezieak bilatu, erakarri, jazarri edo inguratzea, haiek harrapatu eta itzultzeko, hiltzeko, haietaz jabetzeko, edo hirugarrenei harrapaketa errazteko, eta horretarako zuzenean behar diren prestaketa-lanak egitea.

Ez dira arrantza egitea izanen, foru lege honen eta berau garatzeko xedapenen ondorioetarako, arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak baimentzen edo egiten dituen ikerketa eta kudeaketa jarduerak.

b) Merkaturatzea: produktu batez hornitzea, ordaindurik nahiz doan, hura merkatuan banatu, kontsumitu edo erabiltzeko, merkataritza-jarduera batean.

Ez da merkaturatzea izanen, foru lege honen eta berau garatzeko xedapenen ondorioetarako, arrantzaren alorrean eskumena duten administrazioen arteko trukeak edo transakzioak, haien artean sinaturiko lankidetzak-akordioen ondoriozkoak eta birpopulatzekak eta askatzekak egiteko helburua dutenak.

c) Espezie autoktonoa: bere banaketa area naturalaren barnean bizi dena.

d) Espezie exotiko inbaditzailea: ekosistema edo habitat natural edo erdinatural batean sartu edo kokatzen den espeziea, bertako dibertsitate biologikoarentzat aldaketa agentea eta mehatxua dena, jokabide inbaditzailea duelako edo kutsadura genetikoa gertatzeko arriskua dakarrelako.

e) Inbaditzailea izan daitekeen espezie exotikoa: espezie exotiko bat, Nafarroan inbaditzaile bihurtu daitekeena, eta bereziki halakoa izatea erakutsi duen espezie bat, Nafarroakoan antzeko baldintza ekologikoak dituzten beste herrialde edo eskualde batzuetan.

f) Ur-masak: ibaiak, errekek, errekastoak, iturburuak, urtegiak, ubideak, erretenak, uharkak, aintzirak, idoiak, baltsak, urmaelak, hezeguneak, ur-biltegiak edo antzeko ezaugarriak dituen beste ur-ibilgu edo ur-metaketa oro, deitzen zaion moduan deitzen zaiola.

g) Arrain-espezieen habitatak: espezie horiek bizitzea eta garatzea ahalbidetzen duten ur-masek, horien hondoek, ur-bazterrek, landarediak eta dagokien biotopoak eratutako ingurunea.

h) Arrantza-pieza: arrantzatutako edo harrapatutako arrain eta karramarro aleak. Ez dira arrantza-piezak izanen legez eraturako industria-ustiategietako aleak. Horiek eraman beharko dituzte jatorria ziurtatzen duten agiriak.

i) Nafarroako arrantza-lizentzia: agiri pertsonal eta besterenezina, arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak emana eta foru lurraldean arrantzan egiteko gaitzen duena.

j) Arrantza-pasea: nominala, banakakoa eta besterenezina den akreditazio bat, barruti batean eta espezie exotikoen kontrolerako uretan arran-

tza egiteko gaitzen duena, barruti hori edo espezie exotikoen kontrolerako urak kudeatzen dituen entitateak emana.

k) Arrantza-baimena: nominala, banakakoa eta besterenezina den akreditazio bat, tarte, ur-masa edo arro jakinetan arrantza egiteko gaitzen duena, halakoak ezartzen direnean.

l) Presak: foru lege honen ondorioetarako, presak dira ur-ibilguarekiko perpendikularrak diren oztopo artifizialak, gutxieneko garaiera 50 zentimetrokoa dutenak, gailurretik presaren oinaldean den ur-geruzara bitarte.

m) Birpopulatzekak: ingurune naturalean ale biziak sartzea, dauden populazioak indartu edo orekatzeko, edo desagerturiko populazioak leheneratzeko.

n) Askatzekak: arrantzatzen ahal diren espezie-tako ale biziak askatzea, harrapa daitezen, gizar-tan dagoen arrantza-eskariari erantzuteko.

ñ) Lurraldea zaintzeko akordioa: borondatez sinaturiko akordio bat, sinatzen dutena pertsona fisiko edo juridiko –publiko nahiz pribatu– batek, lurralde baten gainean erabiltze-eskubide baten jabea edo titularra den aldetik, eta lurraldea zaintzen duen entitate batek, lurralde horren babesa eta kontserbazioa bultzatzeko.

5. artikulua. Gizartearen parte hartzea.

Arrantza aprobetxamenduen gaineko erabakiak hartu behar direnean, gizartearen parte-hartzea ahalik eta zabalena izanen da, eta horretarako baliatuko dira lehendik dauden kide anitzeko eta aholkularitzako organoak. Hartara, ahalik eta adostasunik handiena bilatuko da, eta parte-hartzeko bideak ezarriko dira, erabakiak non aplikatu behar diren, hango gizartearen errealitatearen isla izan daitezen.

6. artikulua. Arrantza-baliabideen kudeaketa.

1. Arrantza-baliabideen kudeaketa jasangarria eta haien aprobetxamenduaren antolamendua foru komunitateko administrazioari dagozkio. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak erabiliko ditu eskumen horiek.

2. Haren eskumenak ezertan galarazi gabe, foru komunitateko administrazioak izaten ahalko du izaera sozialeko eta irabazi-asmorik gabeko entitate publiko edo pribatuen lankidetzak.

7. artikulua. Arrantzako Aholku Batzordea.

Arrantzako Aholku Batzordea gizartearen parte-hartzerako kide anitzeko organoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak arrantza kudeaketaren arloan egiten duen jarduerarako.

II. TITULUA

Arrantza baliabideen aprobetxamendua

I. KAPITULUA

Lizentziak eta baimenak

Lehendabiziko atala

Xedapen orokorrak

8. artikulua. Arrantza egiteko baldintzak.

1. Nafarroan arrantza egiteko, Nafarroako Foru Komunitatearen arrantza-lizentzia eduki beharko da (foru lege honen 11., 49., 50. eta 51. artikuluetan azaltzen diren kasuetan izan ezik), bai eta behar diren baimenak ere, eta legez eta erregelamenduz ezarritako baldintzak bete.

2 Arrantza egiteko, interesdunak agiri hauek eduki beharko ditu:

a) Indarreko arrantza-lizentzia, salbu eta aurreko apartatuan jasotako kasuetan.

b) Identitatea frogatzeko agiria, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

c) Arrantza-tarte motari dagokion arrantza-baimena edo espezie exotikoen kontrolerako barruti- edo ur-pasea, horiek behar diren kasuetan.

d) Arrantza pribaturako uretan, arrantza-eskubidearen titularraren edo hura errentan duenaren baimena.

e) Baimen bereziak, baldin eta halakoak behar dituzten arrantza-tresnak edo -bitartekoak erabiltzen badira.

f) Foru lege honetan, berau garatzeko xedapenetan edo indarreko beste edozein arautan eskatzen diren gainerako agiri edo baimenak.

3. Arrantza egiten duenak frogatu beharko ditu bai bere identitatea, bai arrantza egiteko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

9. artikulua. Arrantza egiteko aldi eta egun baliiodunak.

1. Arrantza egiteko aldi eta egun baliiodunak izanen dira debekualdiei buruzko xedapen orokorretan xedaturikoak.

2. Oro har, debeku da gauez arrantzatzea, salbu eta interes eta izaera sozialeko egoera jakin batzuetan, Ingurumeneko Departamentuaren alde aurreko baimenarekin.

10. artikulua. Ontzitik edo flotazioko beste sistema batzuetatik arrantzatzea.

1. Nafarroako ur nabigagarrietan baizik ez dago baimendurik ontzitik arrantzatzea, ibai-arroaren ardura duen erakundeak ezarritako arau eta baldintzei jarraikiz.

2. Oro har, arrantza egiten ahalko da bainuaren osagarriak diren flotazio gailu edo bitartekoe-tatik (ahateak edo katamaran-ahatea) jabari publiko hidraulikoaren eremuetan, baldin eta bainatzea debekaturik ez badago eta horiek erabiltzea berriaz debekatu ez bada debekualdiei buruzko xedapen orokorrean; orobat, bete beharko dira aplikatu beharreko gainerako arauen eskakizunak.

Bigarren atala

Arrantza-lizentzia

11. artikulua. Arrantza-lizentzia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko arrantza-lizentzia da foru-lurraldean arrantza egiteko gaitzen duen agiria, eta nahitaezkoa da 13 urte bete dituzten guztientzat.

2. Arrantza-lizentzia eskura dezake hura eskatzen duen orok, baldin eta betetzen baditu foru lege honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako baldintzak.

3. Ez dute arrantza-lizentziarik beharko arrantza egiteko 13 urte bete ez dituztenek, baina beti lagundu beharko die arrantza-lizentzia duen adin nagusiko norbaitek.

4. Adingabe emantzipatugabeek, arrantza-lizentzia kontinentala eskatu nahi badute, izan beharko dute haien legezko ordezkariak duen pertsonaren baimena.

5. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak ezarriko ditu lizentzia-motak, haien indarraldia eta haiek emateko prozedura.

6. Nafarroan arrantza-lizentzia lehenbizikoz eskuratzeko, eskatzen ahalko da prestakuntza jardunaldi batera joateko, zeina administrazioak berak edo entitate laguntzailek emanen baitute, erregelamenduz xedatutakoaren arabera. Jardunaldi hori emateko formatuak bete beharko ditu irisgarritasun unibertsalari eta desgaitasunari lotutako baldintzak, eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatu beharko du.

12. artikulua. Lizentzia eskuratu ezin izateko arazoak.

Honako hauek ezin izanen dute arrantza-lizentziarik eskuratu, ez eta berritu ere:

a) Lizentzia eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenek.

b) Epai judizial irmo baten bidez lizentzia eskuratzeko desgaiakuntza ezarria dutenek.

c) Foru lege honen edo berau garatzeko arauen aurkako arau-haustea eginda, zehapen espedientean emandako ebazpen irmo baten bidez desgaiakuntza ezarria dutenek.

d) Foru lege honen edo berau garatzeko arauen aurkako arau-haustea eginda, zehapen espedientean emandako ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapenak eta gainerako betebeharrak bete ez dutenek.

Hirugarren atala

Arrantza-baimenak eta arrantza-paseak

13. artikulua. Arrantza-baimenak.

1. Arrantza-baimena eduki beharko da tarte, ur-masa edo arro jakin batzuetan arrantza egiteko, arrantza-lizentziaz gain.

2. Arrantza-baimenek balioko dute tarte, ur-masa edo arro jakin baterako, eta arrantza-egun bakarrerako. Baimena eskuratutakoan, hura pertsonala eta besterenezina izanen da, eta gaituko du emandako baimenari dagozkion espezieak harrapatzeko, baimenean zehaztutako modalitateak erabiliz; gainera, baimena eskuratzearekin, titularrak onartzen ditu tarte, ur-masa edo arro horretarako diren arau espezifiko guztiak.

3. Erronka demografikoko udalerrietan turismoa sustatzeko asmoz, Nafarroako Foru Komunitatean erabilgarri dauden baimenen ehuneko jakin bat erreserbatu ahalko da, ez dena inola ere izanen erabilgarri dauden baimenen % 15 baino gehiagokoa. Erronka demografikoko udalerrietan kokatutako turismo-ostatuak eskatu ahal izanen dituzte baimen horiek, baldin eta arlo horretan indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera behar bezala erregistratuta badaude. Ezinbestekoa izanen da baimena ematen zaion arrantzaleak turismo-ostatu horretan igaro dezan baimena baliatu aurreko edo ondoko gaua. Era berean, baimen horiek eskatzea zilegi izanen dute arrantza-jarduerari laguntzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek.

Debekualdien xedapen orokorrean ezarriko da turismoa sustatzeko baimenak erreserbatzeko eta liberatzeko prozedura, bai eta arrantza-jarduerari laguntzeko zerbitzuak ematen dituzten establezimendu edo enpresen egiaztapena ere.

4. Arrantza-kudeaketaren arloan eskumena duen Departamentuaren titularraren foru agindu

baten bidez ezarriko dira baimen motak, modalitate bakoitzerako erreserbatutako ehunekoak eta horiek emateko prozedura.

14. artikulua. Arrantza-paseak.

1. Arrantza egiteko arrantza-barrutietan eta espezie exotikoen kontrolerako uretan, horiek ezartzen direnean arrantza kudeatzeko plan teknikoetan eta espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoetan, arrantza-pasea eduki beharko da, behar den lizentziaz gain.

2. Arrantza-paseak agiri pertsonalak eta beste-renezinak dira, arrantza-barrutietan eta espezie exotikoen kontrolerako tarteetan arrantza antolatzeaz arduratzen den entitate kudeatzaileak ematen ditu, eta titularrari baimena ematen diote arrantza egiteko araubide bereziko ur horietan.

3. Pasearen titularrak eguneko inkesta jakinaz beharko dio entitate kudeatzaileari, hura ibaiaren inguruko buzoian utzita, edo sistemak telematikoa erabilia.

4. Paseak adjudikatuko dira, oro har, oinarri hartuta kasuan kasuko arrantza kudeatzeko plan teknikoa edota espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoa, foru lege honen 60. artikuluan jasotakoari jarraikiz, eta aintzat hartuz aukera-berdintasunaren printzipioa.

5. Turismoa sustatzeko helburuz, urtero paseen ehuneko bat erreserbatzen ahalko da, inoiz ez ehuneko bostetik gora, turismoa sustatzeko xedea duten pertsona fisiko edo juridikoentzat. Baimen horiek emateko sistema izanen da aurreko apartatuan aipaturiko foru aginduan ezarritakoa.

II. KAPITULUA

Espezieak

15. artikulua. Arrantzaten ahal diren espezie autoktonoak.

1. Foru lege honen edo berau garatzeko arauen ondorioetarako, arrantzaten ahal diren espezie, subespezie eta arrain-populazio autoktono bakarrik dira ingurune urtarrean bizi eta I. eranskinean jasotzen direnak, betiere errespetaturik estatuaren oinarritzko araudian ezarritako debekuak.

Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu baten bidez, aldatzen ahalko dira aipatu I. eranskineko arrantzaten ahal diren espezieak, alde aurreko justifikazio teknikoarekin.

2. Gainerako espezieak ezin izanen dira arrantzatu, eta, harrapatzen badira, berehala itzuli beharko dira jatorriko uretara, ahalik eta kalte gutxienarekin.

16. artikulua. Babes araubide bereziko espezie basatiak.

1. Babes Araubide Bereziko Espezie Basatien Zerrendan, hala Nafarroakoan nola estatukoan, sarturiko espezie, subespezie eta populazioak, edo Europar Batasunean debekaturik daudenak, ezin izanen dira deklaratu arrantzatzen ahal den espezie gisa.

2. Halabeharrez harrapatzen badira aurreko apartatuan sartzen diren espezieak, eta arrantzatu ezin diren espezie autoktonoak, berehala itzuliko dira jatorriko ingurunera, ahalik eta kalte gutxienezekin.

3. Salbuespenez, baimentzen ahalko da espezie horiek harrapatzea, administrazioak kontrolatutako moduan, argi dagoenean hori onuragarria izan daiteke haien kontserbaziorako, bat etorritasun kasuan kasuko leheneratze eta kontserbazio planetan edo arrain-espezieak kudeatzeko planetan ezarritakoarekin.

17. artikulua. Espezie exotiko inbaditzaileak.

1. Espezie exotiko inbaditzaileak izanen dira izaera hori dutenak natura-ondarearen eta biodibertsitatearen alorrean indarrean den estatuko legedian ezarritakoaren arabera, bai eta beste espezie batzuk ere, Nafarroarako halakotzat sartu direnak II. eranskinean.

2. Arrantza kudeatzeko neurrien xede izaten ahalko dira II. eranskinean sarturik dauden espezieak, foru lege honetan ezarritako baldintzetan, aurreko apartatuan aipatzen den araudian ezarritako esparruaren barnean.

3. Foru lege honen II. eranskineko espezie exotiko inbaditzaileak baizik ezin izanen dira arrantzatu, kontrolatzeko eta, ahal dela, desagerarazteko, edo heda daitezen mugatzeko, bederen, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea indarrean jarri aurretik ezagutzen ziren banaketa-eremuetan, bat etorritasun Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duen abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan ezarritakoarekin.

4. Jatorriz exotikoak diren espezie, subespezie edo populazio berriak ezin izanen dira arrantza espezie deklaratu, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko uretara sartu badituzte edo berez hedatu badira Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea indarrean jarri ondoren.

18. artikulua. Espezie exotiko inbaditzaileak hiltzea.

Espezie exotiko inbaditzaileetako aleak hil beharko dira harrapatzen diren unean, baina salbuetsita egonen dira, hala ere, espezie horien harrapaketa arauturik badago foru lege honen 57. artikuluan jasotzen diren plangintza tresnetako baten bidez.

19. artikulua. Gutxieneko neurriak arrantzatzen ahal diren espezieen harraketan.

1. Arrantzatzen ahal diren espezieak harrapatzeko gutxieneko neurriak ezartzen ahalko dira foru lege honen 59. artikuluko arrain-espezieak kudeatzeko planetan, edo 61. artikuluko debekualdiei buruzko xedapen orokorretan.

2. Debekaturik dago ezarritako gutxieneko neurriak ez dituzten aleak eduki, garraiatu eta merkaturatzea, akuikultura zentroetatik edo baimenduriko beste jatorri batzuetatik datozenak izan ezik; horien jatorria behar bezala frogatu beharko da.

3. Ezarritako gutxieneko neurriak ez dituzten aleak harrapatu eta berehala itzuliko dira uretara.

4. Honen ondorioetarako, arrainak neurtzen dira buruaren aurreko muturretik itsas-hegalaren atzeko erdiguneraino.

III. KAPITULUA

Arrantzarako tresnak eta bitartekoak eta distantziak

20. artikulua. Arrantzarako tresna eta bitarteko baimenduak.

1. Nafarroako Foru Komunitatean arrantza egiteko, foru lege honetan eta berau garatzeko arauetan baimentzen diren arrantzarako tresnak eta bitartekoak bakarrik erabiltzen ahalko dira.

2. Oro har, arrainak harrapatzeko arrantzako kanbera erabiltzea baizik ez da baimenduko, eta karramarroak harrapatzeko, sare-saskiak bakarrik.

21. artikulua. Arrantzarako tresna, bitarteko eta modalitate debekatuak.

1. Debekaturik dago animaliak harrapatzeko metodo eta baliabide hauek edukitzea eta arrantzarako erabiltzea, eduki gabe horretarako behar den administrazio-baimena:

a) Sare-mota guztiak.

b) Pozoiak, beita pozoiak edo lasaigarriak, eta beste edozein substantzia edo gailu geldiarazle edo lasaitzaile.

c) Gailu elektrokutatzaila edo geldiarazleak.

d) Lehergaiak.

e) Substantzia edo gailu erakartzaileak (clonk izenekoa barne) edo uxatzaileak.

f) Argi-iturri artifizialak.

g) Arrastoa sortzen duten substantziak.

h) Atzaparrak, burdina-kakoak, hiruhortzekoak, karakoteak, karpinak, arpoiak, arrain-tranpak, baheak, pertolak, esparbelak, esku-sareak, tre-tzak, salabardoak, kordelak, egoneko amu-hariak eta gisako arrantza-tresnak.

i) Arrain biziak beitatirako.

j) Pisutan, % 1eko berun-kontzentrazioa (metaltan adierazia) edo gehiago duten aparailuak.

k) Garrangadun amuak erabiltzea salmonidoen goiko eremuan; foru lege honen 40. artikuluan zehazten da.

l) Tresnak, aparailuak, beita eta apeuak erabiltzea, baldin eta horiek espezifikotzat jotzen badira I. eta II. eranskinetan arrantzatzen ahal den espezie gisa sarturik ez dagoen basafaunako beste edozein espezie harrapatzeko.

m) Urpeko arrantzarako metodo eta bitartekoak.

2. Debeku da eskuz eta su-armaz arrantzatzea.

3. Debeku da urak beitatzea arrantza egin aurretik edo bitartean.

4. Debeku da beitatirako erabiltzea abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuaren eranskinean sartutako espezie exotiko inbaditzaileetatik edozein, hilik nahiz bizirik, osorik nahiz zatika, bai eta horietatik eratorritakoak ere. Espezie eta urremasa bakoitzerako baimendutako beita motak baidik ezin izanen dira erabili.

5. Debeku da, arrantza errazteko asmoz, ibilguetan harri, egur edo bestelako materialez eginko oztopo edo hesiak paratzea dakarren edozein prozedura, edo ibilguak nahiz emariak aldatzea.

22. artikulua. Distantziak.

1. Babesteko espezieak aske joan daitezen ibai-ibilguetatik eta arrantza harmonizatzekeo hartan aritzen diren pertsonen artean, bai eta baliabidearen antolaketa bermatzeko ere, honako distantzia hauek ezartzen dira:

a) Foru lege honetako izokin-tartean (foru lege honen 40. artikuluan zehaztua), izokinaren arrantza baimendurik dagoen tokietan, gutxienez 50 metroko distantzia gorde beharko da arrantzariarengandik eta haren beitatik presen oinalde-

ra eta arraintzako mailadi eta pasabideen irteera eta sarrerara.

b) Salmonidoen eremuaren gainerakoan eta ziprinidoen eremuan (foru lege honen 40. artikuluan zehazten da), gutxienez 10 metroko distantzia gorde beharko da arrantzariarengandik eta haren beitatik arraintzako mailadi edo pasabideen irteerara eta sarreretara. Arraintzako pasabiderik ez duten presetan, gutxienez 50 metroko distantzia gorde behar da arrantzariarengandik eta haren beitatik presen oinaldera.

c) Debekualdiei buruzko xedapen orokorrean ezartzen ahalko da presa jakin batzuetan baimendurik egon dadin presaren oinaldean arrantzatzea, aurreko apartatuan ezarritako distantziak gorde gabe.

2. Betiere, eta elkar ez eragozteko, 25 metrokoa izanen da arrantzan ari diren bi pertsonen artean gorde beharreko gutxienerako distantzia, biak ez badira ados jartzen.

3. Karramarroak arrantzatzean, horretan ari den pertsona bakoitzak gehienez 15 metro lineal okupatzen ahalko du ur-bazterrean baimendutako sare-saski bakoitzeko.

IV. KAPITULUA

Arrantza-piezen merkaturatzea eta garraioa

23. artikulua. Arrantza-piezen merkaturatzea.

1. Debeku da merkaturatzea Nafarroan arrantzatutako ale guztiak.

2. Legez eraturako industria-ustiategietatik badatoz, urte osoan zehar merkaturatzen ahalko dira arrantzatzen ahal diren espezieetako aleak. Haien jatorria frogatu beharko da betiere, eta izan beharko dituzte, orobat, merkaturatzeko behar diren gainerako baimen guztiak.

24. artikulua. Arrantza-piezen garraioa.

1. Arrantza-piezak hilik garraiatu beharko dira. Arrantzatzen ahal diren espezieak bizirik garraiatzeko, behar diren baimenak eduki beharko dira.

2. Baimendurik dago arrantzatzen ahal diren espezie exotiko inbaditzaileetako aleak eduki eta garraiatzea, baldin eta horiek hilik badaude eta autokontsumorako edo ezabatzeko toki egoki batean uzteko badira. Arrantzatzekeo debekua duten espezieei dagokienez, horiek ezabatzeko baizik ez da baimenduko garraioa.

V. KAPITULUA

Arrantzako kirol-lehiaketak

25. artikulua. Arrantzako kirol-lehiaketak antolatzea.

1. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak ahalbidetuko du, kirolari buruzko legediarekin bat, antola eta egin daitezen Nafarroako Arrantza Federazioak antolaturiko kirol-lehiaketa ofizialak. Horretarako, egiaztatuko du kirol-lehiaketa horiek egiten direla ur-ibilgu eta arrantzarako gune egokienetan, eta betiere segurtatuko du horiek bateragarriak direla ekosistema urtar kontinentalen kontserbazio egokiarekin, bai eta kasuan kasuko arrantzarako uren funtzionamendu arauekin ere.

2. Oro har, foru lege honen 50. artikuluan jasotako arrantzarako guneetan baizik ezin izanen dira tarteak erreserbatu, arrantzako kirol-lehiaketak egiteko.

26. artikulua. Arrantzako kirol-lehiaketetarako neurri espezifikoa.

1. Urteko kirol-egutegiaren barneko kirol-lehiaketak egiten direnean, espezie exotiko inbaditzaileen kontrolerako neurriak aplikatuko dira kirol-proba bukatutakoan; hain zuzen ere, espezie horiek hil egin behar dira, foru lege honen 18. artikulua araberan.

2. Lehiaketetan, arrantzatzen ahal diren espezieetako ale harrapatu guztiak gorde beharko dira arrainontzi zabaletan, eta, behin kontrolaturik, uretara itzuliko dira ahalik eta egoerarik onenean, salbu eta aurreko apartatuan adierazitako espezieak.

3. Lehiaketa ofizialetan baizik ez daude baimendurik gaueko arrantza eta/edo urak beitatzea. Horiek baimendurik dauzkate, orobat, entrenamendu fasean dauden arrantzariak, Nafarroako Arrantza Federazioan federaturik daudela frogatzen badute. Debekualdiei buruzko xede orokorretan xedatutakoari jarraikiko zaio horretarako.

III. TITULUA

Arrain-aberastasuna eta haren habitatak kontserbatu eta hobetzea

I. KAPITULUA

Arrain-aberastasuna kontserbatu eta sustatzea

27. artikulua. Administrazio-baimena behar duten jarduerak.

Dibertsitate genetikoa kontserbatu eta arrain-espezieen habitatan eta oreka ekologikoen aldaketa eragozteko, honako ekintza hauek egin

aurretik beharrezkoa izanen da administrazio-baimena:

a) Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean sartzea, haztea eta lekuz aldatzea arrantzatzen ahal diren espezie edo subespezie aloktonoak eta haien azpiproduktuak.

b) Espezie edo subespezie autoktonoak berriz sartzea, haztea, lekuz aldatzea eta askatzea.

c) Arrantza-pieza biziak edukitzea, salbu eta 26. artikuluan ezarritakoa.

28. artikulua. Birpopulatzeak eta askatzeak.

1. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak birpopulatzeak egiten ahaliko ditu Nafarroako arrantza publikoko ur-masetan, populazio naturalak indartu edo leheneratzeko; orobat, aleak askatzen ahaliko ditu, arrantzatzen ahal diren piezak gehitzeko.

2. Urteroko birpopulatzeak eta askatzeak agiri tekniko batean jasoko dira. Hartan ezarriko da zein ur-masa birpopulatuko diren eta kasu bakoitzean zenbat ale askatuko den.

3. Birpopulatzeak eta askatzeak, ur publikoetan, egoera sanitario oneko aleekin baizik ezin izanen dira egin; kasuan kasuko arroko ugaltzaile autoktonoenak izan beharko dira, edota horien hornidura genetikoak bat etorri beharko du arro horretako populazioenarekin, foru lege honen hiru-garren xedapen iragankorri jarraikiz.

4. Arrantza pribaturako uretan, egiten dira bat etorri foru lege honen 63. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoarekin.

29. artikulua. Espezie autoktonoak haztea.

1. Foru Komunitateko Administrazioak sustatzen ahaliko ditu espezie urtarren hazkuntza, esperimentazioa eta ekoizpena, Nafarroako ingurune naturaleko ur publikoetan askatzeko eta birpopulatzeako, populazio naturalak hobetzeko, ex-situ kontserbatzeko, edo espezie horiek kontserbatzeko beste edozein jarduketara ildotan erabiltzeko.

2. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak zentro iktiogeniko propioak edukiko ditu, aski prestatuak behar diren aleak ekoizteko, aurreko artikuluko birpopulatzeak edo askatzeak gauzatu ahal izateko.

30. artikulua. Ikerketa eta analisisa.

1. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak bultzatuko du hobeki eza-gutu daitezen bai arrain-espezieen populazioak, bai horiek uki ditzaketen giza jarduerak. Halaber, lehentasuna emanen zaio espezie exotiko inbadi-

tzailleek ekosistema urtarren gainean eragin ditzaizketen ondorioak analizatzeari.

2. Helburu horiek lortzeko, bilatuko da ibai-ingurunearen kudeaketan esku hartzen duten entitate guztien lankidetzaz.

31. artikulua. Espezie exotiko inbaditzaileen kontrola.

1. Kontrolatzeko eta, ahal dela, desagerrarazteko helburuz, zaintza-akordioen, lankidetzak-akordioen edo ezartzen diren beste mekanismo batzuen barnean, jarduketak egiten ahalko dira espezie exotiko inbaditzaileak edo izan daitezkeenak kontrolatzeko.

2. Jarduketa horiek aurrera eramatean, erabiltzen ahalko dira orokorrean baimendurik ez dauden bitartekoak eta/edo tresnak, baldin eta horien erabilera justifikaturik badago eta ez baditu arriskuan jartzen espezie autoktonoak.

32. artikulua. Genetikoki eraldatutako arrainak.

Arrain autoktonoen aberastasun genetikoa hibridazio arriskutik babesteko, debeku da haztea eta edukitzea genetikoki eraldatutako edozein arrain bizi, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztian, baldin eta bizigai bada ingurune naturalean eta kutsadura genetikoko arazoak sor ditzake arrain autoktonoen populazioetan.

33. artikulua. Arrain-faunaren jarraipena eta kontrola.

1. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak jarraipen-sare bat sortu eta mantenduko du Nafarroan diren arrain-espezieen jarraipenerako, eta behar diren baliabideak esleituko ditu funtziona ditzan.

2. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak aldian-aldian egingen du arrantza-populazioen jarraipena. Eskuratzen diren datuen arabera ezarriko dira debekualdiak, kupak eta populazioen aprobeixamendu jasangarria bermatzeko behar diren mugak.

3. Populazioen aprobeixamendu jasangarrirako irizpideak oinarri hartuko dute haien egoeraren aldizkako kontrol jarraitua.

34. artikulua. Arrain-faunaren egoera sanitarioa.

1. Foru Komunitateko Administrazioari dagokio Nafarroako uretako arrain-baliabideen egoera sanitario egokia zaintzea.

2. Animalien osasunaren arloko eskumena duen departamentuak kontrol eta zainketa sanitarioko programak abiatuko ditu akuikulturako ekoizpen-instalazioen gainean, bai eta Nafarroako Foru

Komunitateko arrantza-baliabideen egoera sanitario egokia arriskuan jar dezaketzen gainerako jardueren gainean ere.

3. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak kontrol eta zainketa sanitarioko programa bat abiatuko du arrain-populazioen gainean.

4. Kontrol eta zainketa sanitarioko programen ondorioz, arriskurik atzematen bada, aldi baterako debekatzen ahalko da, osorik edo zati batean, arrantzatzen ahal diren espezie jakin batzuen aprobeixamendua, foru lege honetan xedatutakoarekin bat.

II. KAPITULUA

Arrain-espezieen habitata kontserbatzeko programa

35. artikulua. Arrain-espezieen habitata hobetzea.

1. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak arrain-espezieen habitata hobetzea sustatuko du, ekosistema urtarrek kontserbatzeko helburu globalarekin bateraturik eta integraturik, eta gainerako administrazio eskudunekin koordinaturik.

2. Bereziki, helburu hauek dituzten neurriak bultzatuko ditu: habitatak babestea, ur-bazterreko landaredia babestea eta hobetzea, eta ur-masen konektagarritasuna hobetzea.

36. artikulua. Arrain-espezieen habitatak kontserbatzea.

Arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak, zehazten ahalko ditu arrain-habitata babesteko tarteak, arrain-espezieen habitatak dauzkaten ur-masen tarteetan, habitat horiek interes berezikoak badira arrain-faunaren bizi-zikloaren faseren bat garatzeko, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko ditu.

Tarte horiek jasoko dira arrantza antolatzeke plan zuzentzaileetan edo arrain-espezieak kudeatzeko planetan, eta haietan zehaztuko dira haien kokapenak, datak eta muga espezifikokoak, bat etorri-rik, kasua bada, dagozkien kontserbazio neurriekin, eragozteko Natura 2000 Sareko guneeetan degradatu daitezkeen arrain-espezie naturalen habitatak nahiz beste espezie batzuen habitatak, bai eta beste aldaketa batzuk ere, eragina dutenak eremu horiek izendatzea ekarri duten espezieengan.

37. artikulua. Ur-bazterreko landaredia kontserbatzea eta hobetzea.

Arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak sustatuko du ur-bazterreko lan-

darediz osaturiko zerrenda bat leheneratzea, behar den zabaleran, arrain-espezieei baldintza egokiak bermatzeko moduan.

38. artikulua. Konektagarritasuna hobetzea.

1. Ur-masen iragangarritasuna hobetzeko, kendu egingen dira egun erabiltzen ez diren oztopo artifizialak. Kendu ezin diren besteetan, pasatzeko gailuak jarriko dira, iragangarriak izan daitezen arrain-faunarentzat.

2. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak ibai-oztopoak iragangarri egiteko plan zuzentzaile bat garatuko du, ibaietako konektagarritasuna hobetzeko arrain autoktoen espezieen mugimenduentzat.

3. Ibai-oztopoak iragangarri egiteko plan zuzentzaileak atal hauek izan beharko ditu, guxtienez:

- a) Jarduketa eremua
- b) Oztopoek hasierako egoeran dituzten ezau-garriak
- c) Iragangarri egiteko jarduketaren definizioa eta lehentasuna
- d) Egin beharreko jarduketaren ingurumen arloko balorazioa
- e) Ikerketa eta jarraipena
- f) Zabalkundea eta dibulgazioa

4. Bat etorri ibai-oztopoak iragangarri egiteko plan zuzentzailean ezarritakoarekin, aprobetxamendu hidraulikoen titulartasuna edo emakida dutenek eraiki beharko dituzte, eta funtzionamendu-egoera onean mantendu, mailadiak, faunaren pasabideak, saretazko uhateak, edo deribazio kanaletako uren sarreran eta irteeran den beste edozein gailu.

5. Ibai-oztopoak iragangarri egiteko plan zuzentzaileak onetsiko du arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak.

III. KAPITULUA

Arrantza-jarduera sustatzea eta ibai-habitata hobetzea

39. artikulua. Arrantza-jarduera sustatzeko neurriak.

Laguntza ekonomikoak ezartzen ahalko dira xede hauetarako:

- a) Arrantza-jarduera zaintzea eta kudeatzea.
- b) Arrantza kudeatzeko plan teknikoetan eta espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoetan hartutako neurrien garapena.

c) Espezie exotiko inbaditzaileen kontrolerako neurriak.

d) Ibai-oztopoak iragangarri egiteko plan zuzentzailean ezarritakoa garatzeko neurriak.

e) Ibai-ingurunea hobetzeko eta leheneratzeko neurriak.

IV. TITULUA

Arrantzaren plangintza eta antolamendua

I. KAPITULUA

Uren zonifikazioa eta sailkapena

Lehendabiziko atala Xedapen orokorrak

40. artikulua. Uren zonifikazioa, arrantzaren ondorioetarako.

1. Arrantzari dagokionez eta espezieen banaketaren arabera, Nafarroako ur-masak honela zonifikatzen dira:

a) Salmonidoen eremua: hura osatzen dute salmonidoak egonkortasunez bizi diren ur-masa guztiek. Era berean, honela banatuko da: salmonidoen goiko eremua, salmonidoen eremu mistoa eta izokin-tartea.

b) Ziprinidoen eremua: hura osatzen dute ziprinido-espezieen komunitate bat nagusi den gainetarako ur-masek.

2. Nafarroako ur-masetako salmonidoen eta ziprinidoen eremuen mugak, arrantzaren ondorioetarako, zehaztuko dira arrantza antolatzekeko plan zuzentzaileetan (plan horiek foru lege honen 58. artikuluan xedatzen dira).

41. artikulua. Uren sailkapena, arrantza-aprobetxamenduaren ondorioetarako.

Foru lege honen ondorioetarako, arrantzarako ur-masak kudeatzeko eta aprobetxatzeko dauden modalitateen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko urak honela sailkatu daude:

- a) Arrantzarako urak.
- b) Arrantzarako ez diren urak.

42. artikulua. Uren seinaleztapena, arrantzaren ondorioetarako.

Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak erabakiko ditu uren seinaleztapenaren ezaugarriak.

Bigarren atala **Arrantzarako urak**

43. artikulua. Arrantzarako urak.

Foru lege honen eta berau garatzeko xedepenen ondorioetarako, honako hauek izanen dira arrantzarako urak:

- a) Arrantzarako ur libreak.
- b) Araubide bereziko urak.
- c) Arrantza pribaturako urak.

44. artikulua. Arrantzarako ur libreak.

1. Arrantzarako ur libreak dira jabari publikoko arrantzarako urak, deklarazio espliziturik behar ez dutenak eta araubide bereziko ur gisa edo arrantza pribaturako ur gisa sailkaturik ez daudenak.

2. Arrantzarako ur libreetan harrapatu eta askatzeko modalitatea baizik ez dago baimendurik, arrantzatzen ahal diren espezie autoktono guztietarako.

3. Arrantza libreko uretarako aprobetxamendu-araubidea arautuko da foru lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako xedapenen arabera.

45. artikulua. Araubide bereziko urak.

1. Araubide bereziko urak dira jabari publikoko arrantzarako urak, non arrantza egin behar baita eremu horietan ezarritako mugekin, edo horietarako plan teknikoan jasotakoari jarraikiz, foru lege honen arabera halakoa behar dutenen kasuan.

2. Araubide bereziko urak honela sailkatzen dira:

- a) Erreserba genetikoak.
- b) Harrapatu eta eramateko arrantzako urak.
- c) Arrantza intentsiboko urak.
- d) Arrantza-barrutiak.
- e) Arrantzarako gunek.
- f) Arrantza-prestakuntzarako urak.
- g) Espezie exotikoen kontrolerako urak.

3. Araubide bereziko ur-masa bat egoten ahal da mota batean edo gehiagotan sailkaturik. Halakoetan, plan tekniko bakarrik arautuko ditu masa guztiaren kudeaketa eta aprobetxamendurako neurriak.

46. artikulua. Erreserba genetikoak.

1. Erreserba genetikoak ur-masa jakin batzuk dira, non mantentzen baitira genetikoki puruak diren populazioak, beharrezkoa denean populazio

horiek babestea, potentzial genetikoa eta biodibertsitatea ukigabe mantentzeko.

2. Erreserba genetikoetan harrapatu eta askatzeko arrantza baimentzen ahalko da, baldin eta arrantza kudeatzeko plan teknikoak bermatzen badu populazioa bere kasa mantenduko dela. Betiere, haietatik baztertuko da haien jasangarritasuna edo ezaugarri genetikoak arriskuan jar dezakeen jarduketa oro.

3. Ibai-tarte edo ur-masa bat erreserba genetikoki deklaratzeko, oinarri hartu beharko da txosten tekniko bat, populazioaren ezaugarri genetikoak ezarriko dituen eta haren izaera naturala segurtatuko duena.

4. Erreserba genetikoen kokapena eta mugak jasoko dira dagozkien arrantza antolatze plan zuzentzaileetan.

47. artikulua. Harrapatu eta eramateko arrantzako urak.

1. Harrapatu eta eramateko arrantzako urak dira tarte eta ur-masa jakin batzuk, non harrapatutako arrainak eramaten ahalko baitira harrapatutakoan, baldin eta arrainek eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

2. Harrapatu eta eramateko arrantzako urak izanen dira ibilgu nagusietako arrantzarako luzera guztiaren % 20 gehienez, arrantza-arro bakoitzaren barnean, eta barruti gisa deklaritzen ahalko dira edo ez.

3. Arrantza antolatze plan zuzentzaileek ezarriko dituzte ur horiek beren aplikazio-eremuan, eta debekualdiei buruzko xedapen orokorrean zehaztuko dira haien kokapena eta mugak arroko ur-masetan.

48. artikulua. Arrantza intentsiboko urak.

1. Arrantza intentsiboko urak dira aldi-aldi modu artifizialean indartzen diren tarte eta ur-masak, arrantzatzen ahal diren espezieak askaturik, gizartean dagoen arrantza-eskariari erantzuteko. Arrantza intentsiborako barruti gisa ezartzen ahalko dira, harrapatu eta eramateko arrantzako eta/edo harrapatu eta askatzeko modalitateetan.

2. Salmonidoen eremuan, arrantza intentsiboko urak ezartzen ahalko dira salmonidoentzako potentzial gutxikotzat deklaraturiko tarte eta ur-masetan bakarrik, kasuan kasuko arrantza antolatze plan zuzentzailearen arabera.

3. Ziprinidoen eremuan, arrantza intentsiboko urak ezarriko dira kasuan kasuko arrantza antola-

tzeko plan zuzentzaileko jarraibideekin bat datozen tarte eta ur-masetan.

4. Tarteak eta ur-masak arrantza intentsiboko ur gisa deklaratzeko egonen da ingurune ingurumen-balioen kontserbazioarekin bateragarri izatearen mende, eta arrantza antolatzekeko plan zuzentzailean zehaztuko dira.

49. artikulua. Arrantza-barrutiak.

1. Arrantza-barrutiak dira arrantzaren kudeaketa espezifiko bat duten tarte eta ur-masa jakin batzuk; kudeaketa hori irabazi-asmorik gabeko entitate edo administrazioek egiten dute, eta barruti horietan arauturik daude arrantzaren intentsitatea, harrapatzen den bolumena, eta arrantzari kopurua, arrain-baliabideen aprobetxamendu antolatu eta jasagarria egiteko.

2. Arrantza-barrutiak ezartzen ahalko dira, osorik edo zati batean, harrapatu eta eramateko arrantzaren araubidean. Erauzketa-arrantzako araubidean dauden arrantza-barrutien guztizko arrantza-luzera erauzketa-arrantzako tarte mugatu gabeei gehituko zaie, eta gehienez ere ibilgu nagusien guztizko luzera arrantzagariaren % 20 izanen da, arrantza-arro bakoitzean. Arrantza-barrutiak eratu eta antolatzeke, bai eta haien funtzionamendurako ere, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiko zaio.

3. Arrantza-barrutietan desgaitasuna duten pertsonentzat antolatzen diren jardueretan, ez da beharrezkoa izanen arrantza-lizentzia edukitzea.

4. Arrantza-barruti publikoak adjudikatzeke irizpideen artean sartuko dira, haiek baloratzeko, desgaitasuna dutenen aldeko ekintza positiboko neurriak eta emakumeek arrantzan gehiago parte hartzeke sustapen neurriak.

5. Haien aprobetxamenduaren arabera, arrantza-barrutiak izan daitezke:

a) Arrantza naturaleko barrutiak: barruti horietan, populazio naturalak arrantzaten dira.

b) Arrantza intentsiboko barrutiak: barruti horietan, aldian-aldian aleak askatzen dira berehala harrapa daitezkeen, gizartean dagoen arrantza-eskari handiari erantzuteke.

6. Arrantza-barrutiek izan beharko dute dagoen arrantza kudeatzeko plan teknikoa.

50. artikulua. Arrantzarako guneak.

1. Arrantzarako guneak dira ur-masa jakin batzuk, behar bezala egokitu direnak arrantzarien beharretara, aisialdiko arrantzan zuzentasunez aritu daitezkeen, eta haien helburua da kirol horren jarduna antolatzea zerbitzu hori eskatzen

dutenez, arrantzarentzako baldintzak erraztea eta balio ekologiko handiagoko beste toki batzuen degradazioa saihestea.

2. Arrantzarako gune horiek aldi batez okupatzen ahalko dituzte Nafarroako Arrantza Federazioak sustatu edo babestutako arrantza-lehiaketek. Era berean, egiten ahalko dira arrantza-artearen erakustaldiak, arrantzako kirol-lehiaketak eta arrantza sustatu edo erakusteko jarduerak. Entitate, sozietate edo elkarte interesdunek sustatzen ahalko dituzte halakoak. Nafarroako Arrantza Federazioak lehentasuna izanen du egunak erreserbatzeko arrantzarako guneetan.

3. Arrantzarako guneen ezaugarrien arabera, aisialdiko arrantzarako guneak edo kirol-arrantzarako guneak izanen dira. Kirol-arrantzarako gune gisa definitu arren, aisialdiko arrantzarako erabiltzen ahalko dira, gune horiek lehiaketetarako erabiltzen ez direnean.

4. Arrantzarako guneetan antolatzen diren arrantza sustatzeko edo erakusteko jardueretan, arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak baimendurik betiere, ez da beharrezkoa izanen arrantza-lizentzia edukitzea.

5. Arrantzarako guneek izan beharko dute dagoen arrantza kudeatzeko plan teknikoa.

51. artikulua. Arrantza-prestakuntzarako urak.

1. Arrantza-prestakuntzarako urak dira tarte eta ur-masa jakin batzuk, bereziki erabiltzen direnak arrantzaren jarduna ikasi eta hobetzeko, eta jarduera horren balioak zabaltzeko.

2. Arrantza-prestakuntzarako urak ezarriko dira arrantza antolatzekeko plan zuzentzaileetan edo debekualdiei buruzko xedapen orokorrean.

3. Arrantza-prestakuntzarako uren erabilera eskatzen ahalko dute lehen apartatuan adierazitako prestakuntza-jarduerak egiteko interesa duten entitateek, eta arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak emanen du horretarako baimena.

4. Tarte horietan, antolatutako jardueren barnean, arrantza egiteko, ez da beharrezkoa izanen arrantza-lizentzia edukitzea.

52. artikulua. Espezie exotikoen kontrolerako urak.

1. Espezie exotikoen kontrolerako urak dira tarte edo ur-masa jakin batzuk, halakotzat esleitu direnak arrantzaren bidez eta beste tresna batzuen bidez kontrolatzeko eta, ahal dela, desagerarazteko populazio jakin batzuk. Populazio horiek izan daitezke espezie exotiko inbadi-

tzailleenak edo inbaditzaile izan daitekeen espezie exotikoenak (espezie batekoak edo gehiagokoak).

2. Espezie exotikoen kontrolerako uren sorrera justifikatuko da populazio naturalentzako arriskuegatik, ikerketagatik, kontzientziazio-lanengatik edo kontrol-neurriak aztertzeke lanengatik.

3. Espezie exotikoen kontrolerako urek izan beharko dute dagokien espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoak.

4. Ez bada onetsi espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoak, lan puntualak egiten ahalko dira, edo urtebete baino gutxiagoko aldirako lanak, betiere arrantza kudeaketaren arloan eskumenak dituen zerbitzuko arduradunaren baimenarekin.

53. artikulua. Arrantza pribaturako urak.

1. Arrantza pribaturako urak dira urei buruzko araudian hala ezarrita daudenak, bai eta, titulartasun publikokoak izanik ere, legezko titulu egokien bidez arrantza pribatua dutenak ere. Ur horietan, arrantza-eskubidea titulartasun pribatukoa da, eta bere araudi propioa du, foru lege honetan eta debekualdiei buruzko xedapen orokorrean ezarri bezala.

2. Administrazio-egintza bakarrean gauzatuko dira arrantza-barruti pribatuaren eraketa eta dagokion arrantza kudeatzeko plan teknikoaren onepena.

3. Arrantza pribatuko ur-masak behar bezala seinaleztatuko dira beren sarbide natural guztietan.

4. Ur horietan arrantza egiteko, titularraren baimena beharko da, behar den lizentziaz gain.

Hirugarren atala **Arrantzarako ez diren urak**

54. artikulua. Arrantzarako ez diren urak.

Foru lege honen eta berau garatzeko xedapenen ondorioetarako, arrantza-debekuguneak izanen dira arrantzarako ez diren urak.

55. artikulua. Arrantza-debekuguneak.

1. Arrantza-debekuguneak dira tarte edo ur-masa jakin batzuk, non arrantza aldi baterako edo behin betiko debekaturik baitago, antolamenduari eta kudeaketari lotutako arrazoiengatik.

2. Foru lege honen ondorioetarako, izanen dira:

a) Debekugune iraunkorrak: arrantza behin betiko debekaturik dutenak, espezie, subespezie, arraza, barietate genetiko edo ekosistema urtar

jakin batzuen kontserbazioa segurtatzeko, arrantza egitea horrekin bateraezina baldin bada.

b) Aldi baterako debekuguneak: arrantza aldi baterako debekaturik dutenak, debekua deklaratzeko balio eta inguruabarrek iraun bitartean.

3. Debekugune iraunkorrak ezarriko dira arrantza antolatzeko plan zuzentzaileetan, eta aldi baterako debekuguneak, bestalde, debekualdiei buruzko xedapen orokorrean.

II. KAPITULUA **Arrantzaren antolamendua**

56. artikulua. Plangintza.

1. Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak planifikatuko ditu arrantza-baliabideen kudeaketa eta aprobetxamendua, haien jasangarritasuna segurtatzeko, bat etorrita hala foru lege honetan nola natura-ondarearen eta biodibertsitatearen kontserbazioari buruzko eta espezie exotiko inbaditzaileen kontrolari buruzko araudian jasotzen diren printzipioekin.

2. Arrantza-baliabideen plangintzak oinarri hartu beharko du populazioen ezagutza zientifikoa, bai eta haiekin elkarreragina izaten dituzten gainerako faktoreena ere, hidrobiologikoak, ekologikoak, sozialak edo beste edozein motatakoak izanik ere.

57. artikulua. Arrantza antolatzeko eta kudeatzeko tresnak.

1. Arrantza-baliabideen jasangarritasuna bermatzeko, haien aprobetxamendua arautuko da honako antolamendu-tresna hauen bidez:

a) Arrantza antolatzeko plan zuzentzaileak.

b) Arrain-espezieak kudeatzeko planak.

c) Arrantza kudeatzeko plan teknikoak eta espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoak.

d) Arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak.

2. Arrantza antolatzeko plan zuzentzaileak eta arrain-espezieak kudeatzeko planak berrikusiko dira 12 urteko epean, eta aurrekoak indarrean iraunen du plan berria onesten den arte. Hala ere, berrikusten ahalko dira indarrean jarri ondoren, edonoz, komenigarria bada klima-aldaketaren inguruabarretan gertatzen diren aldaketengatik, edo egoerak hala eskatzen duen guztietan.

3. Arrantza kudeatzeko plan teknikoek bost urteko indarraldia izanen dute. Hala ere, berrikusi egingen dira egoerak hala eskatzen duen guztietan.

58. artikulua. Arrantza antolatzeke plan zuzentzaileak.

1. Arrantza antolatzeke plan zuzentzaileak eginen dira Nafarroako Foru Komunitateko uretako baliabideak antolatzeke. Ondoko xedeak izanen dituzte: beren aplikazio-esparrua definitzea, espezieen aprobetxamendu jasangarria bermatzea, neurri egokiak ezartzea aprobetxamendua inguru-nearen ekoizpen ahalmenari egokitzeko, eta arrantzaren gozamina gizarte osoaren eskura jarzea.

2. Arrantza antolatzeke plan zuzentzaileek honako hauek ezarriko dituzte, gutxienez:

a) Planaren eremuko ur-masen mugak.

b) Arrantza baliabideen jarraipenari, kontrolari eta aprobetxamendu iraunkorrari buruzko gidale-roak eta arau orokorrak.

3. Arrantza antolatzeke plan zuzentzaileak onetsiko dira foru dekretu bidez, arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuko titularraren proposamenez.

59. artikulua. Arrain-espezieak kudeatzeko planak.

1. Arrain-espezieak kudeatzeko planen bidez zabaldu egiten dira arrain-espezie jakin batzuen jarraipena eta kontrola egiteko mekanismoak, espezie horiek berezko kudeaketa-planik behar badute haien egoera edo haien gaineko lege-eskakizunak direla eta.

2. Arrain-espezieak kudeatzeko planek honako hauek xedatuko dituzte, gutxienez:

a) Espeziearen edo espezieen banaketa-eremua osatzen duten ur-masen mugak ezarriko dira.

b) Populazioen hasierako egoera zehaztuko da.

c) Ur-masa bakoitzaren harrera ahalmena eta ekoizpen ahalmena zehaztuko dira, posible bada.

d) Espeziearen edo espezie multzoaren arabera, jarraibide espezifikoa eta neurri egokiak ezarriko dira kontserbatzeke, jarraipena egiteko, kontrolatzeko, jasangarritasunez aprobetxatzeko eta, beharrezkoa bada, desagerrarazteke.

e) Jarraipen programak zehaztuko dira.

3. Arrain espezieak kudeatzeko planak onetsiko dira arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularraren ebazpen baten bidez.

60. artikulua. Arrantza kudeatzeko plan teknikoak eta espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoak.

1. Arrantza kudeatzeko plan teknikoen xedea da baldintza partikularrak ezartzea arrantza-barruti gisa (publikoak eta pribatuak) eta arrantzarako gune gisa sailkatutako ur-masen kudeaketa eta aprobetxamendurako.

2. Espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoen helburua da neurriak eta ekintzak ezartzea kudeatzeko, kontrolatzeko eta, kasua bada, desagerrarazteke espezie exotiko inbaditzaileen edo inbaditzaileak izan daitezkeen populazioak.

3. Plan horiek honako atal hauek izanen dituzte, gutxienez:

a) Araubide bereziko ur-masaren deskribapena, haren mugak, sarbideak eta aparkalekuak, behar izanez gero.

b) Uraren eta bertako biozenosiaren ezaugarriak.

c) Ur-masa bat baino gehiago badago, bakoitzaren sailkapena, uren kudeaketa eta aprobetxamendu moten arabera.

d) Ur-masa seinaleztatzeko plana, erabiliko diren seinale motak eta horien esanahia.

e) Harrapatzen ahal diren espezieak, gehieneko ale kopuruak, harrapaketa kupoak eta harrapatutakoen legezko neurriak.

f) Arrantzarako aldi, egun eta ordu baliodunak.

g) Gehieneko arrantzari-kopurua arrantza-egun baliodun bakoitzeko.

4. Arrantza kudeatzeko plan teknikoak eta espezie exotikoak kudeatzeko plan teknikoak onetsiko dira arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularraren ebazpen baten bidez.

61. artikulua. Arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak.

1. Arrantzaren aprobetxamendua antolatzeke, arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak onetsiko ditu arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak, aprobetxatzen ahalko diren espezieak jasota, eta aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

2. Arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorretan berariaz aipatuko dira arrantzarako eremu, sasoi, egun eta aldi baliodunak, espeziearen edo modalitatearen arabera, eta aprobetxatzen ahal diren espezieak babesteko muga oroko-

rrak, bai eta haiek kontrolatzeko prebentzio neurriak ere.

3. Arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorren indarraldia 5 urtekoa izanen da gehienez.

III. KAPITULUA Arrantza-barrutiak

62. artikulua. Arrantza-barruti publikoak.

Arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak deklaratu ditu arrantza-barruti publikoak, ofizioz edo beste entitate publiko edo pribatu batzuek eskatuta. Entitate horiek justifikatu beharko dituzte barrutiaren komenigarritasuna eta lortu nahi diren helburuak.

63. artikulua. Arrantza-barruti pribatuak.

1. Ur pribatuen edo arrantza-eskubide pribatuen titularrek hala eskatuta, arrantza-barruti pribatuak sortzeko baimena ematen ahalko da.

2. Barruti pribatua sortu baino lehen, arrantza kudeatzeko plan teknikoa egin beharko du titularrak, eta aurkeztu beharko dio arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuari, hark onetsi dezan. Eskuratu beharko ditu, gainera, eskatzen diren beste baimenak.

3. Arrantza kudeatzeko plan teknikoak honako agiri hauek izanen ditu, foru lege honen 60. artikuluko 3. apartatuan adierazitakoez gain:

a) Uren jabetza-titulua edo ur horietako arrantzaren jabetza pribaturako eskubidea frogatzen duen titulua.

b) Birpopulatzeen plana, halakoak aurreikusirik badaude.

c) Zaintza plana.

4. Barruti pribatua sortzeko eskaera sei hilabete epean ebatziko da gehienez, arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularraren ebazpen baten bidez. Onetspen baldintzatua ematen ahalko da, eta, hala, eskatzaileak espresuki adierazi beharko du ados dagoela ebazpen espedientean proposaturiko aldaketa zehatzekin. Kasu horretan, plana osoki onetsitatzat joko da, eratzeko ebazpenean xedatutako aldaketak eginik.

5. Urtero, aprobetxamenduaren titularrak kudeaketa-memoria bat aurkeztu beharko du, arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak onetsi dezan. Memorian jasoko dira urteko jarduera eta baimenen eta harrapaketen estatistika-datuak, eta hurrengo urterako aprobetxamendu-plan bat, arrantza kudeatzeko plan teknikoan onetsitakoan oinarritua.

6. Arrantza-barruti pribatuak indarrean egonen dira indarrean dagoen arrantza kudeatzeko plan tekniko bat duten bitartean.

7. Birpopulatzeak eta askatzeak aprobetxamenduaren titularraren kargura izanen dira arrantza-barruti pribatuetan. Birpopulatzeak, foru lege honen arabera autoktonotzat hartzen diren espezieak baizik ez dira erabiltzen ahalko, eta betiere betez Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duen abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan xedaturikoa. Birpopulatzeak ailek etorri beharko dute baimendutako ustiategi edo eremuetatik, eta indarreko lege-eskakizunak bete.

64. artikulua. Arrantza-barrutietako aprobetxamenduen titularraren betebeharrak.

Arrantza-barrutietako aprobetxamenduen titularrak honako betebeharrak izanen dituzte:

a) Arrantzarako faunaren babesari buruzko araudia betetzen laguntzea.

b) Arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuari ematea hark eskatutako estatistika-datuak.

c) Barrutian egiten diren jardueren antolaketaz eta horiek behar bezala gauzatzeaz erantzutea.

d) Barrutia behar bezala garbitzea eta seinaleztatzea.

e) Legedian ezarrita dauden edo ezartzen diren tasak ordaintzea.

f) Barrutian arrantza babesteko zaintza egokia jartzea, arrantza kudeatzeko plan teknikoari jarraituz.

g) Men egitea barrutiaren kudeaketari buruz arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak egiten dituen ikuskapen eta kontrolei.

65. artikulua. Kontrol neurriak.

Arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak, aurretik interesdunari entzunaldia emanda, honako hauek egiten ahalko ditu:

a) Barrutiaren zati batean arrantza debekatzea, edo espezie jakin baten aprobetxamendua debekatzea, edo arrantza garaia murriztea, basafauna babesteko baldintza bereziak direla-eta beharrezkotzat jotzen bada.

b) Epizootiak edo pertsoneri, etxeko abereei nahiz basa animaliei kutsatu ahal zaizkien gaitzak dauden tokietan arrantza jarduerak debekatzea.

V. TITULUA Zehapen-araubidea

I. KAPITULUA Arau-hausteak

66. artikulua. Arau-hausteak.

Administrazioko arau-hausteak izanen dira foru lege honetan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoaren kontrako egiteak eta ez-egiteak.

67. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

1. Arau-hausteak izan daitezke oso astunak, astunak eta arinak.

2. Hona hemen arau-hauste oso astunak:

a) Arrantza egitean, baimenik gabe erabiltzea foru lege honen 21. artikuluko 1. apartatuko a, b, c eta d letretako bitarteko eta prozedura debekatuak.

b) Ur-masetan askatzeak edo birpopulatzeak egitea, edozein espezie urtarretako aleekin.

c) Espezie exotiko inbaditzaile biziak edukitzea, arrantza-tartetik kanpo.

d) Arrantzatzen ahal diren espezieetako aleak merkaturatzea, horiek merkaturagarritzat deklaratu ez badira edo merkaturatzea debekatu bada.

e) Espezie babestuak eduki, garraiatu edo merkaturatzea, horretarako behar den baimena izan gabe.

3. Hona hemen arau-hauste astunak:

a) Ibaiaren inguruetan sare edo tramankulu debekatuak edukitzea, horretarako administrazio-baimenik izan gabe eta tresna horiek beste xede baterako direla behar bezala frogatzeko modurik izan gabe.

b) Arrantzatzen ezin diren arrain-espezieak edukitzea edo garraiatzea, horretarako behar den baimena izan gabe.

c) Arrain-espezieen merkataritza.

d) Berehala ez itzultzea harrapatu eta eramateko arrantza baimendurik ez daukan ale oro.

e) Arrantzan aritzea horretarako desgaiakuntza ezarria izanik.

f) Arrantzan aritzea izan gabe arrantza-lizentziaren, arrantza-baimenaren edo barrutirako edo espezie exotikoen kontrolerako uretarako pasearen titularra.

g) Arrantzan aritzea distantziak gorde gabe arrantzariarengandik eta haren beitatik presen oinaldera eta arraintzako mailadi eta pasabideen artea eta sarrerara.

h) Arrantzan aritzea debekualdian.

i) Uretara ez itzultzea arauzko neurrietara iristen ez diren arrainak, edo halakoak edukitzea.

j) Arrantzaren inguruko eginkizunetan ari direlarik, agintaritzea-agenteen ikuskapenari eta zaintza-lanari oztopo egitea, jarkitzea edo desobedietzea.

k) Ez jartzea edo egoera onean ez mantentzea ubide, erreten eta deribazio ibilguetako saretak, arrain-aberastasuna babestekoak.

l) Administrazioaren aginduz emakidadunek egindako obrak kontserbazio egoera onean ez mantentzea, obra horiek interes hidraulikoak eta arrantzaleen interesak uztartzeko helburuarekin eginak direnean.

m) Arrantzan aritzea arraintzako mailadi edo pasabideetan.

n) Suzko armekin edo aire konprimatuko armekin arrantzatzea, edo urpeko arrantzarako bitartekoekin.

ñ) Barrutietako ur-masen edo debekuguneen seinaleak bota, hondatu edo lekuz aldatzea, bai eta arrantza kudeaketaren arloko eskumena duen departamentuak jarritako beste seinale batzuk ere.

o) Urpeko arrantzan aritzea edo modalitate horretarako bitartekoak arrantzarako erabiltzea.

p) Arrantzan aritzea debekuguneetan edo arrantza espresuki debekaturik dagoen tokietan.

q) Arrantzarako erabiltzea foru lege honetan debekatutako bitartekoak, horretarako behar den baimena izan gabe, arau-hauste hori astunagotzat jotzen ez den kasuetan.

r) Eskuz arrantzatzea.

s) Espezie autoktonoak lekuz aldatzea ur-masa batzuetatik besteetara.

t) Espezie exotiko inbaditzaileak ez hiltzea, halakoak hiltzea nahitaezkoa denean foru lege honetan ezarritakoaren arabera.

u) Beitatarako erabiltzea espezie exotiko inbaditzaileak edo horien zatiak.

v) Ez jartzea arraintzako pasabideak, edo saretazko uhateak edo beste edozein gailu deribazio kanaletako uren sarrera eta irteeretan, fauna urtarrak kanal horietan sartzea eragozteko, edo ez edukitzea beren funtzioa betetzeko moduko mantentze-egoera onean, ibai-oztopoak iragangarri egiteko plan zuzentzailearen arabera.

4. Hona hemen arau-hauste arinak:

a) Arrantzan aritzea 13 urteak beteak izan gabe eta arrantza-lizentziaren titularra den adin nagusiko arrantzari batek lagundu gabe, bestearren arrantza kontrolatzeko eta hartaz arduratzeko.

b) Arrantzan aritzea aldean eraman gabe arauzko agiriak, nahiz eta agiri horien jabe izan.

c) Arrantzan aritzea kanabera gehiago erabiliz aldi berean baimendurik daudenak baino.

d) Arrantzan aritzea traba eginez arrantza egiteko eskubide legitimoa lehendik erabiltzen ari den beste arrantzari bati, gorde gabe arrantzarien arteko 25 metroko gutxieneko distantzia.

e) Izokinaren arrantzan, 20 minutu baino gehiago irautea postua utzi gabe beste arrantzari bati, azken horrek hala eskatu dionean, baldin eta epe horretan ez badauka alerik helduta.

f) Urratzea arrantza-debekualdiei buruzko xedapen orokorrak edo arrantzarako antolamendu-tresnak, salbu eta foru lege honetan halako arau-haustea astunagotzat jotzen badira.

g) Beitatarako arrain biziak erabiltzea edo urak beitatzea arrantza egiteko, horretarako baimenik ez dagoen toki edo modalitateetan.

h) Salmonidoen eremuan, arrantzan egitea erabiliz gazta, gantz solidoak, haragi-oreak, arrabak edo "haragi-harra" edo "asticot" izenekoa.

i) Edukitzea edo merkaturatzea arrantzarako bitarteko debekatuak, horretarako baimenik izan gabe.

j) Ez betetzea arrantza-barrutietako aprobe-txamenduen titularrei 66. artikuluan ezarritako betebeharrak, salbu eta arau-haustea astunagotzat tipifikaturik ez badaude.

k) Foru lege honetan edo berau garatzeko arauetan ezarritakoaren kontrako edozein arau-hauste, astunagotzat kalifikaturik ez badago.

68. artikulua. Erantzukizuna arau-haustea egitean.

1. Titulu honetan araututako arau-hauste administratiboen oinarri diren egintzengatiko zehapena jasotzen ahal dute, doloa edo errua dela eta, haien erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoek, foru lege honetan eta bere garapenerako arauetan ezarritakoarekin bat, deusetan galarazi gabe erantzukizun zibilak eta zigor eta ingurumen arloetakoak, bidezkoak direnean.

Zehazterik ez dagoenean arau-haustea batera egin duten pertsonetako bakoitzak zenbateraino parte hartu duen, erantzukizun solidarioa egotziko zaie, ezertan ukatu gabe erantzukizuna beren

gain hartu dutenen eskubidea gainerako parte-hartzaileei berreskatzeko.

Erantzukizun bera aplikatuko da arrantza-piezen garraioan, baldin eta ez bada betetzen foru honen 24. artikuluan horri buruz xedaturikoa, arrantza-piezak garraiatzen, erosten eta saltzen dituztenei dagokienez.

2. Guraso-ahalaren edo zaintzaren titularrak izanen dira erantzule ardurapean dituzten adingabeek edo desgaitasuna duten pertsonak sortutako kalte-galerengatik, salbu eta adingabea 13 urte bete gabekoa bada eta adin nagusiko batek laguntzen badio, foru lege honen 11.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, orduan azken hori izanen baita erantzulea.

69. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso astunek bost urteren buruan preskribatuko dute, astunek hiru urteren buruan, eta arinek urtebeteren buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio epea hasiko da kontatzen arau-haustea egin den egunetik. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, arau hausteko jokabidea bukatzearekin batera hasiko da epea kontatzen.

3. Preskripzio epea eten egingen da, baldin eta, interesduna jakitun delarik, zehapen-prozedura administratibo bat hasten bada, baina zehapen espedientea hilabetetik gora geldirik egoten bada ustezko arau-hausleari ezin egotzi zaion arrazoirenategatik, preskripzio epeak aurrera jarraituko du.

70. artikulua. Adingabeek egindako arau-haustea.

1. Adingabeei ezarritako isunak guraso-ahalaren titularrek ordainduko dituzte, eta, isunen orde, konfiskatzen ahalko zaie arau-haustea egiteko erabilitako bitartekoa, edo, bestela, ezartzen den ordeko ingurumen prestazioa egin beharko du adingabeak.

2. Adingabea 13 urte bete gabekoa bada, eta adin nagusiko batek laguntzen badio, foru lege honen 11.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, adingabeari laguntzen dio adin nagusikoak ordainduko ditu ezarritako isunak.

71. artikulua. Egoitza Espainiako estatutik kanpo dutenek egindako arau-haustea.

1. Arau-hausleak ez badu frogatzen ohiko egoitza Espainiako estatuan duela, pertsona salatazailak behin-behinean ezartzen ahalko du isunaren zenbatekoa, eta isuna ordaintzen ez bada edo ordainketa bermatzen ez bada Zuzenbidean onartutako bideetako edozein erabiliz, arau-haustea

egiteko erabilitako ibilgailua ibilgetuko du edo arau-haustea egiteko erabilitako tresnak konfiskatuko ditu, kasuan kasukoa.

2. Arau-hausleak isunaren zenbateko osoa ordaindu edo bermatu beharko du. Betiere, zehapen espedientea bukatutakoan, zenbatekoaren murrizketa lortzen ahalko du, bidezkoa bada.

II. KAPITULUA Zehapenak

72. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei berekin ekarriko dute zehapen hauek guztiak edo horietako batzuk ezartzea:

a) Arau-hauste oso astunak direnean:

1.. 3.001 eurotik 30.000 eurora bitarteko isuna.

2.. Lizentzia galtzea eta desgaiakuntza ezartzea hiru urtetik bost urtera bitarte.

b) Arau-hauste astunak direnean:

1.. 301 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

2.. Lizentzia galtzea eta desgaiakuntza ezartzea sei hilabetetik hiru urtera bitarte.

c) Arau-hauste arinak direnean:

1.. 300 eurorainoko isuna.

2.. Lizentzia galtzea eta desgaiakuntza ezartzea hilabetetik sei hilabetera bitarte.

2. Baldin arau-hausleak desgaiakuntza ezarria badu arrantza-lizentzia eskuratzeko, lehenagoko administrazio-ebazpen edo ebazpen judizial irmo baten bidez, zehapen-ebazpen berriaren ondorioz ezarritako desgaiakuntza-epea hasiko da kontatzen legearen arabera pertsona hori berriz lizentzia eskuratzeko moduan dagoen egunetik aurrera.

3. Zehapenen mailaketa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat eginen da.

73. artikulua. Zehapen osagarriak.

1. Zehapen osagarri hauek ezartzen ahalko dira: arau-haustea egiteko erabilitako baliabideak suntsitzea edo kentzea, eta bidegabeki harrapatutako arrantza-piezak kentzea.

2. Baimen jakin baten baldintzak betetzen ez direnean, baimen hori indarrrik gabe uzten ahalko da arau-hauslea zehatzeko.

3. Arau-haustea loturik badaude ur-ibilguetara eginiko isurketekin eta horiek fauna urtarra ukitzen badute, ukitutako arrain-aleengatik ezarritako

zehapenaz gain, ondoren ageri diren zehapenak ezartzen ahalko dira ur-masan ukitutako tartearen arabera.

a) Ur-masaren ibilguaren zabalerak, batez beste, 1,5 metro baino gutxiago badu, 1 euroko isuna ukitutako tartearen metro bakoitzeko.

b) Ur-masaren ibilguaren zabalerak, batez beste, 1,5 eta 10 metro bitarte badu, 5 euroko isuna ukitutako tartearen metro bakoitzeko.

c) Ur-masaren ibilguaren zabalerak, batez beste, 10 metro baino gehiago badu, 10 euroko isuna ukitutako tartearen metro bakoitzeko.

d) Ur-masa itxietan, hala nola baltsa, aintzira, urtegi edo antzekoetan, 5 euroko isuna ur-bazterean ukitutako metro bakoitzeko.

Honen ondorioetarako, ukitutako ur-masaren tartea hau da: heriotzak eragin dituen isurketa edo aldaketa gertatu den puntutik agintaritza-agentearen aburuz behatutako arrain-populazioaren erdia egoera onean dagoen eta hildako alerik atzematen ez den puntura doan tartea.

74. artikulua. Zehapenen murrizketa.

Zehapenak murriztuko dira bat etorritik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 121. artikuluan xedatutakoarekin.

75. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenek bost urteren buruan preskribatuko dute, arau-hauste astunengatik ezarritakoek hiru urteren buruan, eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek urtebeteren buruan.

2. Zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik hasiko da kontatzen zehapenen preskripzio epea.

3. Preskripzio epea eten eginen da, baldin eta, interesduna jakitun delarik, betearazpen prozedura bat hasten bada, baina hura hilabetetik gora geldirik egoten bada arau-hausleari ezin egotzi zaion arrazoiren bategatik, preskripzio epeak aurrera jarraituko du.

4. Zehapena ezartzen duen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri, eta ustezko ezespena gertatzen bada, isunaren preskripzio epea kontatzen hasiko da errekurtsoa ebazteko legez ezarritako epea bukatu eta biharamunetik.

76. artikulua. Tresnak eta arrantzatutako aleak konfiskatzea.

1. Foru lege honetan xedaturiko administrazio-ko arau-hauste orok berekin ekar dezake konfiskatzea hura egiteko erabilitako bitartekoak edo haren ondorioz eskuratutako produktuak edo aleak.

2. Beti konfiskatuko dira arau-haustea egiteko erabilitako tresna eta bitarteko debekatuak, eta horiek gordailutuko dira arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuaren instalazioetan. Tresna eta bitarteko debekatu horiek suntsitu egingen dira, eta arau-hausleak ez du izanen erreklamaziorik egiteko eskubiderik.

3. Arrantza arloko ikuskapen eginkizunak dituztenek egingen dute konfiskazioa, eta hura jasota utziko dute dagokion ikuskapen-aktan.

4. Harrapaketa kupoetan ezarri baino ale gehiago harrapatzen badira, harrapatu diren guztiak konfiskatuko dira.

5. Bizirik dagoen animalia bat konfiskatzen denean, diharduten langileek hura askatu egingen dute ingurune naturalera, baldin eta uste badute bizirik iraun dezakeela eta espezie autoktonoa bada, betiere.

6. Hilik dagoen animalia bat konfiskatzen denean, jaso egingen da, behar den tokian uzteko, hondakinak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera.

77. artikulua. Ingurumen arloko ordezeko zerbitzua.

1. Behin zehapen-prozedura hasita, ustezko erantzulea den pertsonak aukera izanen du, isun gisako zehapenaren ordezkari izan, ingurumen arloko leheneratze, kontserbazio edo hobekuntza prestazio bat eskatzeko, ingurumenari onura ekarriko diona, isuna jartzeko eskumena duen organo eskudunak ezartzen dituen baldintzak eta nondik norakoak betez. Zehapenaren ebazpena jakinarazi ondoren ere, bidezko izanen da isun gisako zehapenaren ordezkari izan, ingurumen prestazio bat eskatzea hilabeteko epean.

2. Isun gisako zehapenaren ordezkari izan, ingurumen prestazio bat eskatzeko prozedura izanen da ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen araudian ezarritakoa.

3. Prestazioa esandako epeetan egiten ez bada, isuna berriz ezarriko da, berandutze-interesak barne direla.

4. Nolanahi ere, isuna ordaindu ordezkari izan, ingurumen prestazioa egiteak ezin izanen ditu barne

hartu berandutze-interesak, halako interesik sortzen bada.

III. KAPITULUA

Eskumena eta zehapen-prozedura

78. artikulua. Egiatzotasun presuntzioa laguntzeko eginbeharra.

1. Administrazio publikoetako ikuskatzaileek egiten dituzten ikuskapen-aktetan edo salaketetan azaltzen diren gertaerak egiazkotzat hartuko dira, kontrako frogarik izan ezean.

2. Nafarroako arrantza-barruti publiko eta pribatuetako zaintzaileek arrantzaren arloan salatzen dituzten foru lege honetan xedatutakoaren aurkako arau-haustea jakinaraziko zaizkio arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuari, zehapen-prozedura hasi eta izapidetzeko.

3. Foru lege honetan xedatzen denak ukitutakoek behar den laguntza eman beharko diete foru lege hau bete beharrez ikuskapen eta kontrol eginkizunetan ari direnei, beren izaera frogatzen badute behar diren agirien bidez.

Horri dagokionez, arrantzaria ibilguaren barnean edo ontzi batean dagoenean, laguntza eskatzen badiote ikuskapen eta kontrol eginkizunetan ari diren agintaritze-agenteei, arrantzariak ikuskapenean lagunduko du, adierazitako puntura joanda. Agintaritze-agenteen aginduei kasu ez egitea hartzen ahalko da ikuskapenari oztopo egite, jarkitze edo desobeditzetzat.

79. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Honako hauei dagokie zehatzeko ahala erabiltzea:

a) Arau-haustea arinak edo astunak badira, ingurumen arloko eskumenak dituen zuzendaritze nagusiaren titularrari.

b) Arau-haustea oso astunak badira, ingurumen arloko eskumenak dituen departamentuko titularrari.

80. artikulua. Prozedura.

Foru lege honen aurkako arau-haustea egiteagatik, zehapenak ezarriko dira dagokien prozedura instruitu ondoren, eta bat etorri Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko

40/2015 Legean edo ordezko araudian xedatuta-koarekin.

81. artikulua. Prozedura iraungitzea.

1. Zehapen-prozeduran ebazpena eman eta jakinarazteko epea urtebetekoa izanen da, espedientea hasteko administrazio ebazpena ematen den egunetik hasita.

2. Ebazteko eskumena duen organoak, bidezko arrazoiren bat baldin badago, aplikatu beharreko gehieneko epea luzatzen ahalko du administrazio ebazpen arrazoitu baten bitartez. Luzapena, gehienez, hasieran ezarritako epearen erdia izanen da.

IV. KAPITULUA
Kaltea konpontzea

82. artikulua. Kaltea konpontzea.

Kasu bakoitzean bidezko izan daitezkeen zehapen penal edo administratiboak batere ukatu gabe, arau-hausleak zuzendu egin beharko du egindako kaltea. Konponketaren xedea da inguru-nea leheneratzea eraso gertatu aurreko izaera eta egoerara, ahal den neurrian. Era berean, administrazio eskudunak berak gauzatzen ahalko du kaltearen konponketa, subsidiarioki, arau-hauslearen kontura.

83. artikulua. Kalte-ordainak.

1. Kalte-galeren erantzuleek bidezko diren kalte-ordainak ordaindu beharko dituzte, betearazpen bidez ezarritakoak, ezartzen zaien epean.

2. Aurreko zenbakian aipatutako kalte-ordainaren zenbatekoa ezartzerakoan, arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak animalia espezieen baloraziorako ezartzen duen baremoa erabiliko da, kasua bada.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroan arrantzatutako aleak merkaturatzeko salbuespena.

Nafarroan arrantzatutako aleak merkaturatzeko debekua, foru lege honen 23.1 artikuluan aurreikusten dena, ez da aplikatuko Bidasoa ibaian denboraldi bakoitzean izaten den izokin atlantikoaren lehen harrapaketa, "Lehenbizikoa" deitu ohi den horretan. Hura identifikatzea Basozainen Zerbitzuko langileen eginkizuna izanen da, ez beste inorena.

Lehen xedapen iragankorra. Araubide iragankorra.

Foru lege hau ez zaie aplikatuko bera indarrean jarri baino lehen hasitako prozedurei; hala bada, horiek aurreko araudiaren arabekoak izanen dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Beruna erabiltzea arrantza-aparailuetan.

Arrantza-aparailuetan beruna erabiltzeari buruz 21.1 j) artikuluan ezarritakora egokitzeko, 2025eko urtarrilaren 1era arteko egokitze-epea ezartzen da".

Hirugarren xedapen iragankorra. Askatzeen jatorri genetikoa.

Foru lege hau indarrean sartzetik 8 urteko epean, Nafarroako Gobernuak egokitu egingen ditu zentro iktiogenikoetako lerro genetikoak, 28.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Laugarren xedapen iragankorra. Arrantza-lizentzien indarraldia.

Arrantza kudeaketaren arloan eskumena duen departamentuak zehazten ez dituen bitartean lizentzia motak, haien indarraldia eta haiek emateko prozedura, arrantza-lizentzien indarraldia urtebetekoa izanen da.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki:

1. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legetik, honako hauek indargabetzen dira:

- II. titulua.
- IV. tituluaren 2. atala
- Laugarren xedapen gehigarria.

2. Ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretutik, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatzeko eta betearazteko Erregelamendua, II. titulua.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzea.

Bat. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen izenburua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

"17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako Ehizari buruzkoa".

Bi. 1. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

"1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko ehiza baliabideen aprobe-

txamendua iraunkortasun irizpideen arabera babestu, kontserbatu, sustatu eta antolatzea”.

Hiru. 2. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“2. artikulua. Aprobetxamendu antolatua.

Ehizan aritzea zilegi izanen da, soil-soilik, ehiza antolatzeko plan indarduna duten ehiza barrutietan edo ehiza kontrolatuko eremuetan, foru lege honetako xedapenei eta hura garatzen duten gainerako araei jarraituz.

Foru lege hau onetsi eta bi urteko epean, Nafarroako Gobernuak ehiza antolatzeko eskualde-planak eginen ditu, non eskualdeetako ehiza barrutiek bete beharreko kudeaketa-ildo oinarritzako ezarriko baitira.

Lau. 3. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“3. artikulua. Baliabidearen jasagarritasuna.

1. Ehiza baliabideen aprobetxamendua lehenasunez animalia populazio naturaletan oinarrituko da. Iraunkortasun irizpideen arabera eginen da; beraz, biodibertsitatearen iraupenarekin bateragarria izan beharko du, aniztasun genetiko kontserbatzeko, populazio aloktonoen sarrera galazteko eta ehiza lurralde-garapenean txerta dadin sustatzeko.

2. Ingurumen arloan eskumena duen departamentuak espezie edo populazio aloktonoak deuseztatzeko neurriak hartu ahalko ditu, baliabide naturalen iraunkortasuna bermatzeko xedearekin.

3. Ehizaren antolamendua dela bide, espezieen bideragarritasunari eusteko behar adinako kudeaketa unitateak eratuko dira eta barrutien titulartasunen erantzukizunpeko autonomia sustatuko da.

4. Ehiza-jarduera orok habitaten, espezieen, biodibertsitatearen eta paisaiaren kalitatea zaindu beharko ditu, eta, era berean, baliabide naturalen erabilera eta aprobetxamendu ordenatua ziurtatu beharko ditu, bai eta garapen ekonomiko iraunkorra eta gizarte-, kultura- eta kirol-helburuak ahalbidetu ere”.

Bost. 4. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“4. artikulua. Gizartearen parte hartzea.

Ehiza aprobetxamenduen gaineko erabakiak hartu behar direnean, gizartearen parte-hartzea ahalik zabalena izanen da. Lehendik dauden organoak izanen dira parte-hartze horretarako bitarte-

koak, hala nola Ehizako Aholku Batzordea edo Nafarroako Ingurumen Kontseilua, eta organo berriak ere sortu ahalko dira. Hartara, ahalik adostasun handiena bilatuko da eta parte hartzeko bideak ezarriko dira, erabakiak non aplikatu behar diren, hango gizartearen errealitatearen isla izan daitezen”.

Sei. 85. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“85. artikulua. Ehizarako animaliei kalte egitea.

1. Lege zibilen arabera erantzule direnek ordainduko dituzte ehizarako animaliei egindako kalteak.

2. Kalte-ordainen zenbatekoa erregelamendu bidez ezarri eta eguneratuko da”.

Zazpi. 100. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“100. artikulua. Zehapenak.

Ehizaren arloko arau-hausteek zehapen hauek izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinek 50 eurotik 500 eurora bitarteko isuna, eta lizentzia etetea gutxienez hila-beterako eta gehienez urtebeterako.

b) Arau-hauste larriek 501 eurotik 2.000 eurora bitarteko isuna, eta lizentzia etetea eta ezgaitzea gutxienez urtebeterako eta gehienez hiru urterako.

c) Arau-hauste oso larriek 2.001 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna, eta lizentzia kentzea eta berriz eskuratzeko ezgaitzea gutxienez hiru urterako eta gehienez bost urterako.

d) Barrutiaren titularrak edo ehiza aprobetxamenduaren titularrak egindako arau-haustea izanez gero, zehapen gisa barrutiko ehiza jarduerari aldi baterako eten ahalko da, arau-haustea arina edo larria denean, edo behin betiko, arau-haustea oso larria denean”.

Zortzi. 102. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“102. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

Ehizaren arloko arau-hausteengatik ezartzen diren administrazio zehapenek hiru urteren buruan preskribatuko dute arau-haustea oso larria bada, bi urteren buruan, arau-haustea larria bada, eta urtebeteren buruan, arina bada. Zehapena ezartzeko ebazpena irmo bilakatu eta biharamunetik kontatuko da preskripzio epea”.

Bederatzi. 107. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“107. artikulua. Ordezko ingurumen prestazioa.

1. Behin zehapen-prozedura hasita, ustezko erantzulea den pertsonak aukera izanen du, isun gisako zehapenaren orde, ingurumen arloko leheneratze, kontserbazio edo hobekuntza prestazio bat eskatzeko, ingurumenari onura ekarriko diona, isuna jartzeko eskumena duen organo eskudunak ezartzen dituen baldintzak eta nondik norakoak betez. Zehapenaren ebazpena jakinarazi ondoren ere, bidezko izanen da isun gisako zehapenaren orde ingurumen prestazio bat eskatzea hilabeteko epean.

2. Isun gisako zehapenaren orde ordeko ingurumen prestazio bat eskatzeko prozedura izanen da ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen araudian ezarritakoa.

3. Prestazioa esandako epeetan egiten ez bada, isuna berriz ezarriko da, berandutze-interesak barne direla.

4. Nolanahi ere, isuna ordaindu orde ingurumen prestazioa egiteak ezin izanen ditu barne hartu berandutze-interesak, halako interesik sortzen bada.

Azken xedapenetako bigarrena. Basafauna eta haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzea.

Bat. 18. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“18. artikulua.

Katalogoan sartzan diren espezie, subespezie edo populazioak kategoria hauetako batean sailkatu behar dira:

a) Galzorikoa: oraingo egoera eragiten duten faktoreek jarraituz gero nekez iraunen dute taxon edo populazioak.

b) Kaltebera: baldin eragiten dieten faktore kaltegarriak zuzentzen ez badira, etorkizun hurbilean aurreko kategoriara pasatzeko arriskua duten taxon edo populazioak”.

Mehatxuaren kategoria batetik bestera aldatzea ezertan eragotzi gabe, “habitataren aldaketen aurrean ahula” kategorian jasotzen diren espezieak “kaltebera” kategorian sartuko dira. “Interes berezikoa” kategoriako espezieak ez dira egonen aurrerantzean katalogoan sarturik, baina izanen dute Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 57. artiku-

luan ezartzen den babes-araubidea, eta Babes Araubide Berezikoko Basafauna Espezieen Nafarroako Zerrenda osatuko dute, aipatu legearen 56. artikuluko 4. apartatuari jarraikiz. “Desagertuak” kategoriako espezieak katalogotik kanpo geldituko dira, ezertan eragotzi gabe aipatu 42/2007 Legearen 55. artikulua aplikatzea.

Bj. 19. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“19. artikulua.

1. Espezie, subespezie edo populazio bat “Galzorikoa” kategorian katalogatzeak eskatuko du espezie hori leheneratzeko plan bat idaztea, galtzeko arrisku hori kentzeko neurriak zehaztuko dituena.

2. Espezie, subespezie edo populazio bat “Kaltebera” kategorian katalogatzeak eskatuko du haren habitata kontserbatzeko eta, beharrezkoa bada, babesteko plan bat idaztea.

3. Nafarroako Gobernuak leheneratzeko eta kontserbatzeko planak onetsiko ditu Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 59. artikuluko 1. apartatuan ezarritako epean, espeziea katalogoan sartzan denetik hasita, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

4. Administrazioak sistema batzuk jarriko ditu abian, espezie mehatxatuen eta habitat sentikorren kontserbazio egoeraren zaintza eta jarraipena egiteko; hala, aldi-aldi ebaluatuko dira leheneratzeko eta kontserbatzeko planetan hartutako neurrien ondorioak”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Ingurumen arloko eskumena duen departamentuaren titularra gaitzen da behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru lege hau garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru-lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunen.

1. ERANSKINA. ARRANTZATZEN AHAL DIREN ESPEZIE AUTOKTONOAK

Ondoren ageri diren arrain-espezie autoktonoak bakarrik arrantzatzen ahalko dira:

- Graellsko barboa (*Luciobarbus graellsii*).
- Txipa (*Phoxinus phoxinus*).
- Hondoetako korrokoa (*Chelon labrosus*).
- Lupia (*Dicentrarchus labrax*).
- Platuxa latza (*Platichthys flesus*).
- Izokina (*Salmo salar*).
- Tenka (*Tinca tinca*).
- Ibai eta itsas amuarraina (*Salmo trutta*).

2. ERANSKINA. ARRANTZATZEN AHAL DIREN ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK

Ondoren ageri diren espezie exotikoak bakarrik arrantzatzen ahalko dira:

a) Arrain exotiko inbaditzaileak:

- Alburnoa (*Alburnus alburnus*).
- Karpa (*Cyprinus carpio*).
- Urrearraina (*Carassius auratus*) eta beste *Carassius* sp. batzuk.
- Lutxoia (*Esox lucius*).
- Perka amerikarra edo black-bass deitutakoa (*Micropterus salmoides*).
- Arrain katua (*Ameiurus melas*).
- Silurua (*Silurus glanis*).
- Ortzadar amuarraina (*Oncorhynchus mykiss*).

b) Ornogabe exotiko inbaditzaileak:

- Paduretako karramarroa (*Procambarus clarkii*).
- Karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*).

11-23/LEY-00011. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa

EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 157.3. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuaren irizpena, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsia. Foru-lege proiektua 2023ko azaroaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 2023ko abenduaren 12an eta 19an eginiko bilkuran onetsia.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen xedea da honako arau hauek aldatzea: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina, Hondakinei eta Haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bategina, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legea.

Arauen aldaketan helburua da, alde batetik, inflazio-tasa handia duen egungo testuinguru ekonomikoari erantzutea, eta, bestetik, doikuntza teknikoak egitea, Zerga Administrazioak kontrol handiagoa eta kudeaketa hobea izan dezan; azken

helburua eta asmo iraunkorra da zerga arloko ekitate eta iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetzea.

Herritarren zerga-karga orokorrean murrizteko helburuarekin, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifaren deflaktazioa egiten da, %4koa 2023an eta %3koa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Era berean, 2023an aplikatu beharreko gutxieneko pertsonalak eta familiarrak %3 igotzen dira, eta beste %3 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharrekoak.

Ildo beretik, baina kolektibo jakin batzuei zuzendutako neurri gisa, bi salbuespen nabarmen daitezke: alde batetik, 200 euroko ordainketa bakarrek laguntza, araututa dagoena abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 74. artikuluan, helburu duena prezioen igoeraren eragina arintzea, eta, bestetik, NPB berriaren ordainketaren parte diren eko-araubideen laguntzak, bai laguntzak jasotzen dituen pertsona fisikoa bada, bai sozietateen gaineko zerga pagatzen duen entitatea bada. Nabarmentzekoa da, halaber, handitu direla etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatikoen kenkariak (David) eta emantzipaziorako errentamenduagatikoen kenkariak (Emanzipa), eta, aldi berean, azken horiek 2024an aplikatzeko aukera luzatzen zaie langabeiei, gazteak ez izan arren.

Bestalde, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzen da (zuzentarau horren bidez, zenbait arau ezarri ziren barne merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko jardunbideen kontra), sozietateen gaineko zergan finantza gastuen kengarritasunari dagokionez.

Foru legearen egitura hau da: hamaika artikulua, xedapen gehigarri bat eta bost azken xedapen.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruan, arestian aipatutako neurriez gain (besteak beste, likidazio-oinarri orokorrari aplikatu dakiokeen tarifaren deflaktazioa eta gutxieneko pertsonal eta familiarrengatikoen kenkariaren igoerak), zergaren koherentzia hobetzen duten doikuntza teknikoak egiten dira eta atzemandako akats batzuk zuzentzen dira.

Segurtasun juridikoa dela eta, zergari buruzko foru legean administrazio-doktrinak finkatutako irizpide bat sartzeko; horren arabera, Gizarte Segurantzaren pentsio jakin batzuk eta epai judicial bidez aitortutako bi urte baino gehiagoko beste prestazio pasibo batzuk jasotzen badira, epaia irmo bihurtzen den zergaldiari egotziko zaizkio, %30eko murrizketa aplikatuta.

NASUVINSAREN bitarteko errentamendua sustatzeko eta alokairura bideratutako etxebizitzaren parkea handitzeko, %60tik %70era igotzen da kapital higiezinaren etekin garbia murrizteko ehunekoa, sozietate publiko instrumentalaren bitarteko etxebizitzaren errentamendutik datorrenean.

Kapital higiezinaren etekin garbiaren murrizketen esparruan ere, %40ko murrizketaren aplikazioa atzeratu egin behar da, alokairu jasangarritasunaren indizea zehazten ahal den zergaldira arte. Murrizketa aplikatzeko baldintzetako bat da errentamenduen zenbatekoak ez gaitzetea alokairu jasangarritasunaren indizearen (AJI) balioa; beraz, indize hori zehaztu eta ezarri arte, ezinezkoa da murrizketa aplikatzea.

Bestalde, ex lege argitzen da ulertuko dela ondarea ez dela handitu edo gutxitu, baldin eta diruzko konpentsazioak edo ondasunen esleipenaren bidezkoak egiten badira ezkontideen edo bikote egonkorreko kideen arteko konpentsazio-pentsioa ez den beste arrazoi batengatik, hori gertatzen bada legezko inposizioagatik edo ebazpen judicialagatik ondasunen banaketaren ezkontzaren ondasun-eraentza (Bildumaren 101. Legea) edo bikote egonkorrari aplikatu beharreko ekonomia- eta ondare-eraentza (Bildumaren 112. Legea) azkentzen denean.

Bestalde, bizi-aseguru kolektiboetara egindako ekarpenengatik zerga-oinarriaren murrizketen esparruan, ekarpen horiek gauzatzen baldin badituzte enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoak, 4.250 euroko berariazko muga ezartzen da, entitate batek bere bazkide langileentzat bakarrik enpresa-ekarpenak aseguru kolektiboaren bidez egiten dituen kasurako, hori baita langile batzuei bakarrik ekarpen horiek egiteko bide ematen duen figura bakarra. Ekarpentak langile batzuentzat bakarrik egiten badira, aplikatu beharreko muga langile autonomoentzat ezarritako bera izanen da.

Energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioengatik eta erreforma-sisteman egindako inbertsioengatik kenkariari dagokionez, non organo eskudunak emandako txostena behar baita, ezartzen da kenkaria aplikatuko dela

txostena egin ondoren aurkeztu beharreko lehen autolikidazioan. Aldaketa horrekin, saihestu gogo da zergadunak txostena lortu ondoren eskatu behar izatea bere autolikidazioa berrikusteko.

Kuota diferentzialaren kenkariaren eremuan, aurreko paragrafoetan adierazi den bezala, hobetu egiten dira etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatik eta emantzipaziorako errentamenduagatik kenkariak, mugak handitzen baitira. Emantzipaziorako errentamenduagatik kenkariaren kasuan, kenkaria aplikatzeko aukera zehazten duen errenta-atalasea ere handitzen da, eta kenkariaren aplikazioa luzatzen zaie 2024an enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dauden langabeei, adinaren baldintza bete ez arren. Gainera, 675 eurotik 700 eurora handitzen da bi kenkari horiek eskuratu ahal izateko alokairuaren prezioaren muga.

Zergadunen segurtasun juridiko handiagoa lortzeko eta zergaren kudeaketa errazteko, aldatzen da zer zergalditara egotzi behar diren oro har laguntza publikoen ondoriozko ondare-gehikuntzak, laguntza horiek kobratzeko aldira eramaten baita.

Zergaren zenbait manu ere aldatzen dira, desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuen (Nafarroako Foru Berriaren xedatutakoaren arabera eratuak) tratamendu fiskala 41/2003 Legearen araututako ondare babestuen tratamenduarekin parekatzeko.

Birgaitze babestutako obretarako dirulaguntza publikoen tratamendu fiskala Europako funtsen kargura finantzatutako laguntzen tratamenduarekin parekatzeko, aipatutako dirulaguntza publiko horien salbuespena ezartzen da Europako Next Generation funtsak jasoko diren aldirako, dirulaguntza zer subjektu pasibori esleitzen zaion, haren errenten zenbatekoa kontuan hartu gabe.

Bukatzeko, gure inguruko legerian xedatutakoaren ildotik, eta konkurtso-prozedurak ez zigortzeko, Konkurtso Legearen esparruan zorren kitapen eta ordainean emateen ondorioz agertzen diren errenten salbuespena ezartzen da, betiere zorrak jarduera ekonomikoen ondoriozkoak ez badira.

Ondarearen gaineko zergan, egindako aldaketen helburua da argitzea betebeharrak pertsonalagatik zergaren mende dauden zergadunek soilik aplikatu ditzaketela kuota osoaren muga eta nazioarteko zergapetze bikoitzagatik kenkaria.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, aldatzeko garrantzitsuenaren helburua da Konkurtso Legearen 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB)

Zuzentarauaren transposizioa osatzea (zuzentarau horren bidez, zenbait arau ezarri ziren barne merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko jardunbideen kontra). Interesak mugatzeari buruzko arauari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateak Zuzentarauaren 11.6 artikuluan araututako salbuespenari heldu zion, zeinak ezartzen baitzuen 2016ko abuztuaren 8an BEPS arloko arriskuak saihesteko arau nazional espezifikoak zituzten estatu kideek arau horiek aplikatzen ahalko zituztela 2024ko urtarrilaren 1era arte, baldin eta arau horiek eraginkorrek baziren aipatutako zuzentarauan ezarritako interesak mugatzeko.

Ezarritako epea igarota, une honetan beharrezkoa da foru araudia aipatutako zuzentarauaren 4. artikulura egokitzea.

Horretarako, aldatzen da nola zehaztuko den zein mozkin operatibori aplikatuko zaion finantzagastuen kengarritasuna zehazten duen muga, mozkin operatibo horren kalkulutik berariaz baztertzeko sozietateen gaineko zergaren zergaoinarrian sartzen ez diren diru-sarrerak, gastuak eta errentak, Zuzentarauaren 4.2 in fine artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Era berean, 24. artikuluko horren 6.a) apartatuaren azken paragrafoa ezabatzen da, titulizazio-funtsak gastu finantzarioen muga aplikatzearen salbuespenetik kanpo uzteko, ez baitaude sartuta Zuzentarauak salbuespen hori aplikatzeko aukera ematen dien "sozietate finantzarioak" izenekoen barruan, bertan dagoen "sozietate finantzarioa" definizioaren arabera.

Bestalde, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, sozietateen gaineko zergan salbuetsitatzat jotzen dira NPB berriaren ordainketaren parte diren eko-araubideetarako laguntzak; laguntza horiek ingurumena errespetatzeko eta hobetzeko jarduerekin lotuta daude.

Gainera, babesletza jarduerak eragindako publizitate gastuengatik kenkaria aplikatzeko, entitate babes-hartzaileak dagokion informazio-eredua aurkeztu beharko du, non babesletza kontratuaren arabera jasotako zenbatekoak jasoko baitira.

Bukatzeko, hamabigarren xedapen iragankorra aldatzen da, aplikatzeko dauden kenkariak aplikatu ez daitezkeen kuotaren erregularizazioa tributu arloko arau-haustea denean, kontuan izan gabe zer zergalditan sortu diren.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan terminologia egokitzapenak egiten dira, beharrezkoak baitziren Nafarroan desgaitasuna dutenei arre-

ta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, eta dagoeneko indargabetuta dagoen artikuluko baten aipamena zuzentzen da.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, argitzen da ezen etxebizitzaren jabari osoa eskuratzen denean baino ez dela bidezkoa despopulazio arriskuan dagoen udalerrri batean kokatutako ohiko etxebizitzaren eskualdaketari aplikatzen zaion zerga-tasa murriztua, hau da, ez dela aplikagarria usufuktu eskubideak edo jabetza soila eratzen direnean, ezta lehenago usufuktuan eta jabetza soilean banaturiko jabaria kontsolidatzen denean ere. Halaber, aurrerantzean ez da ezinbestekoa izanen etxebizitzaren eskurapenaren dokumentu publikoan ohiko etxebizitzarako erabiliko dela berariaz agertzea, betekizun hori kentzen baita.

Bestalde, ezartzen da hipoteka bermea duten maileguak aldatzen diren kasuetan ere, nobazioarekin gertatzen den bezala, pertsona edo erakunde mailegu-emalea izanen dela zergaren subjektu pasiboa.

Azkenik, zergatik salbuesten dira Sociedad Anónima Estatal de Caución Agraria Estatuko merkataritza sozietatearekin izenpetutako abalkontratuak, era horretako eragiketak sustatu nahi baitira, diruzaintzako tentsio uneak gainditzean helburua dutenak.

Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoa betetzeko, hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinaren errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergaren araudia aldatzen da, guztiz egokitu dadin Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean ezarritakora.

Zehazki, Nafarroako Hondakinaren Erakunde Publikoak zuen egiteko bat kentzen da, toki entitateen ordezkaria izatekoa hondakinaren zergaren autolikidazioari eta sarrerari buruz haiek dituzten betebeharretan, eta ezartzen da hondakindegien edo hondakinak errausten edo koerrausten dituzten instalazioen kudeatzaileak izanen direla zergadunen (Nafarroako toki entitateak barne) ordezkariak, eta ez titularrak (foru arauak ezartzen zuen moduan).

Gainera, nahiz eta Hitzarmen Ekonomikoaren arabera Nafarroako Foru Komunitateak ezarri ditzakeen Estatuko araudiak ezartzen dituenak baino karga-tasa handiagoak, egokitzat jo da eduki geldoa duten eta hondakin ez-arriskutsuen hondakindegietan utz daitezkeen hondakin jakin batzuen karga-tasak murriztea (zepenak eta gal-

daketako hondarrenak, besteak beste) eta, horrela, 7/2022 Legearen arabera lurralde erkidean aplikatzekoak direnekin parekatzea. Neurri horren bidez, hondakin geldoak sortzen dituzten enpresek hondakinak Nafarroatik kanpoko hondakindegietara bidaltzea saihestu nahi da, haietan zerga-tasa 1,5 €/t izanzen bailitzateke, 15 €/t izan beharrean.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean aldaketa teknikoak egiten dira, tributuen kontrola eta kudeaketa hobetzeko. Era berean, zergapekoen lankidetzaz handiagoa lortzeko eta frogak ezkutatzea saihesteko, beste kasu bat tipifikatzen da arau-hauste astunen artean, gutxienez 20.000 euroko zehapena dakarrena, hain zuzen ere, jarduera ekonomiko bat garatzen duen zergapekoak Zerga Administrazioari funtzionarioei finka edo lokaletan sartzeko edo egotea, edo zerga-betebeharrekin lotutako lokalak, makinak, instalazioak eta ustiategiak aztertzea bidegabe ukatzen edo galarazten dien kasuetarako.

Betebehar jakin batzuen kontrol eta jarraipen lanak egin ahal izateko, Zerga Administrazioak jakin beharra du zein diren sozietate-figura akzio edo partaidetza titularrak. Informazio hori eskuratzeko, maiz, zaila gertatzen da, merkataritza eta finantza egitura jakin batzuen konplexutasuna dela-eta. Beharrezkoa da, beraz, tresnak izatea pertsona edo entitate juridiko baten gaineko azken kontrol eraginkorra egiten duten pertsonen buruzko informazioa eskuratzeko, hau da, horien benetako titularrak ezagutzeko. Helburu horrekin, laguntzeko eginbehar berri bat ezartzen da: horren arabera, entitateek Zerga Administrazioari informazioa eman beharko diote haien benetako titularrak diren pertsonen buruz, zerga-aitorpen jakin batzuetan sartuta.

Egiaztapen laburtuko prozeduraren erregulazioa argitzen da, idazkera nahasgarri samarra baitzuen; izan ere, alde batetik, kudeaketa organoen eskumenetatik kanpo uzten zuen kontabilitate-liburuak aztertzeak aukera, eta, ondoren, merkataritzako kontabilitatearen kopia eska zezaketela adierazten zuen.

Idazketa berriarekin argi geratzen da kudeaketa organoek kontabilitatea azter dezaketela, Zerga Administrazioak duen informazioarekin bat dato-rela egiaztatzeak. Era berean, ezartzen da azterketa horrek ez dituela eragotziko edo mugatuko gerora ikuskapen prozedura batean egin daitezkeen jarduketak.

Bestalde, paragrafo bat gehitzen da, egiaztapen laburtuko prozeduratan zergapekoari eskatzen ahal dakion zerga-betebehar bat zehaztean

eragina duten finantza-eragiketarako agiri bidez justifikatzeko.

Zerga-egintzak eta zehapenak jartzeko egintzak errebotatzeko sartzeko da egintzak berrikusteko prozedura berezien artean; zergapekoak horien bidez eskatzen ahalko du bidegabeko sarrerak itzultzeko, sarrera bidegabea eragin zuen egintza irmoa denean.

Halaber, hogeita zortzigarren xedapen gehigarria aldatzen da, isiltasun negatiboa arautzeko produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten enregistraoan eta ekintzaileen enregistraoan alta eskatzeko prozeduratan eta, orobat, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeko prozeduratan.

Azkenik, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera ere mantenduko dira zorra geroratzeko edo zatikatzeak eskaerari aplikatu beharreko neurri berariazkoak, 2022an eta 2023an ezarri zirenak.

Aldaketak egin dira Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-arau bidez bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean, eta aldaketa horien helburua da, lehenik, ikusgarritasuna ematea genero-indarkeriarekin lotutako jarduketari, nahiz eta jada ulertzen zen sarturik zeudela gizarte mezenasgoaren entitate onuradun izan daitezkeen helburu sozialen artean.

Bigarrenik, aldaketa horien bidez argitu nahi da nola kalkulatu den kenkarien zenbatekoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan; horretarako, adierazten da mugak desberdinak direla mezenasgo mota bakoitzerako (soziala, ingurumenekoa edo kirolekkoa), eta mezenasgo mota bakoitzaren barnean muga aplikatzen zaiola ekarpenen baturari (dohaintza, erabilera maileguak eta komodotua, etab.).

Orobat, aldatzen da bigarren xedapen gehigarria, Nafarroako zergadunek aukera izan dezaten testu bateginean ezarritako pizgarri fiskalak aplikatzeko, ekarpenak egiten dizkietenean entitate batzuei eta entitate horiei aplikatu behar bazaie, beste zerga administrazio batean, aipatutako testu bateginean ezarritako tributu-araubidearen baliokidea den bat. Betiere, aipatutako testu bategineko I. tituluan ezarritako tributu-araubidearen onuradun izan nahi duten entitateek komunikatu behar dute araubide hori aplikatzea nahi dutela, eta komeni da zehaztea aurreko neurriak ez diola betebehar horri batere eragiten.

Azkenik, bateratzen da lehentasuna duten jarduerak eta proiektuak deklaratzeko arauaketa, edozein izanik ere mezenasgo mota. Aldaketa hone-

kin, foru lege baten bidez deklaratu dira lehen-tasuna duten jarduerak eta proiektuak, mezenas-go mota guztietarako, baita kultura mezenasgorako ere, foru dekretu bidez ezartzen baitzen orain arte.

Administrazio-zerbitzuak emateagatik tasei dagokienez, salbuesten dira departamentuko berariazko aplikazio informatikotik datuak deskargatuz ikastetxe publikoek ematen dituzten ziurtagiriak.

Elkarteen Erregistroaren, Fundazioen Erregistroaren eta Lanbide Elkargoen Erregistroaren jarduketengatik tasak ere erregistro horien eskumenera egokitzen dira. Hala, liburuen gaikuntzari buruzko aipamena kentzen da, eta bizilekua aldatzeko inskripzioak tarifatik kanpo uzten dira.

Teknologia berrien bilakaerak kartografiaren munduari eragiten dio, eta gaur egun ez dago inprimaketa bidez egindako aleen eskaerarik, ezta CD eta DVDenik ere. Horregatik guztiagatik, kendu egiten dira produktu batzuegatiko tasak eta dagozkien tarifak, eta beste batzuk gehitzen dira. Proposatutako tarifak bat datoz beste administrazio batzuetakoekin. Kontuan hartuta produktu horiek Administrazioaren beharregatik egin behar direla, asmoa da tasa batzuk ezartzea produktuen hedapena errazteko, produktu horietatik ahalik eta gizarte-erabilgarritasun handiena lor dadin, eta kopien (digitalak edo analogikoak) erreproduktioari egotz dakizkiokeen gastuetara doi daitezen.

Barrutietan arrantza egiteko baimenagatik tasaren tarifa batzuk igotzen dira, baina azken hogeitaz ez dira aldatu. Langile-kostuak handitzeak zerbitzuaren kostua handitzea dakar urteekin, eta horri gehitu behar zaio zerbitzuaren erabilzaileen kopurua murriztu dela, eta, beraz, arrantza-egun bakoitzeko emandako paseen kopurua ere bai. Hori dela eta, kostu finko orokorrek pase gutxiagoren arten banatu behar dira, eta, ondorioz, pasearen kostua handitu. Hori guztia oinarri hartuta, hauei dagozkien tarifak handitzen dira: arraina harrapatu eta askatzeko modalitatea, karramarroak modu kontrolatuan harrapatu eta eramatekoa eta tarifa murriztua.

Azkenik, 5 urterako lizentzia kentzen da arrantza kontinentalerako lizentziaren tasan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eguneratu egiten dira, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren oinarria zehazteko aplikatu beharreko gehieneko koefizienteak, 175.2 artikuluan biltzen direnak. Toki Ogasunei buruzko Foru

Legean xedatutakoari jarraikiz, koefiziente horiek urtero eguneratu behar dira.

Azkenik, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarria aldatzen da, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren informazioa Internet bidez eskuratzea arautzeko.

Azken xedapen gehigarriak berariazko zerga-pizgarri batzuk jasotzen ditu, 2024an eta 2025ean aplikatuko direnak, "Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022" aparteko interes publikoko gertakariarekin loturiko programa eta jardueren finantzaketan parte hartzeagatik. Hala, uztailaren 31ko PCM/742/2022 Aginduaren bidez sortu zen departamentuarterako kide anitzeko organoak (hots, "Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022" AIPGaren kudeatzaileak) onetsitako programa eta jardueretan ekarpenak egiten dituztenek kultura mezenasgorako pizgarriak aplikatzen ahalko dituzte; Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean ezarrita daude horiek. Gainera, aipatutako programa eta jarduerak lehenetsunezkoztat joko dira irabazi-asmorik gabeko entitateek egiten badituzte eta, horrez gain, entitate horiek aipatu testu bategineko I. tituluako zerga-araubidea edo haren baliokidea den beste Zerga Administrazio baten zerga-araubidea aplikatzen dutenean eta, hala, ehuneko bost puntu goratuko dira aplikatu beharreko kenkariaren ehunekoak eta mugak.

Azken xedapenetako lehenengoak eguneratzen ditu, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legean ezarritako saneamendu kanonaren tarifak. Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Gidaria, Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo osoaren Plan Gidariaren barnean dagoena, ziklo berri batean sartu da, egoera ekonomiko-finantzarioari dagokionez. Tarifak igotzeko arrazoia da plan gidariak oreka bilatu nahi duela progresiboki epe luzean.

Hala kostu operatiboak, energia elektrikoaren kostua bereziki, nola sustatu beharreko obren kostua ehuneko hogeita hamar baino gehiago handitu dira azken ekitaldian. Hori guztia 2023-2029 aldirako Inbertsio Planaren esparruan sustatu beharreko inbertsioen bolumena handitzen ari den testuinguru batean.

Gaur egun, etxekoa ez den tarifa (1.b) etxekoa (1.a) baino % 13,85 handiagoa da. "Kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa aplikatu

dadin araudian indarrean dagoen karga kutsa-tzaileari dagokion indize zuzentzailearen bidez soilik, tarifa-igoera desberdinak proposatzen dira (% 9,2 1.a tarifarentzat eta % 4,7, aldiz, 1.b tarifarentzat), etorkizunean bi tarifek bat egin dezaten lortzeko.

Bestalde, azken xedapenetako bigarrenak eta hirugarrenak langileen arloko neurriak jasotzen dituzte. Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak presako zenbait neurri onetsi zituen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan. Aipatu neurriak, funtsean, ekonomiaren eta aurrekontuen orduko egoeran oinarriturik hartu ziren, eta horietako gehienek indarraldiari dagokionez, erabaki zen 2012. urtera mugatu zela, eta gerora erabakiko zela hurrengo urteetan luzatuko zen ala ez.

Neurri horietako batzuk urtez urte luzatu dira, eta, une honetan, beharrezkotzat jotzen da 2024ra arte luzatzea, eta 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi arte, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarrian eta zazpigarren xedapen gehigarrian jasotakoak; haien indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

Bukatzeko, azken xedapenetako laugarrenak Nafarroako Gobernua gaitzen du beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan foru lege hau garatu eta aplikatzeko, eta azken xedapenetako bosgarrenak arautzen du foru legeak indarra hartuko duela Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, bertan aurreikusitako ondorioekin.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauke-ta onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak. Horrela, foru lege honek, lehen adierazi diren arrazoiengatik, beharizanaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen ditu: justifikatuta dago interes orokorraren arrazoiengatik, hainbat zerga-arau aldatzen duenez; lortu nahi diren helburuen identifikazio argian (aurreko paragrafoetan definitutakoak) oinarritzen da; eta, azkenik, helburuok lortzeko tresna egokia da, zerga arloan lege erreserbak agintzen baitu, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 11. artikuluan ezarrita.

Foru lege honek beste foru lege batzuen zenbait artikulua aldatzen ditu, ahalik eta zehaztasun handienarekin; horrela, ba, proportzionaltasun-printzipioa ere errespetatzen da. Bai eta, horrexe-

gatik, segurtasun juridikoaren printzipioa ere. Izan ere, zehatz-mehatz zaindu dira ordenamendu juridikoaren gainerakoarekiko koherentzia, egonkortasuna, eta pertsona nahiz enpresentzako aurreikusgarritasuna eta zalantzagarritasunik eza, oreka egokia lortze aldera legegilearen borondatearen eta gainerako errealitate juridikoaren artean, barne harturik jurisprudentziarik berriena ere. Foru lege honekin lortu nahi diren zenbait helburu betetzeko, oso kontuan hartu da sinpletasun eta efizientzia printzipioa ere, zeinak xede baitu karga administratibo ez-beharrezkoak edo bigarren mailakoak ekiditea eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea.

Gardentasunaren eta irisgarritasunaren printzipioak errespetatuz argitaratzen da foru legea Nafarroako Parlamentuaren Aldizkarian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta www.nafarroa.eus web-orrian.

Bukatzeko, kontuan izan da gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren printzipioa, eta aldaketak egin dira, arauetan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzearen.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) honela idatzita geldituko dira:

Bat. 7.h) artikulua, lehen paragrafoa.

“h) Beka publikoak, Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-arau-bide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginaren (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) I. tituluan ezarritako zerga-arau-bide berezia aplikatu behar zaien entitateek emandako bekak, eta Aurrezki-kutxei eta Banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen II. tituluan araututako banku-fundazioek beren gizarte-ekintzako jarduera garatzeko emandako bekak, jasotzen direnak ikasketara arautuak egiteko, Espainian zein atzerrian, hezkuntza-sistemaren maila eta gradu guztietan, doktoretzara barne, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Bi. 7.z) artikulua, lehen paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“z) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsekin kofinantzatutako Nafarroako landa garapenerako programako laguntzen %100, eta Europar Batasunaren nekazaritza politikak klima-

ren eta ingurumenaren aldeko araubideetarako ematen dituen laguntzen % 100 (eko-araubideak)”.

Hiru. 17.2.a) artikulua, bigarren paragrafoa, bigarren paragrafoaren egungo edukia hirugarren paragrafo berri batera pasatzen baita.

“Lehenengo paragrafoan ezarritakoa gorabehera, murrizketa 14.2.a) 1. eta 2. artikuluan ezarritako prestazioei aplikatuko zaie, baldin eta epai judizial bidez aitortuta badaude eta bi urte baino gehiagokoak badira, prestaziorako eskubidea aitortzen den egunetik epaiaren egunera arte zenbatuta”.

Lau. 25.2 artikulua, bigarren paragrafoa, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“%70, etxebizitzarako erabiltzen diren etxebizitzaren errentamendutik ateratzen denean, errentamendu hori arau hauetan jasotako sozietate publiko instrumentalaren bitartez egina bada: Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua, eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikulua.

Bost. 39.4 artikuluari f) letra gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“f) Ondasunen banaketaren ezkontzaren ondasun-eraentza edo bikote egonkorrari aplikatu beharreko ekonomia- eta ondare-eraentza azkentzean, legezko inposizioagatik edo ebazpen judizialagatik diruzko konpentsazioak edo ondasunen esleipenaren bidezkoak egiten direnean ezkontideen edo bikote egonkorreko kideen arteko konpentsazio-pentsioa ez den beste arrazoi batengatik.

f) letra honetan aipatutako konpentsazioek ez dute eskubiderik emanen ordaintzailearen zerga-

oinarria murrizteko, eta ez dira errenta izanen har-tzailearentzat.

Letra honetan aipatutako kasuak ezin izanen du, inola ere, esleitutako ondasunen edo eskubideen balioak eguneratzea eragin”.

Sei. 55.1 artikulua, 1.d) ordinalaren bigarren paragrafoa eta 2.b) ordinalaren bigarren paragrafoa aldatzea, eta 7.a).b’).1 ordinalari paragrafo bat gehitzea.

“Zuzentarau horren arabera egindako ekarpenen edo kontribuzioen kasuan, horiek, osorik edo zati batean, pentsio-planerarako aurreikusitakoez bestelako kasuetan izanez gero, subjektu pasiboak lan-etekin gisa sartu beharko ditu jasotako zenbatekoak, 83.4 artikuluan ezarritakoaren arabera”.

“Finkatutako eskubide horiek, osorik edo zati batean, beste kasu batzuetan izanez gero, subjektu pasiboak lan-etekin gisa sartu beharko ditu jasotako zenbatekoak, 83.4 artikuluan ezarritako baldintzetan”.

“Lehenengo paragrafoan adierazitako muga gehigarria 4.250 eurokoa izanen da, baldin eta enpresaren kontribuzioak edo langilearen ekarpenak egiten badira enpresako langile guztiak hartzen ez dituzten pentsioengatiko konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboetara”.

Zazpi. 55.3 artikulua.

“3. Artikulu honetan aipatzen diren murriztapenak hamargarren, hamahirugarren, hamalaugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoekin batera eginen dira”.

Zortzi. 59. artikulua, 1. paragrafoa, eta 3. apartatuari paragrafo bat gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN GAINERAKOA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		4.458	13,00
4.458	579,54	5.572	22,00
10.030	1.805,38	11.145	25,00
21.175	4.591,63	14.488	28,00
35.663	8.648,27	15.603	36,50
51.266	14.343,37	15.603	41,50
66.869	20.818,61	22.290	44,00
89.159	30.626,21	50.151	47,00
139.310	54.197,18	55.724	49,00
195.034	81.501,94	139.310	50,50
334.344	151.853,49	oinarriaren gainerakoa	52,00"

“Apartatu honetan ezarritakoa aplikatzeko, banku-agiri bidez justifikatzen diren ordaindutako kopuruak bakarrik hartuko dira kontuan”.

Bederatzi. 62.2 artikulua.

"2. Etxebizitzaren alokairuagatik kopurua.

Ehuneko 15, gehienez ere 1.500 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak zergaldian ez izatea 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, salbuesiak bazter utzita.

– Zergaldian alokairu kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruak, salbuesiak kenduta, subjektu pasiboaren errenten 100eko 10 gaintitzea.

Kenkari hori 100eko 20koa izanen da, gehienekoa urteko 1.600 eurokoa izanik, zergaldian zehar subjektu pasiboaren ohiko bizileku den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako kopuruen gain, baldin eta subjektu pasibo horrek, aurreko baldintzak beterik, 30 urte baino gutxiagoko adina badauka edo 71.1.c) artikulua aipaturiko familia-unitate bateko kide bada, salbu eta, azken kasu horretan, aita eta ama elkarbizitzan badaude edo seme-alaba amankomunen gaineko zaintza partekatua badute”.

Hamar. 62.4 artikulua.

"4. Dohaintzengatik kopurua.

Maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako foru dekretuaren bidez onetsi zen Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean ezarritakoak.

Trataera bera izanen dute beren seme-alabek ikasten duten ikastetxe itunduetako irakaskuntza-kooperatibei subjektu pasiboek eginiko dohaintzek. Dohaintza horiek aipaturako testu bateginean 15., 16. eta 48. artikuluetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte”.

Hamaika. 62.8 artikulua, bigarren paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarteek administrazioan aurkezten dituzten aitorpenetan agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako ereduetan”.

Hamabi. 62.9.a), b) eta c) artikulua, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“a) Gutxienezko pertsonalarengatik:

Oro har, gutxienezko pertsonalarengatik kopurua subjektu pasibo bakoitzeko 1.084 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio:

a) 264 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 585 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 766 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute %33ko desgaitasuna edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.757 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen duenean %65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 150 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizirik, urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik, errenta salbuetsiak kenduta, jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

Lehena. 264 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea badu.

Bigarrena. 585 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga izanen da, familia-unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi.

Ulertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b') Lehena) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

- 483 euro urtean, lehenbizikoagatik.
- 512 euro urtean, bigarrenagatik.
- 732 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 981 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1.111 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 1.286 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu

ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatuzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 644 euro urtean. Zenbateko hori 1.170 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

Bigarrena. Zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak ez diren errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat, 1. ordinaletako kenkariaren zenbatekoa, subjektu pasibo bakoitzari dagokiona, honako eskala hau aplikatuzetik suertatzen den zenbatekoan handituko da:

a) 20.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: %40.

b) 20.000,01 eurotik 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: %40, ken subjektu pasiboak 20.000 eurotik gora duen errenta-gaindikinak azken kopuru horrekiko egiten duen proportzioa 50ekin biderkatzearen emaitza.

Emaitza gisa lortzen den portzentajea bi hamarrentara biribilduta adieraziko da.

3) Subjektu pasiboarekiko elkarbizitzaren parekotzat joko da haren ondorengo ahaideek harekiko duten menpekotasun ekonomikoa, salbu eta aplikatzekoa bada 59.3 artikuluan xedatutakoa.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haien adina zein ere den, 674 euro urtean, aurreko letren arabera bidezkoak diren zenbatekoek gain, baldin eta haiek urtean dituzten errentak, salbuetsiak kanpo, ez badira, kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak, frogatzen badute %33 edo gehiagoko eta %65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua. Zenbateko hori 2.360 eurokoa izanen da urtean, frogatutako desgaitasun-gradua %65 edo gehiagokoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, aurreko paragrafoan ezarritako errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako

terminoetan egindako tutoretza, harrera edo ordezkartzako kuradoretza kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak. Halaber, ondorengo ahaideekin parekatuko dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta harreran izan zituztenekin adin-nagusitasunera edo emantzipaziora arte elkarbizitzen jarraitzea libreki adosten duten pertsonak ere. Aipatu foru dekretuaren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Egoera hori eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak egiaztatu beharko du. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, subjektu pasiboak ebazpen judizial bidez esleiturik zaintza eta jagoletzaren araubidean dituen pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

Baldin bi subjektu pasibok edo gehiagok badute gutxieneko familiarrengatik kenkariak aplikatzeko eskubidea, horien zenbatekoa haien artean hainbanatuko da zati berdinetan, salbu eta b')2) letran ezarritako igoera. Ondorengo ahaideei dagokienez berdin jokatu da zaintza partekatua kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin edo ondorengoarekin, gutxieneko familiarrengatik kenkaria gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.

“c) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak zergaldian ordaindu dituen kopuruaren ehuneko 75, kopuru horiek dagozkienean honako pertsonak etxean zaintzeko lanetan diharduten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz enplegatzailearen kargura suertatzen diren Gizarte Segurantzarako kotizazioei:

a) Hamasei urte baino gutxiagoko ondorengo ahaideak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako moduan egindako tutoretza edo harreragatik subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, ebazpen judizial bidez subjektu pasiboaren zaintza eta

jagoletzaren pean edo ordezkartzako kuradoretzaren pean dauden pertsonak, lehengo egoeretan ez daudenak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotena artikulua honetako b) letrako a) edo c) letretan aurreikusitako gutxieneko familiarrengatik kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, ezkon-ahaidetasunezkoak direnak; anai-arrebak; osaba-izebak. Betiere, artikulua honen b) letrako a) edo c) letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu”.

Hamahiru. 62. artikulua, 12.e) apartatuaren azken paragrafoa eta 14.d) apartatuaren azken paragrafoa, foru lege honek indarra hartzean txostena egiteko duten inbertsioetarako ondorioekin.

“Kenkariaren oinarria txosten horretan egiaztatutako inbertsioen zenbatekoaren araberakoa izanen da, eta kenkaria txostena egiten den egunetik aurrera aurkeztu beharreko lehenengo autolikidazioan aplikatuko da”.

“Kenkariaren oinarria txosten horretan egiaztatutako inbertsioen zenbatekoaren araberakoa izanen da, eta kenkaria txostena egiten den egunetik aurrera aurkeztu beharreko lehenengo autolikidazioan aplikatuko da”.

Hamalau. 62.13 artikulua, a) letraren lehen paragrafoa aldatzea eta b) letraren azken paragrafoa kentzea.

“a) Ibilgailu berrietan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute 100eko 30eko kenkaria egiteko, baldin eta ibilgailu elektrikoak badira, eta 100eko 5eko kenkaria, berriz, ibilgailu hibrido entxufagarriak badira, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/858 (EB) Erregelamenduan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan zehaztutako kategoria hauetakoren batekoak badira.”

Hamabost. 68. quinquies artikulua, letrak: A.1, A.3 lehen paragrafoa, B.3 eta C.5, 2024ari oso-

osorik dagokion lehen hilekotik aurrerako ondorioekin.

“1. Dagokion kuota diferentziala finkatu ondoren, ohiko bizileku iraunkorra duen etxebizitzaren errentamendu-kontratu baten titularra den subjektu pasiboak, 23 urte eta 35 urte (horiek barne) bitarteko adina duenean, eskubidea izanen du errentamenduagatik zergaldian ordaindu duen errentaren 100eko 50eko kenkaria aplikatzeko, hilean 280 euroko gehieneko mugarekin”.

“3. Subjektu pasiboak ez du kenkari horretarako eskubiderik izanen baldin eta haren errentak, salbuetsiak barne, 22.000 euro baino gehiagokoak badira, eskatzailea familia-unitate bateko kidea ez bada banaka zenbatuta, edo, bestela, 33.000 euro baino gehiagokoak badira, familia-unitateko kide guztien errentak batera hartuta.

“3. 1.a) apartatuan ezarritako kenkariak ezin izanen ditu honako muga hauek gainditu:

a) Hilean 340 euro, subjektu pasiboaren familia-dirusarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen zenbatekoa baino gutxiagoak badira.

b) Hilean 280 euro, subjektu pasiboaren familia-dirusarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen zenbateko berekoak edo handiagoak badira eta adierazle horren zenbatekoaren 1,4 halako baino txikiagoak badira.

c) Hilean 220 euro, subjektu pasiboaren familia-dirusarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen 1,4 halako edo gehiagokoak badira eta adierazle horren 1,7 halako baino txikiagoak badira”.

“5. Aipatutako etxebizitzaren alokairu-prezioa ezin izanen da hilean 700 euro baino gehiagokoa izan”.

Hamasei. 75. artikulua, 4. araua.

“4^a. 71.1.c) artikuluan aipatzen diren familia-unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria, 62.9.a) artikuluan ezarria, 668 euro handituko da. Handitze hori ez da gertatuko aita eta ama elkarrekin bizi direnean, ez eta zaintza partekatua dagoenean ere”.

Hamazazpi. 78.3 artikulua, bigarren paragrafoa.

“Laguntza publikoen ondoriozko ondaregehikuntzak kobrantza gertatzen den zergaldiari

egotziko zaizkio. “Hori hala izanik ere, nekazari gazteen lehen instalaziorako Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nacionalean ezarritako laguntza publikoak, erabiltzen badira nekazaritzako sozietate-enpresen kapitalean partaidetza bat eskuratzeko, laurdenetan egozten ahalko dira, lortzen diren zergaldian eta hurrengo hiruretan”.

Hemezortzi. 80.2. artikulua, azken paragrafoa.

“Ez zaie atxikipenik eginen beka publikoen ondoriozko errentei eta Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginaren (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) I. tituluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatu behar zaien entitateek emandakoei, baldin eta, urtebetetik beherakoak badira eta, foru lege honen 7.h) artikulua arabera salbuetsita egon gabe, lan-etekintzat jotzen badira eta ordaindutako zenbatekoa urteko lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa bada”.

Hemeretzi. 85. artikulua, 1. apartatuko lehen paragrafoa eta 2. apartatua

“1. Hurrenez hurren 66. artikulua b) eta d) letretan aipatu diren atxikipenen, konturako sarreren, ordainketa zatikatuen eta kuoten batura, bai eta, kasua bada, IV. titulua III. kapituluaren jasozen diren kuota diferentzialerako kenkariena ere, handiagoa bada epearen barrenean aurkeztutako autolikidazioaren kuota baino, zerga gaietan eskuduna den departamentuak, kasua bada, behin-behineko likidazioa eginen du aitortpena aurkezteko epea bukatu eta ondoko sei hilabeteetan.”

“2. Autolikidazioaren edo, hala badagokio, behin-behineko likidazioaren ondoriozko kuota txikiagoa bada benetan atxikitako diru-kopuruaren, kontura egindako ordainketen eta, hurrenez hurren, 66. artikulua b) eta d) letretan aipatu diren kuoten eta, halakorik bada, IV. titulua III, kapituluaren aurreikusten diren kuota diferentzialeko kenkari batura baino, zerga gaietan eskuduna den departamentuak ofizioz itzuliko du kuota horren gaineko gaindikina, deusetan galarazi gabe bidezkoak diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak gero egiteko aukera”.

Hogei. 86.5. artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“5. Zerga honen subjektu pasiboek, baldin eta azaroaren 18ko 41/2003 Legean (desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko eta, xede berberarekin, Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea eta zerga arloko araudia aldatzeko) edo Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa ones-

ten duen martxoaren 1eko 1/1973 Legearen 44. eta 45. legeetan araututako ondare babestu baten titular badira, aitorpen bat aurkeztu beharko dute, non adieraziko baita ondare horren osaera, jasotako ekarpenak eta zergaldian egindako xedapenak, erregelamenduz ezartzen den moduan”.

Hogeita bat. Laugarren xedapen gehigarria, 5. puntua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“5. Pertsona batek parte hartzen badu ondare babestuei ekarpenak egiteko egintzen formalizazioan, azaroaren 18ko 41/2003 Legearen 3. eta 4. artikuluetan eta Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren 44. legean xedatutakoaren arabera, ekarpen horiei buruzko aitorpena aurkeztu beharko du, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Zerga arloan eskumena duen departamentuaren titularrak ezarritako tokian, moduan eta epean eginen da aitorpena”.

Hogeita bi. Hamargarren xedapen gehigarria, c) letra, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“c) Pentsio-plan eta -funtzen gaineko araudian aurreikusitako ez bestelako kasuetan, banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenen ondoriozko eskubide ekonomikoak xedatzeak, osorik edo zati batean, 55.1.2. b) artikulua-ren bigarren paragrafoan ezarritako ondorioak izanen ditu”.

Hogeita hiru. Hamalauugarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hamalauugarren xedapen gehigarria. Ezgaitasunak dituzten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenen araubide fiskala.

Desgaitasuna duten pertsonen ondare babestura egindako ekarpenei, zeinak araututa baitaude azaroaren 18ko 41/2003 Legean (desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko eta, xede berberarekin, Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea eta zerga arloko araudia aldatzeko) edo Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa onesten duen martxoaren 1eko 1/1973 Legearen 44. eta 45. legeetan, honako zerga-araubide hau aplikatuko zaie:

1. Desgaitasuna duen subjektu pasiboan.

a) Ekarleak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean ekarle bakoitzeko 10.000 euro bitarteko kopurua eta, osotara, 24.250 bitarteko kopurua lan etekintzat hartuko da.

Horrez gainera, aurreko paragrafoan ezarritako mugak gorabehera, ekarleak sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean 10.000 euro arteko kopurua lan-etekintzat hartuko da, betiere sozietateen gaineko zergan gastu hori kenkari gisa agertu bada.

Etekin horiek desgaitasuna duen subjektu pasiboaren zerga-oinarrian sartuko dira, ondare babestuaren titularrarenean, hain zuzen. Etekinetako zenbatekoa eta, honelakorik badago, hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1.b) apartatuan aipatzen diren errenta gisako prestazioak batu ondoren, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako hiru gaitzen duen zenbatekoa hartuko da aintzat. Ekarpentzako sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek egiten dituztenean, eta haien enplegatuen ahaideen, ezkontideen edo enplegatuek tutoretza edo harrera araubidean beraien kargu dituzten pertsonen ondare babestuaren alde badira, lan-etekinen izaera izanen dute, bakar-bakarrik ondare babestuaren titularrarentzat.

Letra honetan azaldu diren etekinetan ez da atxikipenik edo konturako dirusarrerarik egin beharko.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenen kasuan, ondare babestuaren titularrak den eta desgaitasuna duen subjektu pasiboaren ekarlearen tokian subrogatuko da kasuko ondasun eta eskubideen erosketaren balioa eta eguna finkatzeari dagokienez, baina ondorengo eskualdaketetan ezin izanen zaio aplikatu zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Diruzkoa ez den ekarpenetik oinordetza eta dohaintzei buruzko zergaren menpe dagoen zatia-ri 42. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

c) Eskuratzailarentzat lan etekinen izaera duen ekarpenen zatia ez da oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zergaren menpe egonen.

2. Ekarleari.

a) Gradu guztietako zuzeneko ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek desgaitasuna duen subjektu pasibo baten ondare babestuari egindako ekarpenek eskubidea emanen dute ekarleak zerga-oinarrian kenkaria egiteko, urtean 10.000 euro gehienez. Berdin jokatuko da ekarpena subjektu pasiboaren ezkontideak egiten badu edo hura beraien kargu duten beste pertsona batzuek, tutoretza araubidean, harrera araubidean (Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan arautua) edo beste autonomia erkidego bateko antolamendu juridiko zibilean izaera bera duten beste instituzio batzuen araubidean.

Ondare babestu bakoitzari diru-ekarle guztien artean egindako ekarpenei dagozkien kenkariak, urtean, ezin dira 24.250 eurotik gorakoak izan. Kopuru hori gaindituz gero, ekarpen bakoitzari dagokion kenkaria gutxitu beharko da, modu proportzionalan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren murriztapenak 55.1 artikuluan ezarritakoekin batera aplikatuko dira.

b) Aurreko letran aurreikusitako mugatik goitik ekarpenek kenkaria izateko eskubidea emanen dute hurrengo bost zergaldietan, harik eta, haietako bakoitzean, kenkariaren gehieneko mugara ailegatu arte.

Zergaldi berean baldin badaude ekitaldi horretan egindako ekarpenengatik kuota-kenkariak eta aurreko ekitaldietatik egiteko dauden beste kenkari batzuk, lehenbizi aurreko ekitaldietako ekarpenen ondoriozko kenkariak eginen dira, kenkariaren gehieneko muga iritsi arte.

c) Diruzkoak ez diren ekarpenak direnean, ekarpenaren zenbatekotzat hartuko da Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginaren (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) 16. eta 19. artikuluetan ezarritakoa.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako subjektu pasiboek egiten dituzten ekarpenak beren enpresa edo lanbide jardueri atxikita dauden elementuak direnean, ez dute kenkaria egiteko eskubiderik sortuko.

Ondare babestuaren titularra den eta desgaitasuna duen subjektu pasiboak berak egindako ekarpenek ez dute kenkaria egiteko eskubidea emanen, inolaz ere.

3. Ondasun edo eskubideen erabilera.

Desgaitasunen bat duen pertsonaren ondare babestuari egindako ekarpeneko ondasun edo eskubideak ekarpena egin den zergaldi berean edo hurrengo lau zergaldietan erabiliz gero, beharkizun fiskal hauek sortuko dira:

a) Ekarlea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa baldin bada, zerga-oinarrian egindako murrizketei dagozkien kopuruak sartu beharko ditu ondasun-eskubideak erabiltzen hasten den zergaldiko zerga-oinarrian, hots, egindako erabiltzeei eta bidezko berandutza-korrituei dagozkienak.

b) Ekarlearen izaera edozein delarik ere, ekarpena jaso duen ondare babestuaren titularrak

ekarpena jaso zuen zergaldian 1. apartatuan xedatutakoaren arabera sartu gabe utzi zuen kopurua sartu beharko du ondasun-eskubideak erabiltzen diren zergaldiko zerga-oinarrian, gehi bidezko diren berandutza korrituak.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo baten ekarpena denean, bere langileen ahaideen, ezkontideen edo –xedapen gehigarri honen 1.a) apartatuan aipatzen den tutoretza edo harrera araubidean– beraien kargu duten beste pertsona baten ondare babestuan alde egindakoa, aurreko paragrafoan azaldutako beharkizuna kasuan kasuko langileak izanen du.

Letra honetan eta a) letran ezarrita dagoen integrazteko betebeharraren ondorioetarako, 55.1.2 b) artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

4. 3. apartatuan ezarritako ondorioetarako, ondasun edo eskubideetan homogeneotasuna gertatzen bada, lehenbizi eman zirenak erabili direla ulertuko da.

Ondare babestuaren titularra edo ondasun-ekarlea hiltzen bada ez da apartatu honetan ezarritakoa aplikatuko.

5. Foru lege honen ondorioetarako, ulertuko da ezen, desgaitasuna duen zer subjektu pasiboren onurarako eratzten den ondare babestua, huraxe dela ondare hori osatzen duten ondasun eta eskubideen titularra, eta titular hori ez diren beste pertsona batzuek ondare horri egindako ekarpenak harentzako irabazizko eskualdaketak direla”.

Hogeita lau. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Kapital higiezinaren etekin garbi positiboaren murriztapena.

Foru lege honen 25.2 artikulua hiru garren paragrafoan xedatutako murriztapena, Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen laugarren artikulua emandako idazketan, ez da aplikatuko harik eta 20/2022 Foru Legearen 90. artikuluan jasotzen den Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa abiatzen den zergaldia hasi arte eta Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 3 quinquies artikuluan aipatzen den alokairu jasangarritasunaren indizea zehaztu ahal izan arte”.

Hogeita bost. Berrogeita batgarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. 2023an likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko eskala.

2023ko zergaldian, likidazio-oinarri orokorrari honako eskala honetan adierazten diren tasak ezarriko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN GAINERAKOA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		4.328,00	13,00
4.328,00	562,64	5.410,00	22,00
9.738,00	1.752,84	10.820,00	25,00
20.558,00	4.457,84	14.066,00	28,00
34.624,00	8.396,32	15.149,00	36,50
49.773,00	13.925,71	15.149,00	41,50
64.922,00	20.212,54	21.640,00	44,00
86.562,00	29.734,14	48.691,00	47,00
135.253,00	52.618,91	54.100,00	49,00
189.353,00	79.127,91	135.252,00	50,50
324.605,00	147.430,17	oinarriaren gainerakoa	52,00”

Hogeita sei. Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, 1. eta 2.b) puntuak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“1. Salbuetsirik egonen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak birgaitze babestuko obretarako emandako dirulaguntza publikoak, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan xedatuaren indarrez, bai eta beste administrazio publiko batzuetatik kontzeptu berengatik jasotzen diren dirulaguntzak ere, baldin eta dirulaguntza horiek esleitzen bazaizkie zergaldian 30.000 eurotik gorako errentarik (salbuetsiak kontuan hartu gabe) ez duten subjektu pasiboiei.

Hala ere, dirulaguntza horiek salbuetsita egonen dira 2023ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra arte, aurreko paragrafoan ezarritako errenta-mugarik aplikatu gabe”.

“b) Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita zuzeneko laguntzak ematea autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei pizgarri-programak gauzatzeko, lotuta daudenak autokontsumoarekin eta energia-iturri

berriztagarrien bidez biltegitratzearekin, baita bizitegi-sektorean energia berriztagarriak erabiltzen dituzten sistema termikoak ezartzearekin ere, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan”.

Hogeita zazpi. Hirurogeigarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hirurogeigarren xedapen gehigarria. Dirusarrera eta ondare gutxi dituzten pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza-lerroa.

Zergatik salbuetsita egonen da ordainketa bakarreko 200 euroko laguntza, araututa dagoena abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren 74. artikuluan (errege lege dekretu horrek hizpide ditu Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartearen berreraikuntzari laguntzeko eta beste zaurgarritasun egoera batzuetarako neurriak”.

Hogeita zortzi. Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria. Zordunak konkurtso-prozeduretan lortutako errenten salbuespena.

Zerga honetatik salbuetsita egonen dira zorrak ordaintzeko kitatze eta emateen ondorioz zordunek lortutako errentak, baldin eta zorrak jarduera ekonomikoak gauzatzetik ez badatoz eta honako hauetan ezarri badira: judizialki onartutako hitzarmen batean, judizialki homologatutako berregituratze-plan batean, ordainketen judizioz kanpoko akordio batean edo ordaindu gabeko pasibotik libratzearen ondorioz, hori guztia maiztaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Konkurtso Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera".

Hogeita bederatzi. Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. Etxebizitza bat alokairu-araubidean eskuratzea errazteko kenkaria 2024an.

2024. urtean zehar, honako hauek aplikatzen ahalko dute emantzipaziorako errentamenduagatiko kenkaria, 68. quinquies.A artikuluan zehazten dena: Nafarroan errolaturik egonda eta kenkariaren onuradun izateko gainerako baldintzak beteta, adinari dagokiona salbu, 2022ko urtarrilaren 1ean edo geroagoko data batean enplegu eskatzaile langabetu gisa inskribaturik agertzen diren pertsonak.

Kenkaria 2024ko abenduaren 31ra arte ematen da".

Hogeita hamar. Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. 2023an aplikatu beharreko gutxieneko pertsonal eta familiarrengatiko kenkaria.

2023an, honako hauek izanen dira kenkari pertsonalak eta familiarrak:

a) Gutxieneko pertsonalarengatik:

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 1.052 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio:

a') 256 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 568 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 744 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute %33ko desgaitasuna edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.677 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen duenean %65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 100 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatiko kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizirik, urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik, errenta salbuetsiak kenduta, jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

Lehena. 256 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea badu.

Bigarrena. 568 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga izanen da, familia-unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi.

Ulertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b') Lehena) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

- 469 euro urtean, lehenbizikoagatik.
- 497 euro urtean, bigarrenagatik.
- 711 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 952 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1.079 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 1.249 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu

ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeke.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 625 euro urtean. Zenbateko hori 1.136 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

Bigarrena. Zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak ez diren errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat, 1. ordinaletako kenkariaren zenbatekoa, subjektu pasibo bakoitzari dagokiona, honako eskala hau aplikatuzetik suertatzen den zenbatekoan handituko da:

a) 20.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: %40.

b) 20.000,01 eurotik 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: %40, ken subjektu pasiboak 20.000 eurotik gora duen errenta-gaundikin azken kopuru horrekiko egiten duen proportzioa 50ekin biderkatzearen emaitza.

Emaitza gisa lortzen den portzentajea bi hamarrentara biribilduta adieraziko da.

3) Subjektu pasiboarekiko elkarbizitzaren parekotzat joko da haren ondorengo ahaideek harekiko duten menpekotasun ekonomikoa, salbu eta aplikatzekoa bada 59.3 artikuluan xedatutakoa.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haien adina zein ere den, 654 euro urtean, aurreko letran arabera bidezkoak diren zenbatekoez gain, baldin eta haiek urtean dituzten errentak, salbuetsiak kanpo, ez badira, kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak, frogatzen badute %33 edo gehiagoko eta %65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua. Zenbateko hori 2.291 eurokoa izanen da urtean, frogatutako desgaitasun-gradua %65 edo gehiagoko bada.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, aurreko paragrafoan ezarritako errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako

terminoetan egindako tutoretza, harrera edo ordezkartzeko kuradoretza kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak. Halaber, ondorengo ahaideekin parekatuko dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta harreran izan zituztenekin adin-nagusitasunera edo emantzipaziora arte elkarbizitzen jarraitzea libreki adosten duten pertsonak ere. Aipatu foru dekretuaren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Gizarte-gaien arloko eskumena duen departamentuak eskaini beharko du egoera horren frogara. Halaber parekatuko dira ondorengo ahaideekin subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean epailearen ebazpen bitartez dauden pertsonak, aurreko egoerez bestelakotzat daudenak.

Baldin bi subjektu pasibok edo gehiagok badute gutxieneko familiarrengatik kenkariak aplikatzeko eskubidea, horien zenbatekoa haien artean hainbanatuko da zati berdinetan, salbu eta b')2) letran ezarritako igoera. Ondorengo ahaideei dagokienez berdin jokatuko da zaintza partekatutaren kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin edo ondorengoarekin, gutxieneko familiarrengatik kenkaria gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.

c) 75. artikuluko laugarren erregelak aipatzen duen gutxieneko pertsonalarengatik kenkariaren gehikuntza 649 eurokoa izanen da".

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen manu hauek aldatzen dira, eta aurrerantzean testu hau izanen dute:

Bat. 31. artikuluko 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzea eta 4. apartatua kentzea.

"1. Betebehar pertsonalengatik zergaren mende dauden subjektu pasiboen kasuan, zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriko baturaren %65etik goitikoa izaten ahal, eta, ondorio hauetarako, ez

da kontuan hartuko izaeragatik edo xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapean dauden etekinak sortzeko ahalmenik ez duten ondare-elementuei dagokien kuotaren zatia”.

Bi. 32.1 artikulua, lehenengo paragrafoa aldatzea eta azkena kentzea.

“1. Ekarpenak egiteko betebeharrak pertsonalaren kasuan, eta ezertan galarazi gabe barne ordenamendua osatzen duten nazioarteko itun edo hi-

tzarmenetan xedatutakoa, bi zenbateko hauetatik txikiena kenduko da zerga honen kuotatik, Espainiatik kanpo dauden ondasunengatik eta Espainiatik kanpo erabili edo bete behar diren eskubideengatik:”

Hiru. Lehen xedapen gehigarria. Ondarearen gaineko Zergaren 2024ko eskala.

2024ko zergaldian zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, GEHIENEZ ERE (euroak)	KUOTA OSOA (eurotan)	LIKIDAZIO-OINARRIAREN GAINERAKOA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
0,00	0,00	155511,88	0,16
155511,88	248,82	155511,88	0,24
311023,76	622,04	311023,76	0,40
622047,53	1866,13	622047,53	0,72
1244095,06	6344,87	1244095,06	1,04
2488190,11	19283,46	2488190,11	1,36
4976380,22	53122,84	4976380,22	1,68
9952760,45	136726,02	1051024,05	2,00
11003784,50	157746,50	Hortik gora	3,50”

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 13.2.a) artikulua.

“a) Irabazi-asmorik gabeko entitate eta erakundeak, aplikatu behar bazaie Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginaren I. tituluan ezarritako zerga-araubide berezia (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori)”.

Bi. 23.1.e) artikulua, lehenbiziko paragrafoa.

“e) Dohaintzak eta eskuzabaltasunak, ezertan galarazi gabe fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean aurreikusitakoa (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako foru dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori)”.

Hiru. 24. artikulua, 1. apartatua, hirugarren paragrafoa, eta 6.a) apartatua, azken paragrafoa kentzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Mozkin operatiboa zehaztuko da abiapuntu-tzat harturik ekitaldiko galera-irabazien kontuko ustiapen-emaitza, Merkataritza Kodeari eta garpena egiteko gainerako kontabilitate-araudiari jarraikiz zehaztua, eliminatuz ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioaren dirulaguntzen eta besteren egozpena eta ibilgetuaren narriadura eta besterentzeengatik emaitza, eta gehituz ondare-tresnetako partaidetzetik diru-sarrera finantzarioak, baldin eta badagozkie dibidenduei edo halako entitateetako partaidetzei non partaidetza-portzentajea, zuzeneko edo zeharkakoa, gutxienez ere ehuneko 5ekoa baita, salbu eta partaidetza horiek eskuratu direnean halako zorrek zeinen gastu finantzarioak ez baitira kengarri 23.1.g) artikulua aplikazioa tarteko. Ez dira inola ere mozkin operatiboaren parte izanen zerga honen zerga-oinarrian sartu ez diren diru-sarrerak, gastuak edo errentak”.

Lau. 40.1.a) artikulua, f') letra aldatzea, egungo edukia g') letrara pasatuko baita, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotzen diren laguntzetarako ondorioekin.

“f) Klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideetarako laguntzak (eko-araubideak)”.

Bost. 41.5 artikulua.

“5. Artikulu honetan adierazitakoa ez zaie aplikatuko banku-fundazioei, baldin eta atxikitzen bazaizkio Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginaren I. tituluaren ezarritako zerga-araubide bereziari (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori)”.

Sei. 45.2 artikulua, lehen paragrafoa aldatzea; 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“2. Aipatu erreserbara bideratutako diru-kopurua 3. apartatuan aipatzen diren ondare-elementuen eskurapenean gauzatuko da, erreserba hornitzeko erabili diren mozkinak zer ekitalditakoak izan eta ekitaldi horren aurreko urtebetetik ekitaldia itxi ondoko bi urteetara bitarteko epean”.

Zazpi. 51.4 artikulua.

“4. %10eko tasa ordainduko dute baldintzak betetzen dituzten entitateek, baldin eta aukeratu badute Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginaren I. tituluaren ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzea (maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori)”.

Zortzi. 63. artikuluar 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Artikulu honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko, entitate babes-hartzaileek Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote, zerga-araudian ezarritako ereduaren, babesletza kontratuaren ondoriozko publikitate-gastuen balorazioa”.

Bederatzi. 64.B).1.a artikulua lehen paragrafoa.

“a) Entitatearen jardura ekonomikoari atxikitako ibilgailu berrietan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute %30eko kenkaria egiteko, baldin eta ibilgailu elektrikoak badira, eta %5eko kenkaria, berriz, ibilgailu hibrido entxufagarriak badira, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/858 (EB) Erregelamenduan eta Europako Parlamen-

tuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan zehaztutako kategoria hauek batekoak badira:”

Hamar. 92.1 artikulua, paragrafo bat gehitzea; 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“93. artikuluan aurreikusitako hobariak aplikatzeko, ulertuko da ezen Nafarroan Etxebizitza Izaiteko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikuluan araututako sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzatko errentamenduari eskainitako etxebizitzetatik lorturiko errentak eratorriak direla etxebizitza-errentamenduko jardura ekonomiko batean ariztetik”.

Hamaika. Hamabigarren xedapen iragankorra, bigarren paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Egin gabe dauden kenkariak aplikatzeko, 67.4 5 eta 7 artikuluetan xedatutakoa errespetatuko da”.

Hamabi. Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2024an hasten diren zergaldietan likidazio oinarri negatiboak murrizteko mugak”.

Laugarren artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina.

Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenen testu bategineko manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 11. c) artikulua b') letra aldatzea.

“b') Eskuraketa mantentzea kausatzailea hil eta hurrengo bost urteetan, salbu eta eskuraketa epe horren barruan hiltzen bada edo enpresa edo erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada”.

Bi. 12. d) artikuluko 1. apartatuaren c') letra aldatzea.

“1. Eskurapena bost urtez jarraian eduki behar du, eragiketa dokumentatzen duen eskuraketa publikoaren datatik aurrera, salbu eta eskuraketa epe horren barruan hiltzen bada edo enpresa edo erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada”.

Hiru. 32 bis artikulua, izenburua

“32 bis artikulua. Desgaitasuna duten subjektu pasiboen "mortis causa" eskurapenak”.

Lau. 46.5. artikulua, lehenbiziko lerroaldea.

“5. Fideikomisoetan, jaraunsle fiduziarioari jaraunspeneko ondasunak jabetzan uzten bazaizkio, kargaren bat kendu behar bada ere, Kode Zibilarren 788. artikuluan xedatu bezala, jaraunspen bidez jabetza eskuratzeagatik likidatuko da zerga. Horrelakoetan, karga kenduko da, kendu ahal bada, eta horregatik zerga ordainduko du jaraunslari ezarritako kargaren ondoriozko onura eskuratzen duenak, ezaguna bada, egintzari juridikoki dagokion tituluarengatik edo kontzeptuarengatik; onuraduna ezaguna ez bada, jaraunslari ordainduko du kontzeptu horri dagokion zerga, eta, aldiz, onuraduna ezaguna bada, hari jasanarazten ahalko zaio kargagatik ordaindutako Zerga”.

Bost. Bigarren xedapen gehigarria, izenburua eta 1. paragrafoa.

“Bigarren xedapen gehigarria. Pertsona batek desgaitasuna duela jotzea eta desgaitasunaren gradua egiaztatzea.

1. Zerga honen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak”.

Bosgarren artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bateginaren manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 8.1.b) 2. artikulua.

“2. 100eko 4ko tasa aplikatuko da, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza denean eta despopulazio arriskuan dagoen udalerrri batean kokatuta dagoenean, baldin eta eskualdaketen ondorioz etxearen jabari osoa eskuratzen bada, eta inoiz ez lehenago usufruktuan eta jabetza soilan banaturiko jabariaren kontsolidazioaren ondorioz; toki administrazioaren eta despopulazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez ezarriko da zein diren udalerrri horiek”.

Bj. 21. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Bermedun mailegua eratzeko edo nobazioko eskriturak direnean, mailegua ematen duen pertsona edo entitatea izanen da subjektu pasiboa”.

Hiru. 35.I.B) artikuluari 35. idatz-zatia gehitzea.

“35. Sociedad Anónima Estatal de Caución Agraria Estatuko merkataritza sozietatearekin izenpetutako abal-kontratua”.

Lau. 35.II.16. artikulua.

“16. Maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako foru dekretuaren bidez onetsi zen Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zergaraubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginako 11. artikulua”.

Seigarren artikulua. Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 34.1. eta 2. artikulua.

“1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, hondakinak hondakindegian ezabatzeko edo errausteko edo koerrausteko entregatzen dituztenak. Izaten ahal dira pertsona fisikoak edo juridikoak edo Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak.

2. Zergadunen ordezkio izanen dira hondakindegien edo hondakinen errausketarako edo koerrausketarako instalazioen kudeatzaileak. Izaten ahal dira pertsona fisikoak edo juridikoak edota 13/2000 Foru Legearen 25. artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak”.

Bj. 37.1.a) 3. artikulua.

“3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan zehaztutakoak ez diren hondakinak badira:

a) Oro har: 15 euro tona metrikoko.

b) Hondakinak aldeztu aurreko tratamendutik salbuetsitakoak badira, uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, %75 baino gehiagoko hondakin geldoen osagaia dutenak: 3 euro tona metrikoko hondakin geldoen zatia, eta 15 euro tona metrikoko gainerakoa.

c) Beste mota bateko hondakinak badira, %75 baino gutxiagoko hondakin geldoen osagaia dutenak: 1,5 euro tona metrikoko hondakin geldoen zatia, eta 15 euro tona metrikoko gainerakoa”.

Hiru. 37.2 artikulua.

“2. Hondakinen errausketarako instalazioen titularrek, 1. apartatuko d) eta e) letretan ezarritako zerga-tasak aplikatzeko, Nafarroako Gobernuak egindako jakinarazpena izan beharko dute. Jakinarazpen horretan adieraziko dira energia-

efizientziaren balioa eta eragiketaren sailkapena (D10 edo R01 gisa sailkatua dagoen), Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko eta industria isuriei buruzko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoaren arabera”.

Lau. 38.1.4. artikulua, lehen paragrafoa eta 5. lehen paragrafoa.

“1. Zergadunaren ordezkoez edo, hala dagokionean, zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, zerga kuota kalkulatu, eta dagokion diru-sarrerara egin, betiere tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak foru agindu baten bidez ezarritako moduan, tokian eta epeetan”.

“4. Hondakindegien edo hondakinen errausketarako edo koerrausketarako instalazioen kudeatzaileak diren subjektu pasiboek datadun erregistro bat eraman beharko dute utzitako, erraustutako eta koerrausutako hondakinei buruz. Betebehar hori betetzat joko da Ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan aipatzen den artxibo kronologikoa eramaten bada”.

“5. Hondakindegien eta errausketarako edo koerrausketarako instalazioen kudeatzaileak behartuta daude instalazio publiko edo pribatuetan, errausteko edo koerrausutako edo bertan isurtzeko, entregatzen diren hondakinen pisaketa-datuak deklaratu eta frogatzera”.

Bost. Lehen xedapen iragankorra.2

“2. Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa sortu bitartean, Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoak bere gain hartuko ditu foru lege honek aipatu erakundeari esleitzen dizkion eginkizunak eta betebeharrak Hondakinen Funtsa urtero banatzeko nahitaezko kontsultari eta gainerako lankidetzeta- eta aholku-eginkizunei dagokienez”.

Zazpigarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren manu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 9.1.b) artikulua.

“b) Eskubidea du itzul dakizkion zuzenez kontra egindako diru sarrerak eta ofizioz tokatzen direnak, eta orduan foru lege honetako 50.2.c) artikulua aurreikusten duen berandutza interesa paga dakion, hartarako errekerimendurik egin gabe ere.

59. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Nafarroako Foru Ogasunak ordainketa atzeratu egingen du, baldin eta subjektu pasiboak ez baditu bere tributu-betebeharrak egunean; hain zuzen ere, betebehar horiek bete arte atzeratuko du ordainketa.

Itzulketak horiei dagokienez, subjektu pasiboak Nafarroako Foru Ogasunarekiko bere tributu-betebeharrak egunean ez dituen epeetan, ez da berandutze-interesik sortuko. Era berean, prozeduran subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen gainerako atzerapen guztiak ez dira kontuan hartuko sortutako berandutze-interesaren epea kontatzeko orduan. Zehazki, ikuskapen prozeduretan erabakitako itzulketetan, ez dira zenbatuko 139. artikulua-ren 4. eta 5. apartatuetan zehazten diren etenaldien eta luzapen aldien egunak”.

Bi. 65 bis b) artikulua.

“b) Zentsu eta erregistroko datuak ofizioz zuzentzea, egiazkoak edo zehatzak ez direla frogatuz gero. Zuzenketa hori izan daiteke aipatu zentsu eta erregistroetan baja ematea, kautelaz edo behin betiko”.

Hiru. 68. artikulua, i) letra gehitzea; foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten diren arau-hausteetarako izanen ditu ondorioak.

“i) Jarduera ekonomikoak garatzen dituen pertsona edo entitate bat xede duen ikuskapen prozedura baten barnean, Zerga Administrazioako funtzionarioei bidegabe ukatzea edo galaraztea finka edo lokaletan sartzera edo haietan egotea, edo zerga betebeharrekin zerikusia duten lokal, makina, instalazio eta ustiategiak aztertzea”.

Lau. 77. artikulua, 6. apartatua gehitzea; foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten diren arau-hausteetarako izanen ditu ondorioak.

“6. 68.i) artikuluan ezarritako arau-haustea diru-isun proportzional batekin zehatuko da: arau-haustea egiten den unean aitorten aldia bukatua duen azken ekitaldiari dagokion negozio zifraren ehuneko 2 halakoa; gutxienez 20.000 euro eta gehienez 600.000 euro”.

Bost. 88 artikulua.

“88. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko ditu bidezko diren zenbatekoak, tributu bakoitzaren araudian ezarritakoaren arabera. Iragan baldin bada tributu bakoitzaren araudian ezarritako epea, eta, edozein kasutan, sei hilabeteko epea, eta, Zerga Administrazioari egoztekoa den motibo bat tarteko, ez bada agindu itzuli beharrekoa pagatzea, zergadunak eskubidea izanen du 50.2.c) artiku-

luan araututako berandutze interesa kobratzeko, horretarako errekerimendurik egin beharrik gabe. Horri dagokionez, interes hori sortuko da Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egiteko duen epea bukatzen denetik dagokion itzulketa pagatzea agintzen den egunera arte.

59. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Nafarroako Foru Ogasunak ordainketa atzeratu eginen du, baldin eta subjektu pasiboak ez baditu bere tributu-betebeharrak egunean; hain zuzen ere, bete-behar horiek bete arte atzeratuko du ordainketa.

Ez da berandutze-interesik sortuko subjektu pasiboak Nafarroako Foru Ogasunarekiko tributu-betebeharrak egunean izan ez dituen epeetan. Era berean, ordainketa-prozeduraren gainerako atzerapen guztiak, subjektu pasiboari egotz dakizkiokeenak, ez dira kontuan hartuko berandutze-interesen sortzapen-epea kontatzeko orduan. Zehazki, ikuskapen prozeduretan erabakitako itzulketetan, ez dira zenbatuko 139. artikuluan 4. eta 5. apartatuetan zehazten diren etenaldien eta luzapen aldien egunak”.

Sei. 103.1. artikulua, e) letra gehitzea.

“e) Pertsona juridikoek edo entitateek beren benetako titularren identifikazioa jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari. Horretarako, benetako titulartzat hartuko dira Kapital Zuriketari eta Terrorismoaren Finantzaketari Aurrea Hartzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan arabera definitutakoak”.

Zazpi. 105.1.m) artikulua.

“m) Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoarekin lankidetzan aritzea, prozesu penal jakin batean enbargatu edo konfiskatu daitezkeen ondasunak eta eskubideak aurkitzeko beharrezkoak diren datuak, txostenak edo aurrekariak lagatzeko, inguruabar hori frogatu ondoren”.

Zortzi. 113.3 artikulua.

“3. Likidazio horiek egiteko, kudeaketa organoek behar diren egiaztapen laburtu guztiak egiten ahal dituzte.

Zerga Administrazioak bidezkoak diren egiaztapenak egiteko, zergapekoak erakutsi beharko ditu, horrela eskatzen bazaio, tributu arauetan ezarritako erregistro eta dokumentuak, izaera ofizialeko beste edozein liburu, erregistro edo dokumentu eta liburu, merkataritzako kontabilitatearen kopia barne dela, bai eta liburu, erregistro edo dokumentu horietako eragiketak frogatzeko balio duten fakturak eta dokumentuak ere.

Kontabilitatearen azterketa mugatuko da hartan agertzen dena eta Zerga Administrazioaren

esku dagoen informazioa, prozeduran lortutakoa barne, bat datozela egiaztatzen.

Kontabilitatearen azterketak ez du eragotziko, ezta mugatuko ere, haren xede diren eragiketak aurrerago egiaztatu ahal izatea ikuskapen prozedura batean.

Kudeaketa organoek ezin izanen diete, inolaz ere, hirugarrenei eskatu finantza-mugimenduei buruzko informaziorik, baina zergapekoari eskatzen ahalko diote zerga-betebehar baten oinarrian edo kuotan eragina duten finantza-eragiketak agiri bidez justifikatzeko”.

Bederatzi. 150.3 artikulua.

“3. Sarrera bidegabekoa eragin zuen egintza administratiboa irmoa denean, itzulketa eskatzeko bide bakarra egintza horren berrikuspena eskatu edo sustatzea izanen da, eta horretarako, 145. artikuluko a), c) eta d) letretan jasotzen diren berrikuspen prozedura bereziak erabiliko dira, edo 159. artikuluan araututako berrikuspeneko errekurtso berezia”.

Hamar. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria, B) .1, h) letra gehitzea; B) .3, c) letra gehitzea; eta B) .4, d) letra gehitzea; foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera hasten diren prozeduretan izanen ditu ondorioak.

“h) Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko edo hidrokarburoen gaineko zergen eremu objektiboetako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituztenen erregistroan alta eskatzeko prozedura”.

“c) Pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzea eskatzeko prozedura”.

“d) Identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzea eskatzeko prozedura”.

Hamaika. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko egiten diren eskaerei, baldin eta diru-bilketaren kudeaketa lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie”.

Zortzigarren artikulua. Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bategina.

Ondotik ematen den bezala geldituko dira idazirik Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bes-telako entitateen zerga-araubide bereziko xedape-nen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien Testu Bategineko ondoko manuak (testu bategin hori onetsi zen maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez):

Bat. 34.b) artikulua.

“b) Helburu sozialak izatea, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arlokoak. Betiere ulertuko da gai hauei lotutako xedeak edo jarduke-ta-eremuak dituzten entitateek helburu sozialak dituztela: desgaitasuna, mendekotasuna, bazter-keta, adingabeentzako arreta gizarte zerbitzuetan, presoak eta preso ohiak, etxegabeak, etorkinak, gutxiengoak, droga-mendekotasunen eta beste adikzio batzuen prebentzioa eta tratamendua, adi-neko pertsonak, garapenerako lankidetzaz, emaku-meen eta gizonen arteko berdintasuna, eta ema-kumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematea eta arlo horretako iker-keta, prebentzioa, sentsibilizazioa eta detekzioa. Betiere, gai horiek direla eta, inskribaturik egon behar dute gizarte zerbitzuen eta baimen berariaz-koen erregistroan, garapenerako lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz Kan-poko Erakundearen Erregistroan edo Nafarroako Foru Komunitateko Emakume Elkartearen Zen-tsuan”.

Bi. 35.3.b) artikulua, lehenbiziko paragrafoa.

“b) Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari orokorra, baldin entitate sozialen helbu-ru soziala bada emakumeen eta gizonen berdinta-sunaren arloa, eta emakumeen kontrako indarke-riaren biktima diren emakumeei arreta ematea eta arlo horretako ikerketa, prebentzioa, sen-tsibilizazioa eta detekzioa”.

Hiru. 43.1 artikulua.

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-ren zergadunek eskubidea izanen dute mezenas-go mota bakoitzari ematen zaion balioaren lehen 150 euroen ehuneko 80 kentzeko zergaren kuota-tik. 150 eurotik gorako zenbatekoei ehuneko 35eko kenkaria aplikatzen ahalko zaie. Subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldi bakoitzeko aplika-tuko da 150 euroko muga”.

La. 44.1 artikulua, a) eta b) letren lehen para-grafoak.

“a) Zerga-oinarria zehazteko, mezenasgo mota bakoitzaren balorazioaren zenbatekoa hartuko da partida kengarritzat. Zerga-oinarrian kentzen ahal

den zenbatekoa izanen da honako muga haueta-ko handiena adinakoa, gehienez ere:”

“b) Gainera, eskubidea izanen dute, zergaren kuota likidoan, ehuneko 20ko kenkaria aplikatzeko mezenasgo mota bakoitzeko modalitateak balioesten diren zenbatekoan”.

Bost. Lehen xedapen gehigarria, lehen para-grafoa.

“I. tituluko II. kapituluko 1. eta 3. ataletan aurreikusitako araubidea honako hauei aplikatuko zaie:”

Sei. Bigarren xedapen gehigarria, f).

“f) 1.2 artikuluan zerrendatzen diren entitateak, beste tributu-administrazio batean aplikatzen dute-nak I. tituluaren aurreikusitako tributu-araubidearen baliokide bat”.

Zazpi. Laugarren xedapen gehigarria.

“Laugarren xedapen gehigarria. Lehentasuna duten jarduerak eta proiektuak, mezenasgo kultu-ralekoak, sozialekoak, ingurumenekoak eta kirole-koak.

1. Foru lege bidez ezartzen ahalko da lehenta-sunezkoak direla jarduera eta proiektu batzuk, mezenasgo kulturalakoak, sozialekoak, ingurume-nekoak eta kirolekoak, eta ezartzen ahalko da, orobat, zein diren mezenasgo sozialeko eta ingu-rumeneko jardueren entitate onuradunak.

2. Jarduera horiei eta entitate onuradunei dagokienez, foru legeak ehuneko bost igotzen ahalko ditu, gehienez, testu bategin honetan eza-rritako kuota-kenkariaren ehunekoak eta mugak”.

Zortzi. Bosgarren xedapen gehigarria, indargabetzea.

Bederatzigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioe-kin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 22.5.d) eta f) artikulua.

“d) Internet bidez deskargatzen diren ziurtagi-riak ematea, bai eta Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoek emandakoak ere, baldin eta alde zuzeneko prestakuntzarik behar ez badute eta automatikoki jaulkitzen edo deskarga-tzen badira”.

“f) Hezkuntza Departamentuaren menpeko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoek agiriak konpultsatzea kategoria bereziko familia ugarietako kideei eta kategoria bereziko guraso bakarreko familietako kideei edo gurasobakartasun egoeran dauden familietakoei”.

Bi. 25. artikulua, 1. apartatua, eta 4. apartatuko 1.3 tarifaren izena.

“1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da indarreko xedapenekin bat Elkarteen Erregistroan, Fundazioen

Erregistroan eta Lanbide Elkargoen Erregistroan gordailutu eta inskribatu behar diren egintza, egitate eta agirien inskripzioa eta egiaztapena egitea”.

“Beste edozein motatako inskripzio bakoitzeko, salbu eta zuzendaritza-batzordeko edo ordezkaritza-organoko kideak aldatzeko inskripzioak eta jarduera nagusiaren lurralde-eremu estatutarioaren barruko egoitza-aldaketak”.

Hiru. 28.4 artikulua, a, b eta c letrak aldatzea eta d) letra kentzea, e) letraren egungo edukia d) letra izatera pasatuko baita.

"a) Inprimategian editatutako kartografia

Izena	Euroak
1.Nafarroako mapa topografikoak	
1. 1:200.000 (hormakoa/tolestua).	3,90
2. 1:200.000 (erliebeduna).	32,50
3. 1:400.000 (hormakoa/tolestua).	2,60
4. 1:850.000.	1,30
2.Nafarroako mapa geologikoak	
1. 1:200.000 (hormakoa/tolestua).	10,75
2. 1:200.000 eta Memoria.	16,20
3.Iruñeko mapa geoteknikoak	
1. 1:25.000 eta Memoria.	16,20
4.Nafarroako laboreen eta aprobetxamenduen mapak	
1. 1:200.000 (hormakoa/tolestua).	9,70

b) Kartografia ploteatua:

Izena	Euroak
1.Nafarroako mapa topografikoak	
1. 1:5.000 (papera/koloretan).	13,00
2. 1:10.000 (papera/koloretan).	13,00
3. Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 hormakoa (argazki papera/koloretan).	52,85
4. Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 (argazki papera/koloretan).	18,00 orri bakoitzeko
5. Nafarroako mapa topografikoa 1:100.000 hormakoa (paper arrunta/koloretan).	32,50
6. Nafarroako mapa topografikoa 1:100.000 (paper arrunta/koloretan).	13,00 orri bakoitzeko
2. Nafarroako ortoargazkimapak	
1. 1:5.000 (argazki papera).	18,00
2. 1:5.000 (paper arrunta).	13,00
3. 1:10.000 (argazki papera).	18,00
4. 1:10.000 (paper arrunta).	13,00
5. Iruñerrikoa 1:12.500 eskalan (argazki papera).	18,00
6. Iruñerrikoa 1:12.500 eskalan (paper arrunta).	13,00
3. Nafarroako mapa geologikoa, 1:25.000 (paper arrunta).	13,00
4. Nafarroako mapa geomorfologikoa, 1:25.000 (paper arrunta).	13,00
5. Lurraren erabileren mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta).	13,00

6. Nafarroako Natura 2000 Sarearen mapa, 1:200.000 (paper arrunta).	13,00
7. Nafarroako abelbideen mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta).	13,00
8. Naturagune babestuen mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta).	13,00
9. Errepideen mapa, 1:200.000 (paper arrunta).	9,00
10. Batasuneko garrantziko lekuen eta naturagune babestuen mapak, zenbait eskalatan (BGLen edo NBen tamainaren arabekoak)	13,00
11. Nafarroako lurzoruaren erabileren mapa 1:25.000 eskalan (paper arrunta).	13,00
12. Nafarroako landare sailen mapa, 1:200.000 (paper arrunta).	13,00
13. Fotogramen kopia edo handitzeak, DIN-A4 artekoak	
1. Paper arrunta.	4,30
2. Argazki papera.	6,45
14. Planoak eskaneatu eta kopiatzea	
1. ISO A0 tamainakoa (paper arrunta).	18,00
2. ISO A0 tamainakoa (argazki papera).	25,00
3. ISO A1 tamainakoa (paper arrunta).	13,00
4. ISO A1 tamainakoa (argazki papera).	18,00
5. ISO A2 tamainakoa (paper arrunta).	8,60
6. ISO A2 tamainakoa (argazki papera).	13,00
7. ISO A3 tamainakoa (paper arrunta).	6,45
8. ISO A3 tamainakoa (argazki papera).	8,60
9. ISO A4 tamainakoa (paper arrunta).	4,30
10. ISO A4 tamainakoa (argazki papera).	6,45
11. Eskaneatzea PDF/JPG formatuan (paperezko kopiarik gabe)	2,00

c) Kartografia digitala:

Izena	Euroak
1. Iruñeko mapa geoteknikoaren CDa (1:25.000) eta Memoria (PDFa).	10,75
2. Web errepositorioak, 2 GB bitarteko fitxategien eskaerekin, formatu desberdinetan	5,00
3. 2 GBtik 8 GB bitarteko USBa	10,00
4. 8 GBtik gorako USBa	15,00*

Lau. 34.4 artikulua.

"4. Tarifak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuna duten barrutietan arrantzabaimenei dagozkien tasen zenbatekoa honako hau izanen da:

		EUROAK
1. TARIFA	Amuarrainen barruti naturalak (arraina harrapatu eta askatzekoa)	10,00
2. TARIFA	Amuarrainen barruti naturalak (arraina harrapatu eta eramatekoa)	12,00
3. TARIFA	Amuarrainen barruti intentsiboak (arraina harrapatu eta askatzekoa)	10,00
4. TARIFA	Amuarrainen barruti intentsiboak (arraina harrapatu eta eramatekoa)	12,00
5. TARIFA	Karramarro exotikoak modu kontrolatuan harrapatu eta eramateko tarteak	10,00
6. TARIFA	Tarifa murriztua	8,00

Tarifa murriztua izan dezakete, beren gorabehera sozialak direla-eta, landa garapenaren eta ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak erabakitzen dituen pertsona fisikoek".	0,06	16 urte
	0,08	15 urte
	0,20	14 urte
<u>Bost.</u> 35. artikulua, 3. eta 4. idatz-zatiak.	0,20	13 urte
"3. Sortzapena.	0,25	12 urte
Lizentziak eskatzen diren unean sortuko eta eskatuko da tasa; lizentzia horiek urtebeteko balio-aldia izanen dute.	0,32	11 urte
	0,37	10 urte
	0,50	9 urte
4. Tarifak.	0,54	8 urte
Tarifa 12 eurokoa izanen da lizentzia bakoitzeko".	0,48	7 urte
	0,42	6 urte
	0,36	5 urte
Hamargarren artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.	0,30	4 urte
	0,32	3 urte
2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak honako hauek izanen dira:	0,30	2 urte
	0,20	Urte 1
	0,06	Urtebetetik behera"

"Koefizientea	Sortzealdia
0,38	20 urte edo hortik gora
0,16	19 urte
0,10	18 urte
0,06	17 urte

Hamaikagarren artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legea.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko

12/2006 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarria honela geldituko da:

“Laugarren xedapen gehigarria. Katastroari buruzko informazio indarrik gabea eskuratzea.

1. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Artxibo Historikoa sortzen da, Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuaren menpe, non Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroarena ez den katastroari buruzko informazio indarrik gabe guztia bilduko den.

Nafarroako Foru Ogasunak behar beste datu-base sortuko ditu, Artxibo Historikoan dagoen informazioaren eskuragarritasuna edo sarbide publikoa bermatzeko xede bakarrarekin, eta hailetan Internet bidezko sarbidea ahalbidetuko da.

2. Era berean, katastroari buruzko informazio historikoaren eskuragarritasuna eraginkorra izan dadin, herritarrek kasuko administrazioari eskatu ahalko diote Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Artxibo Historikoan dauden agirien zerrenda edo udal entitatearen bulegoetan dauden katastroko agiri historikoen zerrenda.

3. Aurreko apartatuan adierazitako informazioa eskuratzeko eskaera ezetsi egiten da, Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuko zuzendariaren edo kasuko udaleko alkatearen ebazpen arrazoitu baten bidez, baldin eta eskatzaileak ez badu sinesgarri frogatzen eskatu duen informazioaren gaineko bidezko interesa duela, eskatu den informazioa adierazitako helburuetarako nabarmen desegokia bada edo, datu gehiegi eskatzeagatik, eskaera tokiz kanpo badago, eskaera bera behin eta berriz errepikatzen bada edo eskaerak zerbitzuaren funtzionamendu egokia baldintzatzen ahal badu”.

Xedapen gehigarri bakarra. Zerga-pizgarriak “Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022” AIPGrako.

1. 2024an eta 2025ean, “Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022” aparteko interes publikoko gertakariarekin loturiko programa eta jardueren finantzaketan parte hartzeagatik zerga-pizgarri batzuk lortzen ahalko dira, maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuak onetsi zuen Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean ezarrita daudenak. Horretarako, programa eta jarduera horiek uztailaren 31ko PCM/742/2022 Aginduaren bidez sortu zen departamentuarterako kide anitzeko organoak onetsi beharko ditu, hura baita “Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022” AIPGaren kudeatzailea.

Aurreko paragrafoan aipatutako programa eta jarduerak lehentasunezkoztat joko dira irabazi-asmorik gabeko entitateek egiten badituzte eta, horrez gain, entitate horiek aipatu testu bategineko I. tituluko zerga-araubidea edo haren baliokidea den beste Zerga Administrazio baten zerga-araubidea aplikatzen dutenean eta, hala, ehuneko bost puntu goratuko dira aplikatu beharreko kenkarien ehunekoak eta mugak.

2. Zerga-pizgarrien aplikazioak honako baldintza hau izanen du: entitate onuradunek Zerga Administrazioari informazioa ematea jasotako dohaintzei eta ekarpenei buruz, zerga arloko araudian ezarritako ereduen arabera.

Era berean, entitate onuradunak ziurtagiri bat egin beharko du, finantzaketan izandako parte-hartzearen baliozkotasuna egiaztatzeko, honako hauek jasota:

a) Izen-deiturak edo sozietatearen izena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai pertsona edo entitate emaile edo mezenasarena, bai onuradunarena.

b) Aipatu departamentuarterako kide anitzeko organoak programa edo jarduera baimendu duela dioen aipamena.

c) Dohaintzaren edo ekarpenaren data eta balorazioa.

3. Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-pizgarriek aipatutako testu bateginaren 49. eta 50. artikuluetan ezarritako mugak eta bateraezintasunak bete beharko dituzte.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legea.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua aldatzen da 1.a), b) eta c) letretan eta 4. apartatuan araututako tarifei dagokienez:

“a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeke ur-erabilerei aplikatu beharreko karga tasak: 0,71 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur-erabilerei, etxekeak ez direnei, aplikatu beharreko karga tasak: 0,775 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamenduko sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek emandako

baimen administratibo beharrezkoak dituzten erabiltzaileak: 0,093 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

“4. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegi-tako lohien lerrotan:

NEURKETA	PREZIOA
5 m ³ arte	48,47 €
10 m ³ arte	96,95 €
10 m ³ baino gehiago	9,70 €/m ³ ”

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Legea onesten ez den bitartean, 2024ra luzatzen dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ezarrita daudenak ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1. artikuluan.

Erretiroa hartzeko gehieneko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatutako 1. artikulua funtzionario guztiei aplikatuko zaie, funtzionario atxikita dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistema zein den ere, barne harturik Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikiak ere.

Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanen du bere zenbait langileren zerbitzu aktiboa 2024. urtean zehar luzatzea zerbitzuaren premiengatik eta profesionalik eza-rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da

zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko legezko erretirorako adinera iritsi ondoren, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5. estamentuetako profesional fakultatiboei, bai eta estamentu horietakoak izanik zerbitzibururu edo laguntza-ataleko buruaren eginkizunak betetzen ari diren profesionali ere, baldin eta, betiere, norbere espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago. Luzapena baimentze aldera inguruabar hori egiaztatzeko momentua izanen da legezko erretirorako aurreikusita dagoen data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarria izanen da baimen-ematearen baldintzei eutsiz gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugatzat harturik.

Azken xedapenetan hirugarrena. Jarduneko zerbitzuan jarraitzeko salbuespena.

Salbuespen gisa, baimena ematen da jarduneko zerbitzuan jarraitzeko 70 urteko adinetik aurrera, Lurralde Kohesiorako Departamentuari Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren barnean atxikitako langileentzat, 2023. urtean zehar, urtebeteko eperako, arrazoiak izanik zerbitzuen beharrezan, profesionalen gabezia edo berehala egin beharreko proiektu eta/edo obren konplexutasun teknikoa, guztiz garrantzitsua Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde garapenerako. Edonola ere arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Azken xedapenetako laugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ematen ditu.

Azken xedapenetan bosgarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako efektuekin.

11-23/LEY-00013. Foru-lege proiektua, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri mailegu bat emateko Sunsundegui SARI

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2023ko abenduaren 18an hartutako Erabakiaren bidez, foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Horren bidez, baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri mailegu bat emateko Sunsundegui SARI.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzararekin adostu ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Aipatu foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri mailegu bat emateko Sunsundegui SARI

ZIOEN AZALPENA

Nafarroaren Garapen Sozietatea SL sozietate publikoak berariazko baimena eskatu dio Parlamentuari zenbait mailegu eragiketa formalizatzeke Sunsundegui SAREkin.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82.ter artikulua-ren 2. apartatua –maiatzaren 16ko 10/2014 Foru Legeak emandako testuan–, Parlamentuaren berariazko baimena eskatzen da edozein pertsona fisiko edo juridiko maileguen onuradun izateko, zenbatekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5etik gorakoa denean. Gehieneko arrisku bizia entitate emailearen araberakoa izanen da, hau da, maileguak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko entitateek emanak diren.

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen 25.2 artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikulua ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 84.000.000 euro izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 142.500.000 eurokoa izanen da. Zenbateko horren % 5ari dagokion kopurua 7.125.000 euro dira.

Nafarroaren Garapen Sozietatea SLk 3.400.000 euroko mailegua emana dio Sunsundegui SARI, eta beste mailegu bat ematea aurreikusuten du (eragiketa batean edo batzuetan), 4.000.000 eurokoa gehienez. Beraz, gainditu egiten litzateke Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako muga. Horregatik, bidezkoa da artikuluko horretan aurreikusitako baimena ematea.

Artikulu bakarra. Mailegua baimentzea.

Baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri gehienez ere 4 milioi euro arteko mailegu bat emateko (eragiketa bakarrean edo batzuetan) Sunsundegui SARI.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/ITP-00025. Interpelazioa, lan-istripuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

2023ko abenduaren 14an eginiko bilkuran, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak jasotzat eman zuen Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako interpelazioa erretiratu izana. Interpelazioa 2023ko abenduaren 12ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialesn argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
